

# abereen hizkuntza

ipuinak

BOOKTEGI

itzulpena & moldaketa  
Josu Zabaleta





# BOOKTEGI

*Guztion liburuak, guztiontzat*

[booktegi.eus](http://booktegi.eus)

# abereen hizkuntza

Ipuinak

itzulpena & moldaketa:

Josu Zabaleta

# AURKIBIDEA

AURKIBIDEA

Ahoa, besoa eta hanka nola elkartu ziren

Aitaren bila

Anaia jakintsuak

Armiarma eta basakatua elkarrekin ehiztari

Armiarmaren egiak

Anaia bikiak

Astoak basotik zergatik ihes egin zuen

Behi isats batez egindako makila

Burutxo eta buztantxo berriro nola elkartu ziren

Eguzkia eta ilargia

Emakume aberats-nahia

Gaitz egile gaitz hartzaile

Gasirren arrabita

Gizon bat eta lau emazte

Goso, historia kontalaria

Igelarekin bidaiari

Ilargia nola egin zen

Ipuinak nola asmatu eta zabaldu ziren

Lehoia, hiena eta katagorria

Mutiko harrigarria

Munduan izan ziren lehenengo gizonak

Nguranguran, krokodiloaren semea

Bizitza munduan zehar nola ibili zen

Oiloa eta mirua

Oparotasunaren adarrak

Printzesa harroa

Salbatzailea salbatu

Sagua eta katua

Sadko musikaria

Ergela

Txakala eta lehoia

Untonbinderen historia

Uretako izpiritua

Saguzarrak zergatik lo egiten duen buruz behera.

Zein buruargiena

Zein koloretakoa da kameleioia?

Zer den zailena

Zergatik esaten den gonbitak zor duela gonbita

Zerria eta elefantea

# Ahoa, besoa eta hanka nola elkartu ziren

Baule herriko ipuina. Afrika.

Antzina-antzinako garaietan, artean munduak osoa izateko asko falta zuenean, ahoa, besoa eta hanka elkarrekin abiatu ziren txango bat egitera. Lasai eta pozik zebiltzan elkarren ondoan; garai hartan, izan ere, egin zezaketen hori, elkarrengandik bereziak eta libre baitziren hirurak. Luzaro ibili ziren, harik eta horretan zingira batera iritsi ziren arte. Zingira horrek fama txarra zuen inguru hartan, eta nahiago izan zuten itzuli bat egin, zuzenean sartu baino. Izan ere, esaten zenez, zingira hartan sartzen zena, galdua zen betiko.

Eta horrexegatik zingira hura arrainez bete-betea zegoen. Nolako arrainak, gainera! Ahoari, arrain puska eder bat ikusirik, jateko gogo sartu zitzaion. Tamalez, ordea, arkua eta geziak ez zituen aldean. Besoari eskatu zion beraz:

– Utzizkidazu, mesedez, arkua eta geziak.

Besoak utzi zizkion. Ahoak tinkatu zuen arkua, jaurti zuen gezia, baina ez zuen jo arraina, eta zingirako uretan galdu zen.

Besoa haserre bizi-biziak hartu zuen eta oihuka eraso zion ahoari:

– Itzul iezadazu gezia; nire gezia, ez dut beste bat nahi. Eskubidea dut horretarako. Murgildu zaitez uretan eta ekar iezadazu nire gezia.

– Ez nazazu, arren, horretara behartu —esaten zion ahoak— ez duzu nahiko ni hiltzea, horratik?

Besoak, ordea, ez zuen entzun ere egin nahi besterik. Hala ere, uretan murgildu aurretik berriro herrira itzultzeko ados agertu zen. Herrian ahoaren adiskide guztiak ahalegindu ziren besoa baretzen eta ahoa uretan murgiltzera behartu ez zezan buruan sartzen: horren orde besterik berri-berri bat eskaini zioten, eta hura nahi ez bazuen, berak nahi zuen beste edozer gauza, berak esan. Ez alferrik.

Besoak ez zuen atzera egiten, bere gezia nahi zuen. Hankak, asper-asper eginik baitzegoen historia horiez guztiez, alde egin zuen.

Halaxe zingirara itzuli ziren. Ahoa uretan murgildu zen, barrenera eta barrenera, geroz eta barrenerago, baina ez zuen gezirik aurkitu. Zingiraren hondo guztia arakatu zuen, eta herritxo bat topatu zuen, uretako izpirituen bizilekua. Itxura beldurgarria zuten. Batek bidea itxi zion, esanez:

– Zeren bila zabilta zu hemen? Ez al dakizu hona datorrena galdua dela?

Ahoak beldur ikaratan erantzun zion:

– Gezi baten bila ari naiz, ezin dut itzuli hura gabe.

Uretako izpiritu hark ahoa horren beldurturik ikusita, errukitu, eta esan zion:

– Zaude lasai, ez zaitugu horregatik jango eta. Zoaz harako etxola hartara, hantxe aurkituko duzu gezi hori. Eta bide batez, har ezazu jostailu bat, gustukorik baduzu.

Ahoak han aurkitu zuen gezia, eta baita ilargi batzuk ere, etxolan. Garai hartan, izan ere, oraindik ez zen ilargirik zeruan. Ahoak ilargi bat hartu eta aingira baten gisan alde egin zuen handik.

Ahoa zingira ertzera iritsi zenerako gaua zen. Halaxe ohartu zen eman berria zioten jostailuak berebiziko distira zuela. Eztiaren koloreko argia ematen zuen, eta ederki erakusten zion bidea. Pozarren zihoan ahoa, munduko zuzirik ederrena zeramalako. Biharamunean itzuli zion gezia besoari, eta erdeinuz esan zion:

– Ez zenuen uste berriro ikusi behar ninduzunik, baina ikusten duzu huts egin duzula. Eta zaude, oraintxe erakutsiko dizut egin didaten oparia! Zuk jarri behar duzu aurpegia!

Herritar guztiak ilunabarreko dantzarako elkartu zirenean, ahoak zuzia erakutsirik korroaren erdi-erdian jarri zien. Ilargiak bere argi ezti-koloreaz dantzariei argi ematen zien; izatez haiek ere ez ziren dantzan ari, txunditurik baitzegozkion begira-begira jostailu argi-emaile hari. Horretan besoak korro erdira jauzi egin eta ilargia beretzat hartu nahi izan zuen. Ilargia izutu zen, eta etxola baten teilatu gainera egin zuen jauzi. Ahoak oihu egin zion besoari:

– Laga nire jostailua bakean, ikusiko duzu bestela eta!

Besoak ordea, ilargia harrapatu nahi zuen, eta etxola-teilatua igo zen haren atzetik. Ilargiak gorago ihes egin zion, gora eta gora, zeruraino. Haren errainu urre kolorekoak iluntasuna argitzen zuten, eta hainbestearaino argitu ere non gauetz aski ongi ikusten baitzen argizagi haren argitan. “A!” eta “A!” hasi ziren denak, harriturik; eta harrezkero gauero azaltzen da ilargia zeruan, distiraz.

Ahoak eta haren lagun guztiek beren jostailua itzultzeko eskatu zioten orduan besoari. Besoak otoi eta arren eskatzen zien barkatzeko, beste edozer emango zietela ordainetan: alfer-alferrik ordea. Herriko agureek erabaki zuten auzia: besoa ahoaren esklabo izatera kondenatu zuten.

Eta halaxe jarraitu du gaur egun ere. Besoak biltzen du garia, hark biltzen ditu fruituak, hark ehizatzen eta arrantzan egiten, ahoak zer jan izan dezan. Hanka ibili eta ibili dabil oraindik ere; batzuetan, hala ere, gizonak nahi ez zuen lekuetara ere bai, hain zuzen.

# Aitarenen bila

Karanga herriko ipuina. Afrika.

Aspaldiko garai batean baziren senar-emazte batzuk; etxola bazuten baina haurrik ez. Egun batean emaztea haurdun zegoela ohartu zen. Senarrari berri ona eman zion, eta hark, pozaren pozez, desira zuen guztia beteko ziola agindu zion.

– Bazkari gozo-gozo bat nahi nuke —esan zion emazteak.

– Esadazu zer nahi duzun eta berehalaxe ekarriko dizut —erantzun zion senarrak.

Emazteak, ordea, arrautzak eskatu zizkion, eta senarra arras ikaratu zen.

– Badakizu gure artean haurdun den emazteak ez duela arrautzarik jan behar.

– Nik ordea horixe nahi dut, eta ez besterik —jarraitu zion emazteak—. Hain ederrak dira gainera, eta hain kolore politak ditu egiten dituen txoriak. Azpiko lumak gris zurixkak ditu, ke arin bat bailitzan, eta bizkarra eta isatsa beltz-beltza, ikatza bezala. Hegoak grisez marratuak ditu, ilunabarreko zerua bezala. Mokoa ere beltza du, eta hankak gorriak. Gandorra ere badu, gandor arrea! —Eta halaxe pozaren pozez, urduri, txaloka jarraitzen zuen aurrera emazteak, hegazti hark zituen gauza eder guztiak kontatzen.

Gizonaren aurpegia, berriz, lehendik beltza bazen, arre, gris, koloregabetu egin zen bat-batetik.

– Zaude isilik, andrea —esan zion oihuz, heriotz-ikara batek harturik—. Esaten ari zaren txori hori hegazti sakratua da!

Emazteak ordea halako grina zuen arrautza haiek jateko non, haiek ezean, gaixotu egin baitzen. Horregatik, bada, senarra arrautza haien bila abiatu zen; eta aintzira baten ertzerantz iritsi zen. Aintzira haren erdian bazen uharte bat, uhartean zuhaitz bat, eta zuhaitz hartan hegazti zuri-beltzaren habia.

Gizona, harkaitzez harkaitz eta harriz harri ibiliz eta jauzi eginez uhartera iritsi zen eta zuhaitzera igo. Gizonak bazuen esperantza habia hutsik egongo ote zen. Ez ordea; lau arrautza zeuden habian, arrautza urdin arin batzuk, zeruak goiza esnatzen denean izaten duen urdin garden argikoak. Pintarratu samarrak ziren hala ere, zenbait puntutxo ilun-gorritz han eta hemen margotuak. Gizonak eskua luzatu zuen, etsipenez eta hasperenka, arrautza haiek hartzeko; une horretantxe, ordea, oinak irrist egin zion, zigortu beharko balu bezala, gizona aintzirako uretara erori zen, eta krokodiloek jan zuten. Zigortzeko agian.

Handik gutxira emazteak hiru seme ekarri zituen mundura, mutilak hirurak. Oso izen bitxiak jarri zizkien: lehenengoari Ekarle jarri zion izena, bigarrenari Antolatzaile eta hirugarrenari Berpiztaile. Amak ere ez zekien zergatik izen haiek. Deitorez ari zen bere senarra galdu izanagatik, eta damu zuen, zinez, hura heriotzara bultzatu izana.

Haurrak zerbait nagusitu zirenean aitaren berri galdetu zioten amari. Amak egi-egia esan zien, beraiek jaio baino lehentxorago hegazti sakratuaren arrautzen bila nola joan zen, eta nola handik gehiago itzuli ez zen.

– Debekatuta dago hegazti sakratuaren arrautzak lapurtzea, ordea —esan zioten, harriturik eta ikaraturik, amari—. Bekatu horren zigorrez hila da, ziur.

– Zuen aitak gauza debekaturik egin bazuen, nire erruz egin zuen, nik eskatuta egin zuen-eta. Eta baita zuengatik ere, nire sabelean baitzineten —esan zien amak negarrez—. Bihotz oneko gizona zen zuen aita.

– Geuk bilatuko dugu —esan zuten hiru semeek, eta aintzirarantz abiatu ziren. Ekarle uretan murgildu zen; aitaren hezur guztiak bildu eta uhartera atera zituen. Antolatzailek hezur guztiak zein bere lekuan jarriz antolatu zituen. Berpiztailek hatsa emanez hezurrei bizia eman zien, haizeak palma hostoei eragiten dienean bezala.

Aita bizirik zen berriro, eta pozaren pozez nahi zuten guztia emango ziela eskaini zien semeei:

– Iguzu txahal bat jateko.

Hiru semeak bere aurretik herrira bidali zituen, berpiztu zelako berria zabal zezaten. Bera iritsi zenean, txahal bat hil zuen, erre zuen eta semeei jaten eman zien. Semeek, ordea esan zioten:

– Aita, norbait falta da oraindik. Zatoz gurekin etxera.

Eta etxera eraman zuten. Amak negarrez hartu zituen:

– Barazkiak prestatu dizkizuet, eta baditut hosto batzuk okela jar dezazuen. Zatozte eta jan ezazue! —eta bere zoko batean ezkutatu zen.

Aitak, ordea, esan zion:

– Zatoz zu ere, andrea, jan ezazu gurekin, eta egon gaitezen denok elkarrekin.

Poz-pozetan igaro zen otordua, eta zorionez bete-beterik zeuden guztiak. Amak ez zuen gehiago gaitzerako baliatu nahi izan aitaren bihotz ona, eta inoiz ez zion berriro eskatu hark ongi irizten ez zion gauzarik.

# Anaia jakintsuak

Uzbek herriko ipuina. Asia.

Urruti-urrutiko lurralde batean bazen behin gizon jakintsu bat, hiru seme zituen. Jakintsu hark, aurki hil behar zuela sumatu zuenean, bere ondora etortzeko hots egin zien semeei:

– Nire semeak, ni banoa —esan zien—. Ez dut artalderik ez beste abererik; ez dut urrerik ez zilarrik, zer utzi. Baina inon den ondasunik preziatuena eman dizuet: arrazoiz pentsatzen erakutsi dizuet, eta hil naiteke bakean.

Hitz horiek esanik, betiko itxi zituen begiak.

Handik puska batera, hiru anaiak elkarrekin bildu ziren etorkizunaz hitz egiteko, eta honela erabaki zuten:

– Goazen mundu zabalean ibiltzera. Nola edo hala aterako dugu bizimodua; horrek ez dio askorik axola. Baina ikasteko aukera dugun guztia ikasiko dugu, eta hala bi bider edo gehiago aberastuko dugu aitak utzi zigun herentzia.

Biderako abioak egin eta hornizioak bildurik, mundu zabalean ibiltzera abiatu ziren. Ibili eta ibili, lurralde idorrek, basamortuak, mendi garaiak igaro zituzten. Berrogei egunez ibili ziren, gelditu gabe. Jateko hornizioak bukatu zitzaizkien, goseak eta egarriak ez zieten atsedenek ematen. Nekeak akiturik zeuzkan; ezin zuten aurrera urrats bat eman.

Horretan zuhaitz batzuk ikusi zituzten urrutitik; hiri bat zen han.

– Goazen bizkor, hor bada jendea eta —esan zuten pozaren pozez, oinetako mina eta nekea ahazturik.

Anaia zaharrena aurrean zihoan, eta bi gazteenak atzetik. Horretan anaia zaharrena gelditu eta beste biei esan zien:

– Aspaldi ez dela gamelu bat igaro da hemendik.

Bospasei urrats eginda, anaia bigarrenak esan zuen:

– Gamelu hori begibakarra da.

Beste hiruzpalau urrats emanik anaia gazteenak esan zuen:

– Gamelu horretan emakume bat doa.

Hiru anaiek aurrera jarraitu zuten; horretan zaldun bat topatu zuten, gerritik zintzilik ezpata zuela. Adi-adi begiratu zien hiru anaiei, ezer esan gabe.

Anaia zaharrenak galdetu zion:

– Zerbait galdu duzu, ausaz, zaldun ausart horrek?

Zaldunak, harri-harri eginik, zaldia gelditu zuen.

– Bai —erantzun zion.

– Gamelu baten bila ari zara, ezta? —galdetu zion berrio anaia zaharrenak.

– Bai, halaxe da —erantzun zion zaldunak.

Anaia bigarrenak ere hitz hartu zuen:

– Gamelu hori begibakarra ez al zen?

– Bai, halaxe zen —erantzun zion zaldunak, geroago et harrituago.

– Eta emakumezko bat al zihoan gainean? —galdetu zion anaia gazteenak.

Zaldunak harriturik begiratu zien hirurei, eta esan zien:

– Zuek duzue hortaz gamelua! Non duzue, lapur horiek?

– Guk ez dugu ikusi zure gamelurik —ihardetsi zioten hiru anaiek.

– Ikusi ez baduzue nola dakizue dakizuen guztia? —galdetu zien zaldunak.

– Aztarnetatik sumatu diogu —erantzun zioten—. Horrako bide horretatik joan da zure gamelua. Zoaz laster-laster, eta berehala harrapatuko duzu.

– Zaudete horretan... —jaulki zien Gamelu jabeak—, zuek daukazue nonbait nire Gamelu hori!

—

Eta ezpata zorrotik aterarik, aurrean hartu zituen hiru anaiak. Shah-ren jauregira eraman zituen eta Shah-rengana berarengana joan zen kexu ematera. Gertatutako guztiaren azalpena eman zion:

ardiekin mendira zihoala emaztea nola zihoan artaldearen ondotik Gamelu gainean; baina oso atzera geratu zela eta azkenean galdu egin zirela, emaztea eta gamelua biak.

Gudariak esana entzunik, Shah-k erantzun zion:

– Bistan da, zuk ezer esan ez diezularik zehaztasun horiek guztiak eman badizkizue, beraiek dituzte zeure gamelua eta zure emaztea. Ekar itzazue malapartatu horiek.

Gudariak aretotik irten eta berehalaxe sartu zituen hiru anaiak Shah-ren aurrera.

– Ea bada, gaizkile halakoak —jaulki zien Shah-k—. Non duzue gamelua, non daukazue nire gudari leial honen emaztea?

– Guk ez dugu ikusi horren gamelurik ez emazterik —erantzun zioen hiru anaiek.

– Gudari honek ez dizue ezer esan, zeuek aipatu diozue gamelua eta baita haren gainean emakume bat zihoala ere. Nola uka dezakezue orain zuen errua?

– Guk, Shah jauna, zer sufritu asko izan dugu gure bizitzan zehar, asko ibiliak eta asko ikasiak gara munduan, eta edozer gauza asmatzen dugu arrazonamenduaren bidez. Gameluarena horrelaxe asmatua dugu.

Shah-k ez zien sinetsi, eta barrez esan zien:

– Asma al daiteke inoiz ikusi ez dena?

Bere bizirrari deiturik zerbait esan zion belarrira. Bizirra jaiki zen eta jauregitik kanpora irten zen. Handik pixka batera bi morroik kutxatxo bat ekarri eta lurrian utzi zuten. Shah-k esan zien hiru anaiei:

– Horra! Asma ezazue orain zer dagoen kutxa honetan. Asmatzen ez baduzue lepoa moztuko dizuet.

– Ez dakit zer, baina zerbait bada hor —esan zuen anaia zaharrenak.

– Eta zerbait hori biribila da —gehitu zuen bigarrenak.

– Granada-sagar bat dago kutxan —esan zuen anaia gazteenak.

– Ekarzue kutxa hori —agindu zuen Shah-k.

Morroiek agindu hura bete zuten; Shah-k kutxa zabaldu eta begiratu zuen; granada-sagar bat zegoen! Granada-sagarra harturik, jaso eta han zeuden guztiei erakutsi zien. Gudariari esan zion:

– Gizon hauek ez dira gaizkileak, antza denez, igarleak baizik. Zoaz bada, eta bila ezazu zure gamelua beste nonbait.

Hiru anaien zuhurtasunak hariturik zeuzkan han zeuden guztiak. Shah-k berak erretilu bete ogi egin berri ekarri zien:

– Hartu eta jan ezazue nahi duzuen guztia —esan zien.

Anaiek elkarri begiratu, irribarre egin eta nork bere zatitxoa janik, gainerakoa zapi batean bildu zuten.

# Armiarma eta basakatua elkarrekin ehiztari

Akan herriko ipuina. Bolikosta. Afrika.

Armiarmak piztia ergelen bat bilatu nahi zuen ehizarako tranpa bat jartzen lagun ziezaion, eta basakatuari esan zion:

– Badakizu zer?

Eta basakatuak erantzun:

– Ez, ez dakit zer.

Armiarmak esan zion:

– Badakit non den belar pila bat, ondotik basoko piztiak igarotzen direna. Badakit, baita ere, oso eskuzabala zarela eta inori ez zeniokeela iruzur egingo, baina zer irudituko litzaizuke bion artean tranpa bat jartzea?

– Ni ergeltzat naukatenak, horiek bai ergelak, ez bainaiz batere eskuzabala, neurekoia baizik, baina ez dio axola, ergelekin bakean erraz bizitzen da. Jarri dezagun bada, tranpa hori —erantzun zion basakatuak.

Biharamun goizean goizik bada, tranpa jarri zuten, eta arratsaldean begiratzera joan zirenerako antilope bat zegoen zuloan. Basakatuak armiarmari esan zion:

– Eraman ezazu zuk; biharko beharbada antilope handiagoa harrapatuko dugu, eta hura eramango dut nik. Larrutu eta txano bat egingo dut larruaz. Harekin antilope ehiztari deituko didate; zuri berriz, antilope-kumeen ehiztari.

Armiarma haserretu egin zen.

– Begira gero zer hasi zaigun mozolo hau. Eraman ezak heuk antilope hau, biharkoa nik eramango diat.

– Ondo da, ondo da —erantzun zion basakatuak. Antilope-kumea bizkarrean hartu eta etxera itzuli zen, tranpa berriro prestatuta.

Biharamun goizean berriro itzuli ziren tranpa jarria zuten lekura. Antilope handi bat zegoen zuloan. Basakatuak esan zuen:

– Oraingoan zure txanda duzu eta eramanez ezazu. Baina ikusiko duzu, bihar basurdea harrapatuko dut. Ez dakizu zein gozoa duen haragia.

Armiarmak harriturik erantzun zion:

– Ez zara dirudizun ergela! Begira, har ezazu zuretzat antilope hori, eta hala bihar nik eramango dut basurdea.

– Zeuk nahi duzuna —onetsi zuen basakatuak.

Biharamun goizean, basakatuak iragarri bezala, basurde bat zegoen zuloan. Basakatuak esan zuen:

– Har ezazu eta joan zaitez. Bihar bufalo handi bat harrapatuko dut. Larrutuko dut, haragia jan eta larruaz txano bat egingo dut. Bufaloen etsai deituko didate denek.

– Eramanez ezazu basurdea eta zaude isilik! Bihar nik harrapatuko dut bufaloa —erantzun zion armiarmak.

– Hala beharko du —esan zion basakatuak—, hala beharko du, baina ergela izango zara zure bizitza guztian.

Biharamun goizean berriro tranpan begiratu eta bufaloa aurkitu zuten. Basakatuak esan zuen:

– Ai, armiarma, oraingo horretan pozik egon zaitezke horratik. Lortu duzu zurea. Ez dio axola ordea, bihar elefantea izango da hemen eta nik harrapatuko dut. Famatu egingo naiz, ehiztarien errege deituko didate. Nire bizitza guztia elefante-ehizan emango dut.

Armiarma ez zen batere pozik.

– Zuk uste, hori! —esan zion basakatuari—. Zein izango da gu biotan famatua. Zuretzat bufaloa; eta biharko elefantea niretzat.

Basakatuak onetsi zuen, baina armiarma adi egon izan balitzaio entzungo ziokeen bere golkorako esaten:

– Ni behintzat horren erraz ez naute inoiz engainatu.

Biharamun goizean tranpara joan zirenean elefantea zegoen.

– Hartu zure ehiza eta eramazu nahi baduzu. Bihar goizean magiazko belar bat aurkituko dugu. Hartatik bazkatzen dira ahuntzak, bufaloak eta oreinak. Belar hori hartuko dut, eta animalia horiek guztiak niretzat izango dira. Hala ahaltsu eta aberats izango naiz.

Armiarma haserretu egin zen. Oihuka hasi zitzaion basakatuari.

– Zuretzat elefantea! Aginpidea ea aberastasuna nik nahi ditut. Biharko belarrak niretzat.

Basakatuak ez zuen eztabaidarik hasi nahi.

– Zuk agintzen duzu, esan zion.

Biharamun goizean armiarma basakatuarenera joan zen; hark ordea, ondoezik zela erantzun zion, eta ezin ziola lagundu.

– Oso gaixorik nago. Aurreko hanka ezin dut mugitu, eta atzekoak ezin ditut lurlean jarri. Tranpan aurkitu behar zuen aberastasunaren pozez, armiarma bakarrik joan zen. Tranpan begiratu, eta han ezer ez zegoen, belar lehor pixka bat bakarrik. Baina ez bufalorik, ez oreinik, ez ahuntzik...

Amorruak suturik etxera itzuli eta zin egin zuen ez zuela bakerik izango basakatua hil arte.

Basakatuak etxetik alde egin zuen, bada ezpada ere.

Horregatik esan ohi da: “pikaroa orbeletan harrapatzen da beti”.

Harrezkero armiarmaren ezkutuan ibiltzen da beti.

# Armiarmaren egiak

Baule herriko ipuina. Afrika.

Antzinako garaietan animaliak ere herrietan bizi ziren, gizonak bezala. Aldi batez lehorte gogorra izan zen, tantaka besterik ez zen banatzen ura, eta egarriak hil beharrean zeuden denak. Armiarma eta haren umeak ere egarriak zeuden. Horregatik, goiz batez, horrela ezin zitekeela gehiago jarraitu eta zerbait egin beharra zegoela hartu zuen deliberoa. Berehalaxe asmatu zuen zer egin. Baso-basoan bazen aintzira bat ur fresko gardenezkoa. Hara ordea, inor ez zen ausartzen joaten, izpiritu gaiztoak han bizi baitziren, eta inor ur hartatik edatera ausartzen bazen zati-zati egiten zuten errukirik gabe.

“Han ba omen da ura. Egia ote da? —pentsatzen zuen bere golkorako—. Eta urik bada, ez ote naiz ni izpiritu gaizto guztiak baino maltzurragoa? Bai noski, askoz gainera”. Gerorako gabe, bada, bi kui hustu hartu zituen, elkarri soka batez lotuak, haurrak uretan bainatzera doazenean besoetatik lotuta jartzen zaizkienak bezalakoak, eta zulotxo bana egin zien. Horrekin aintzirara joan zen.

Hara iritsi zenean izpirituen herria hilik bezala zegoen, bi izpiritu-kume baino ez zeuden herria eta aintzira zaintzen. Armiarmak esan zien:

– Ikusi zein zikin natorren! Arren utz iezadazue uretan sartu eta garbitzen.

Izpiritu-kumeei ez zitzaien gaizki iruditu bainatzea, baina handik ur tanta bat bera ere ez ateratzeko agindu zioten.

– Zaudete lasai —agindu zien armiarmak— eta aintziran sarturik igerian eta jolasean hasi zen. Uretan jolasean ari zela kalabazak urez betetzen ari zitzaizkion poliki-poliki. Bete zitzaizkionean, aintziratik irten eta etxera itzuli zen, alai eta pozik. Armiarmaren umeak bai alaitu eta poztu zirela egarria hil arte edan ahal izan zutenean.

– Egia zen, eta ezagutu dut —pentsatu zuen bere golkorako armiarmak, eta ziur zegoen handik aurrerako ere bazekiela ura non aurkitu.

Animalien herrian gainerako animaliak berehalaxe ohartu ziren armiarmak bazuela nondikbait ura, eta nondik zuen galdetu zioten.

– Zeuek aurkitu behar duzue egia —erantzun zien armiarmak, baina ez zien gehiagorik argitu. Hienak ordea, armiarmari azpijoko bat egitea deliberatu zuen egun batez. Arrautza bat hartu eta, ezpainaren eta ohiaren artean sarturik, armiarmarenera joan eta esan zion:

– Adiskidea, hagineta min ikaragarria dut. Ken iezadazu arren hagin hondatu hau.

Eta armiarmak, borondate oneko jendea baitzen, hagina kentzeko eskua ahoan sartu zionean, hortzak estutu, eta doinu gaizto batez esan zion:

– Ura non aurkitu duzun esaten ez badidazu, hozkada batez kenduko dizut eskua.

Hala armiarma beharturik zegoen zekiena esatera, eta proposamena ere egin zion hienari elkarrekin joango zirela izpirituen herrira.

Hiena ordea ase ezina zen. Kalabazak txikiegiak iruditzen zitzaizkion, eta buztinezko ontzi borobil handi batzuk prestatu zituen ura garraiatzeko. Ontzi haiek elkarri soka batez loturik eta zulotxo bana eginik, armiarmarekin abiatu zen.

Aintzira ondora iritsirik zain zeuden bi izpiritu-kumeak topatu zituzten, eta armiarmak arren eskatu zien ea berari eta hienari bainatzen utziko zieten. Izpiritu-kumeak ados zeuden oraingoan ere, armiarmak eta hienak aintziratik urik ateratzen ez bazuten. Armiarma eta hiena aintziran sartu eta igerian aritu ziren puska batean. Armiarmaren kuiak berehalaxe bete ziren; uretatik irten eta laster-laster etxera itzuli zen.

Hienaren buztinezko ontziak aldiz oso geldiro betetzen ziren urez, eta uretatik irten nahi izan zuenean, ezin irten, hankak soka trabatu zitzaizkion. Izpiritu-kumeak normala ez zen zerbait gertatzen zela ohartu zirenean, gurasoengana joan ziren lasterka.

Hiena urduri eta negarrez zegoen aintziran, eta beldurrak zentzua galarazirik, esan zuen:

– Ura eraman nahi genuen, eta hona preso.

Izpirituek hori entzun zutenean guztiz haserretu ziren. Soka moztu, ontziak puskatu eta berebiziko jipoia eman zioten hienari. Ozta-ozta salbatu zen hura, eta basoan barrena ihes egin zuen. Harrezkero ez zen itzuli animalien herrira.

Armiarma berriz harro baino harroago zebilen herrian, egia berak beste inork ez zekielako. Lehortea amaitu eta euri sasoi iritsi zenean, bere egiarekin munduan zehar ibiltzera joatea erabaki zuen. Kuetako bat hartu zuen, zuloa handitu zion, eta barrenean oihu egin zuen:

– Egia!

Eta kuia buruan harturik, emakumeek gauzak buru gainean erabiltzen dituzten bezala, bideari ekin zion. Bidean zihoala horrela gogoeta egiten zuen bere baitan, “Egia buru gainean badaramat, neurea izango dut, eta inork ezin izango du egia gelditu”.

Ibai batera iritsi zen eta banana eder batzuk ikusi zituen uretan ispilaturik. Haiek ikusirik uretan murgildu zen, baina bananarik ez zuen aurkitu. Uretatik irten, eta zutiturik, berriro ikusi zituen

bananak uretan. Berrito murgildu zen, eta berrito irten, eta halaxe berrito eta berrito hatsa galdu zuen arte. Neka-neka eginik belarretan etzan zen, ibai ondoan, eta buru gainetik kuia kendu zuen. Eta zer ikusiko begien aurrean? Bananak zuhaitzetik zintzilik, lehen buru gainean zerabilen kuiagatik ikusi ez zituenak.

Horregatik, guztiz haserreturik, mila puska egin zuen kuia, eta bere buruari galdegiten zion: “Egia ote nerabilen nik buru gainean? Eta egia izanda ere, hori ote da egia bakarra, izan daiteken egia bakarra? Ez noski”.

Orduantxe ohartu zen armiarma egiari dagozkionetan ezer ez dela erraz eta soilik.

# Anaia bikiak

Angolako ipuina. Afrika.

Emakume batek bi seme izan zituen, bikiak; seme horiek gauza miresgarriak egiteko ahalmena zuen kutun bana ekarri zuten mundura jaiotzean, nork bera gisakoa. Anaietako batek Luenba zuen izena; besteak Mabungu. Jaio zirenerako ia haziak eta gizonduek zirenez, eta bikietan batek izan behar duenez zaharrena, Mabunguk etorri nahi izan zuen lehena mundura.

Garaitu horretan Uretako Jainkosa Nagusiaren alabak ezkon eskaintza asko hartzen zuen, baina denak baztertzen zituen, esanez senarretarako zetozkion haietako bat ere ez zuela maite.

Mabunguk horren berri jakin zuen, eta harekin ezkontzea deliberatu zuen. Bere kutunari laguntza eskaturik, belar sorta bat bildu, eta hosto batez adar bat egin zuen, beste batez aiztoa, beste batez lantza, eta gisa horretan prestatu zen biderako.

Ibili eta ibili goseak zegoen, eta bere kutunari hots egin zion:

– Zer nahi duzu?, ni goserik hiltzea? —eta bat-batean oturuntza oparo bat azaldu zen. Hura jan zuenean, Mabunguk eskaturik kutunaren ahalmenak plater guztiak kendu zituen.

Ibili eta ibili bide luzea egin zuen berriro Mabunguk, arras nekatu zen arte. Kutunaren ahalmenak atsedean leku bat bilatu zion.

Egunetan eta egunetan ibili ondoren, Uretako Izpiritua eta haren alaba bizi ziren lekura iritsi zen. Uretako Izpituaren alabak Mabungu ikusi zuen bezain laster, amarengana jo zuen, esanez maiteko zuen gizona ikusi zuela, eta hil egingo zela harekin ezkontzen ez bazen.

Mabunguk Uretako Izpituari bere bidaiaren arrazoia jakinarazi zionean, ordea, hark ez zuen agerian utzi nahi izan bere alabaren sekretua, eta harengana joateko esan zion, eta azal ziezaiola bere desira, hura onez bazegoen. Hala, mutilak eta alaba gazteak elkar topatu zutenean, elkarri lotu eta zorionez bete ziren.

Etxe eder batera eraman zituzten, eta hantxe egon ziren herriko biztanle guztiek jai handi bat egiten zieten bitartean. Ezkontza biharamuneko goizean, Mabungu harriduraz ohartu zen horma guztiak ispiluz estaliak zeudela, baina ispiluak oihalez estaliak zeudela, beira ezin ikusi zela. Hori zergatik zen galdetu zion emazteari, eta hark ispilu baten estalkia kendu zuen. Ispilu hartan Mabunguk bere jaioterria ikusi zuen; hurrengo ispiluan Mabunguk ezagutzen zuen beste herri bat ikusi zuen, eta halaxe segidan, emazteak ispiluei estalkia kentzen zien ahala.

Bazen ordea emazteak estalkia kendu nahi izan ez zion ispilu bat. Zergatik estalkia kendu nahi ez zion galdetu zion Mabunguk. Emazteak erantzun zion esanez ispilu hartan gizonak eta emakumeak gehiago itzultzen ez diren lekua azaltzen zelako. Hala ere Mabungu bere emaztea konbentzitzeraino lehiatu zen, eta leku ikaragarri bat azaldu zen bere begien aurrean. Mabunguk ordea hara joan behar zuela esan zion emazteari, eta alferrik izan ziren haren negarrak, nahiz eta Mabunguk ahaleginak egin emaztea lasaitzen, esanez bere kutunaren ahalmenak zainduko zuela. Halaxe Mabungu inor itzultzen ez den lekurantz abiatu zen. Handik pixka batera atso xahar bat topatu zuen, eta pipa pizteko sua eskatu zion. Lotzeko lehendabizi bere zaldia eta hartzeko sua, esan zion. Mabunguk segituan obeditu zion; lotu zuen ongi zaldia, eta atsoarengana joan zen. Haren gertura iritsi zenean, atsoak hil egin zuen, eta Mabunguren aztarnarik ez zen geratu.

Luenba kezkaturik zegoen bere anaiaren berri aspalditik ez zuelako, eta haren bila joan behar zuela deliberatu zuen. Hartu zuen belar pixka bat eta, Mabunguk bezalaxe, bidaiarako behar zituenak egin zituen. Dena prestaturik, Uretako Izpirituaren herrirantz abiatu zen. Uretako Izpirituak ikusi zuen bezain laster bidera irten eta estu-estu besarkatu zuen, Mabungu deituz. Berak, ordea, bera ez zela Mabungu, Luenba baizik, anaia bikia alegia, esan zionean, ez Uretako Izpirituak ez haren alabak, ez zioten sinistu nahi izan, eta pozaren pozez dantzan hasi ziren. Luenbaren kutunaren ahalmenak gela batean itxi zuen emazte gaztea. Gisa horretan Luenbak ez zuen hurrengo goizera arte hura ikusi.

Luenbak ere ikusi zituen ispilu estaliak, eta Uretako Izpirituaren alabari haien berri galdetu zion. Hark gogo onez erakutsi zizkion guztiak, bat salbu; hura asko erregutu ondoren baizik ez zion erakutsi Luenbari. Inor itzultzen ez zen leku izugarri hura ikusi zuenean, Luenbak zalantza bat ere ez zuen izan han zegoela bere anaia.

Horregatik, bada, anaiaren bila joatea deliberatu zuen Luenbak. Mila esker eman zizkien Uretako Izpirituari eta haren tartekoei, egindako harrera onagatik, eta haiek guztiak negarrez utzirik alde egin zuen. Luenba ez baina Mabungu zela uste bete-betea baitzuten, inor itzultzen ez den lekutik joan etorria salburik egin zuela uste zuten, eta sinistuta zeuden berriro ere egingo zuela.

Ibili eta ibili egin ondoren atso xaharra topatu zuen, eta sua eskatu zion. Atsoak zaldia lotu eta su bila joateko esan zionean ordea, zaldia ez zuen estu lotu, eta atsoarengana zuzen-zuzen joanik, hil egin zuen.

Anaiaren eta haren zaldiaren hezurak aurkitu zituen; bere kutunez haiek ukitu zituen eta Mabungu eta haren zaldia berriro piztu ziren. Kutun harekin berarekin leku hartan hilik ziren beste ehunka pertsonen hezurak ukitu eta berriro piztu zituzten, eta denak batera abiatu ziren Uretako Izpirituaren herrira. Luenbak Mabunguri kontatu zion nola emazteak eta haren amak bera Mabungurekin nahastu zuten, eta nola bere kutunaren ahalmenak Mabunguren emaztea gorde zuen.

Horretan iskanbila bat sortu zen bi anaien artean beren jarraitzaileei buruz. Mabunguk bere jarraitzaile nahi zituen guztiak, zaharrena bera zelako, baina Luenbak beretzat zeuzkan, berak itzuli

zielako bizitza haiei, eta Mabunguri berari. Mabunguk Luenba hil zuen. Haren zaldia ordea Luenbaren gorpuaren ondoan geratu zen. Mabungu Uretako Izpirituaren herrira itzuli zen, eta bere biziko harrera egin zioten.

Luenbaren zaldiak haren kutuna hartu eta haren gorpua ukiturik, berriro piztu zen. Zaldira igo, Mabungu bilatu eta hil egin zuen.

Herriko biztanleek historia osorik entzun zutenean, ontzat eman zuten Luenbaren jokabidea.

# Astoak basotik zergatik ihes egin zuen

Hausa herriko ipuina. Afrika.

Asto batek behin esan zuen bera zela oihaneko piztia guztietan ahaltzuena, eta ezin konta ahala piztia zituela hilak. Hienak ordea, erantzun zion bera zela, eta ez astoa, piztiarik ahaltzuena.

– Ederki, orduan —erantzun zion astoak—. Bihar goizean bila ezak oihaneko piztiak biltzen diren lekua eta hator niri esatera.

Biharamun goizean beraz, piztiak biltzen ziren lekuaren bila abiatu zen hiena. Bidean zela elefantea, bufaloa, oreina eta beste hainbat animalia topatu zituen, eta denak leku berera zihoazela ohartu zen. Laster-laster joan eta astoari esan zion. Bere aurretik joan eta bidea erakusteko agindu zion astoak hienari. Bilera lekura iritsi zirenean, astoak esan zion:

– Orain alde egizu eta ez etorri berriro okela jateko deitzen dizudan arte.

Kontu handiz, piztiek ikus ez zezaten, astoa gehixeago hurbildu zen, eta arrantzaka hasi zen.

Elefanteak lasterka alde egin zuen izaturik, eta bufaloaren hanketan nahastu zen; oreinak eta gainerako animaliek ere, elkarrekin estropezu egin eta lurrera erori ziren. Nahasmendu hartan borrokan hasi ziren eta ia hil zuten elkar.

Orduan astoak hienari deitu zion.

– Horra, denak hil ditiat —esan zion harro-harro.

– Zinez ahaltzua zara, zure mendeko nauzu gaurtik aurrera —erantzun zion hienak.

Halaxe zen, izan ere; hiena astoaren mendeko zen eta haren esan guztiak betetzen zituen. Erabat sinistuta zegoen astoaren belarriak adarrak zirela. Behin ordea adar haiek ukitzen utziko al zion, baimena eskatu zion. Astoak, adeitsua baitzen, baimena eman zion, eta adar haiek ez zirela gogorak ohartu zen hiena.

– Hauek adarrak dira? —galdetu zion harriturik hienak.

– Ez, bai zera; belarriak dira horiek —erantzun zion astoak.

“Ederki, ederki” pentsatu zuen hienak bere baitarako.

Eta halaxe, gau batez, astoa larrean ari zela, hiena gainera jazarri zitzaion. Astoak bertatik sumatu zuen arrisku handitan zuela bizitza, eta indar guztiak bildurik herrira abiatu zen galapan.

Herritarrek, hura ikusirik, berehalaxe hartu zuten gogoa:

“Animalia honek mesede galanta egingo liguke gure lanetan lagunduz”. Eta hezi egin zuten.

Harrezkero astoak inoiz ez du gogorik ere berriro oihanera itzultzeko, ederki baitaki hienak ez dakiela isilik egoten, eta esanik izango diela animalia guztiei astoak buruan dituen horiek ez direla adar sendo gogorrak, belarri luze leunak baizik.

# Behi isats batez egindako makila

Liberian kontaktzen den modura. Afrika.

Tribuko agure bat altxatu zen eta hizketan hasi zen. Hona zer esan zuen:

Istorio bat kontatu behar dizuet, eta zuek esango didazue gero egia ala gezurrezkoa den, zer deritzozuen. Zuek esango didazue nork merezi duen aintza eta ohore, eta nork gogoratzea besterik ez. Zuek erabakiko duzue Ogalussa zaharraren zuhurtzia handia den, ala laburra; ongi jokatu zuen, ala gaizki. Zeuek erabakiko duzue, eta zuek nola esan, halaxe izango da, izan ere.

Hementxe gertatua da, orain dela aspaldi.

Muino baten tontorrean, baso ilun hezearen ertzean, Kundi herria zegoen. Gurea bezalakoxe herria zen: etxetxo borobilak, sukaldeak, teilatuetatik gora ke mehea. Kundin gu bizi garen bezalaxe bizi zen jendea: gizonezkoek ehiza, haurrek arrantza, eta emakumeek alea jo, almaiz handiaren gisako zurezko ontzietan.

Kundin Ogalussa bizi zen: ehiztaria. Eta harekin emaztea eta semeak.

Goiz batez Ogalussak arma hartu zintzilik zuen lekutik, eta basora abiatu zen ehizara. Emazteak sorora alde egin zuen ordua zuenean, eta semeak ganaduari jaregin eta larrean zaintzera.

Eguna joan zen; Ogalussa ez zen itzuli.

Jaten hasi ziren; Ogalussa, ordea, ez zen ageri oraindik.

Bi egun joan ziren, goiz eta arratsalde; eta Ogalussarik agertzen ez.

Non zen Ogalussa? Zer gertatu ote zitzaion? Ezbeharren bat ote?

Baso ilun hezeak ez zekarren berririk.

Asteak, hilabeteak joan ziren. Amak soroan jarraitzen zuen; semeen arten partituak zituzten arrantza eta larreak. Aitaren lekua ere hartu zuten, eta behin baino gehiagotan ehizara joaten ziren.

Isilean, ordea, ez zuten ahazten joandakoa: Ogalussa.

Handik gutxira Ogalussaren emazteak semea izan zuen. Muttiko bat: Puli jarri zioten izena.

Puli mutiltzen hasi zen. Lehendabizi esertzera iritsi zen; geroago katamarrean ikasi zuen, egun batean hitz egiten ere hasi zen. Ez zituen “aita” edo “ama” izan bere lehenengo hitzak. Harritu zituen denak. “Non da aita?” galdetu baitzuen.

– Non da aita? —galdetu zuen Pulik; inork ez zuen hitzik atera.

– Non da aita? —galdetu zuen berriro.

Anaiak soroetarantz eta ibai aldera begira geratu ziren, baina inork ez zuen ezer esaten.

Pulik berriro galdetu zuen:

– Non dago nire aita?

Anaiek oihan ilunerantz begiratu zuten, begiratu zioten gero elkarri, eta anaia zaharrenak azkenik esan zion:

– Han geratu zen.

– Aspaldi behar zukeen itzulia, itzultzekoa bazen —esan zion anaia bigarrenak.

– Behar ez denen bat geratuko zitzaion —iradoki zuen hirugarrenak.

– Hilik izango da —jarraitu zuen laugarrenak.

– Bestela etxera itzulia zatekeen —bosgarrenak etsi zuen.

– Aurkitu ahal bageneza —hasperen egin zuen seigarrenak.

– Oihana zabala da, nondik hasi behar dugu bilatzen? —bukatu zuen zazpigarrenak.

Anaia zaharrenak orduan esan zuen:

– Nik ikusi nuen etxetik irten zenean. Gogoan dut bide hartatik abiatu zela. Ea zori hobea dugun, begira dezagun aztarrenik geratzen den.

Eta Ogalussaren zazpi seme zaharrenak, beren armak harturik, aitaren bila abiatu ziren oihanean barrena.

Puli ez zuten eraman; haurra zen oraindik, hizketan ozta-ozta hasia. Etxean utzi zuten amarekin. Zazpi anaiak oihan beltz hezean barrena sartu ziren.

Inguruan zituzten zuhaitzak zeruraino iristen ziren, eta argirik ez zuten sartzen uzten barreneraino. Hala ere, egosi behar zituen bero hartan, lurrinak ez zien aurrera ikusten uzten.

Adarpe hartako hostajeon pasadizo estutan bezala zebiltzan. Bidea galdu zuten; baina anaia zaharrenak berriro aurkitu zuen. Berriro galdu, eta berriro aurkitu zuten, behin eta berriro.

Luzaroan ibili ziren, ibili eta ibili, zenbat denbora joan zen ez zekitela, ilun baitzegoen, egon ere, dena. Ezin zuten asmatu zenbat bider egunak gauari leku eman zion, eta gauek zenbat bider egunari.

Azkenean argi errainu bat ikusi zuten urrutira, hostartean. Soilgune bat zen basoan. Eta soilgune hartan, han hemen banaturik, Ogalussaren hezurak. Hezurren ondoan, haren arma.

Damu eta pena sentitu zuten zazpi anaiek. Zer egin, aitarik ez bazuten?

Zaharrenak esan zien:

– Honaino ekarri zaituztet, basoa den zabalarekin. Orain ordua duzue; bakoitzak zer dakien, egin beza.

Anaia bigarrenak orduan esan zuen:

– Nik badakit hildakoaren hezurak elkarrekin taxutu eta lotzen.

Ogalussaren hezurak bildu zituen, eta elkarrekin antolaturik, bakoitza zegokion lekuan jarri zuen, gizonak duen hezurdura osorik elkartu eta lotu zuen arte.

Hirugarren anaiak esan zuen:

– Nik haragiz eta giharrez bilduko ditut hezurak.

Egin zuen, eta laugarren anaiari utzi zion lekua.

– Nik odol beroz beteko dizkiot zainak, eta bihotzeraino iritsi araziko diot —esan zuen eta zainetara odola isuri zion.

Bosgarren anaiak hitz egin zuen orduan:

– Nik arnasa emango diot.

Gorputz etzanari arnasa eman zion, eta Ogalussa ikara batzuk eginik arnaska hasi zela ohartu ziren anaiak.

– Nik mugimena emango diot gorputzari —esan zuen seigarren anaiak, eta mugimena eman zion. Ogalussa lurrean eseri zen, eta begiak zabaldu zituen.

Zazpigarren anaiak esan zuen orduan:

– Aita bizirik dugunez, nik hitza emango diot.

Ogalussak ingurura begiratu, eta zutitu egin zen. Semeei begiratu zien. Han zituen zazpiak.

Ogalussa ehiztaria baitzen zinez, ez zuen astirik galdu alfer berriketan. Hain aspalditik galduan zituen semeei begiratu zien, eta san zien:

– Non da nire arma?

Semeek arma hartu, belarretan baitzegoen, eta aitari eman zioten.

Eta etxerako bideari ekin zioten, oihanean zehar.

Soroetara iritsi ziren, iritsi ziren herrira. Ogalussa etxean sartu zen. Emazteak bainua eta janaria prestatu zion.

Lau egunez egon zen Ogalussa etxean sartuta. Bosgarrenean buruko ilea moztu zuen, hilen erresumatik itzuli direnek ohi duten bezala, eta kalera irten zen.

Herritarrak poztu ziren Ogalussaren itzuleragatik.

Ogalussak behi bat hil, eta festa handi bat prantatu zien.

Behiaren isatsa moztu zuen, trentza egin, eta bitxiz eta metalez apaindu zuen. Hura zen makila ederra! Dantza sakratuen gidariek eta buruzagiek ere ez zuten hari itzala egingo zion makilarik. Hura bezalako maila ederrik herrian inork ez zuen inoiz ezagutu. Bikaina zen benetan, ikusi zutenek esaten zutena entzutera.

Ogalussaren itzulera ospatzeko zen goiza iritsi zen. Jantzirik ederrenak jantzita agertu ziren herritar guztiak. Musika-joleak iritsi ziren, eta dantzari ekin zitzaion. Danborrak ez ziren geratzen, eta emakumezkoak kantuan ez ziren isiltzen.

Ogalussa zutitu zen, eseri ziren denak, eta hitza hartu zuen:

– Egun batez oihanera joan nintzen ehizara —esan zuen—. Oihanaren ilunean lehoiabarrak eraso ninduen. Jan ninduen eta hantxe geratu ziren nire hezurak, han nire arma ere. Denbora joan zen eta nire lantzaren muturra herdoildu egin zen, nire lantzaren kirtena lizundu. Baina semeak bila

abiatu ziren. Hilen erresumatik atera ninduten eta etxera ekarri ninduten berriro, eta hemen naukazue. Makila hau daukat; ni itzuli ahal izateko gehien lagundu duenari emango diot.

Eztabaida hasi zen orduan. Ogalussaren seme guztiek egin baitzuten miraria, eta makila bakarra zegoen saritarako. Horregatik sortu zen iskanbila.

Seme zaharrenak aitaren hezurak aurkitu izan ez balitu, ez baitzuketen hilen erresumatik ekarriko. Bigarren semeak hezurak antolatu ez balitu, nori jarri behar zion, ordea, haragia eta giharra hirugarrenak? Odolik ez duenak, arnasa alferrik du, eta ezin mugitu eta hitz egin.

– Niri emango dit makila —zioen seme zaharrenak—, nik aurkitu nuen basoko bidea.

– Niri emango dit, nik antolatu nizkion hezurak —erantzuten zion bigarrenak.

– Baina nik bildu nizkion haragiz eta hezurrez —hirugarrenak.

– Eta zainetan odola nik jarri nion.

– Arnasa, ordea, nik.

– Baina mugimena nik eman zion.

– Hori ez da askorik, hitza nik eman nion —jarraitzen zuten laugarrenak, bosgarrenak, seigarrenak eta zazpigarrenak.

Ogalussaren semeek ziotena entzunik, herritarrak isildu egin ziren. “Behar bezalako aitak merezi dituen bezalako semeak ditu”, pentsatzen zuten beren baitarako.

Eta orduan Ogalussak hitz egin zuen. Hona zer esan zuen:

– Zaudete isilik. Ni bizitzeko gehien egin duenari emango diot makila.

Horixe esan zuen Ogalussak. Pauso batzuk eman zituen, eta behi isatsez egindako makila Puliren eskuetan jarri zuen, seme gazteenarenetan.

Herritarrek Ogalussaren erabakia ezagutu zutenean, ohartu ziren haurraren lehenengo hitzak zeintzuk izan ziren: “Non da aita?”

Ogalussaren erabakia zuzena izan zela aitortu zioten. Gizona ez baita hiltzen bizi direnek gogoan duten artean.

# Burutxo eta buztantxo berriro nola elkartu ziren

Karanga herriko ipuina. Afrika.

Behin batean bazen gizaseme gazte bat, bidean zihoana. Horretan sugetzar ikaragarri bat topatu zuen aurrean. Aizkorakada batez erdi-erditik ebaki zuen.

Sugearen burua neska bat bihurtu zen, Burutxo, eta isatsetik mutil bat sortu zen, Buztantxo; eta bakoitzak bere bidetik jarraitu zuten. Neska gazteak sugea erdibitu zuen mutilaren bide berbera hartu zuen, eta mutilari ederra iruditzen zitzaionez, emaztetzat hartu zuen. Pozik bizi izan ziren; zortzi seme-alaba izan zituzten, eta zorionak bete zituen haien bizitzak. Bilobak ere asko izan zituzten.

Sugearen beste erditik sortua zen gizona munduan zehar zebilen hara eta hona, eta inon ez zuen pozik aurkitzen. Eskale zarpailtsu bat bihurturik zebilen, baina abeslari bikaina zen, eta horrexegatik oso harrera ona egiten zioten alde guztietan.

Senar-emazteek hirurogei urte bazeramatzaten ezkondurik. Garai horretan Buztantxo alde guztietan galdezka hasi zen, topatzen zuen guztiari, ea norbaitek ezagutzen zuen Burutxo izena zuen emakume bat. Inork ez zion ematen, ordea, izen horren berri, inork ez zuen ezagutzen. Egun batez, ordea, landetxe batean Burutxo hura ondoko landetxean bizi zela esan zioten. Hara joan eta gauean sutondoan zeuden gizonen artean eseri zen. Burutxo izeneko emakume bat ezagutzen al zuten galdetu zien. Ezetz, ez zutela ezagutzen, erantzun zioten.

– Abesti bat kantatuko dizuet orduan —esan zien— abestuko al duzue nirekin batera?

– Oso gustura gainera —erantzun zioten.

Orduan Buztantxo abesten hasi zen: “Burutxo amona da, zuen amona sugea...” Eta jende guztiak berekin batera abesten zuen. Eta gero lotara joan ziren.

Biharamun goizean goizik, Burutxo sutondoan eseri zen, eta eguzkia atera zenetik bertatik, ahots beheran abesten hasi zen berriro. Landetxe hartako biztanleak poliki-poliki hurbiltzen hasi ziren eta abesten hasten ziren haiek ere. Burutxo, ordea, etxean gorderik zegoen, eta herriko biztanle guztiei deiturik, esaten zien:

– Hik har ezak saski hau, hik zaku hori, hik ontzi hau!

Bakoitzari tresna bat jartzen zion eskuan, lanak banatzen zizkien, edozein lan, sutondoan gera ez zitezten. Bera, berriz, etxe zokoan gorde eta belarriak estaltzen zituen, ezer ez entzuteko.

Eskalea ahots goran hasi zen orduan abesten, eta Burutxok entzun zuenean, are ozenago hasi zen bera ere abesten, eta lasterka-lasterka etxolatik kanpora irten zen.

– Nola dakizu zuk abesti hori? —galdetzen zioten denek harriturik.

Emakumeak ez zien erantzun; poliki-poliki sutara hurbildu zen, abesten isildu gabe. Ondondoraino iritsi zenean Buztantxo eta Burutxo berriro elkartu ziren; sugetzar handi bat osatu zuten berriro bien artean, eta suge hura basoan barrena ezkutatu zen.

Alfer-alferrik baita baturik izateko dena betirako banatu nahi izatea.

# Eguzkia eta ilargia

Dahomeyko ipuina. Afrika.

Eguzkia eta Ilargia elkarren ahaide ziren. Behin Ilargiak Eguzkiari esan zion:

– Gure seme-alabak zerutik lurrera jaurti behar ditugu.

– Ederki. Jaurti ditzagun —erantzun zion Eguzkiak.

Horretarako izendatutako egunean Ilargiak bere seme-alabak ezkutuan gorde zituen; zaku bat hartu, harri koskorrez bete eta Eguzkiarengana joan zen.

Eguzkiak, ezeren susmo txarrik hartu gabe, semeak eta alabak bildu eta zakuan sartu zituen.

Hartu zuten nork bere zakua lepoan eta lurrera jaitsi ziren. Ilargiak zakuan zeramatzan harriak banan-banan ibaira jaurti zituen.

Eguzkiak ere era berean hustu zuen zakua, han zeramatzan seme eta alabak ibaira jaurtiz.

Eta horren ondoren beren zeruko etxeetara itzuli ziren biak.

Eguna amaitu zen. Eguzkia ezkutatu zen, eta Ilargia bere seme eta alaba guztiekin azaldu zen zeruan. Eguzkiak ikusi zituenean sentimendu handia hartu zuen; Ilargiari deitu eta bere seme eta alaba guztiak ibaira zergatik jaurti arazi zizkion galdetu zion.

– Zuk argi eta bero handia duzu —erantzun zion—. Zuk ez duzu seme eta alaben beharrik. Gera daitezela uretan, eta bihur daitezela arrain. Gizonek arrantzatuko dituzte, eta haien janari izango dira.

Harrezkero Eguzkia eta Ilargia haserretu egin ziren. Oraindik ez dira adiskidetu, eta zein bere aldetik dabil zeruan.

# Emakume aberats-nahia

Ioruba herriko ipuina. Nigeria. Afrika.

Bazen gizon bat behin, arreba bi zituena: bata aberatsa zen, pobrea bestea; bai pobrea ere, ez baitzuen oihal-zerrenda bat ere, zerez bere semetxoa sorbaldan erabili, eta ihiz eta aihenaz egindako sare batean erabili behar izaten zuen gaixoa.

Senda-belarren bilketan aritzen zen, eta hortik zuen bizibidea.

Behin batean, ohi bezala, senda-belarretara joan zen; aldean zeraman semea. Sasiarte baten ondoan, semea jaitsi, eta zertxobait urrundu zen.

Ama inguruan ez zela, tximino batek haurra hartu zuen, jaso zuen zuhaitz burura, eta jolasean hasi zen.

Itzuli zen ama, eta semea ez ikusirik, oihuka hasi zen. Tximinoa, ordea, adarrik adar zebilen jauzika, haurra zeramala.

Honetan haurrak negarrari eman zion, eta amak, begiak jasorik, zuhaitz goran ikusi zuen.

Ama hari kantuan hastea bururatu zitzaion orduan, eta tximinoa, kantuak erakarririk, dantzan hasi zen, eta zuhaitzetik behera jaitsi zen, poliki-poliki.

Amak kantuan jarraitu zuen, harik eta tximinoak, dantzan egiteari utzi gabe, oina lurrean jarri zuen arte.

Lurrera jaitsirik, haurra amari itzuli, eta galdetu zion:

– Nola daiteke zu horren kantari ona izanda egunero belar bila ibiltzea?

Eta emakumeak erantzun zion:

– Hain bainaiz pobrea, non ez baitut beste bizibiderik.

Tximinoak esan zion:

– Bide horretatik aurrera jarraitzen baduzu, bada ezkerretara bidezidor bat; jo handik, eta luzera gabe milaka eta milaka fruitu dituen zuhaitz arbola batekin topo egingo duzu. Batzuk hoska hasiko zaizkizu: “Har nazazu, har nazazu”.

Baina horietakorik ezta ukitu ere; isilik geratzen dena, hura hartu.

Tximinoak agindu bezalaxe egin zuen dena emakumeak.

Fruituak eske eta eske hasi zitzaizkion: “Har nazazu, har nazazu!”; emakumeak ordea, haiei jaramonik ez, eta isilik zegoena hartu zuen.

Itzuleran fruitu hura tximinoari erakutsi zion. Hark esan zion:

– Etxera iritsita, sartu gelan eta zati ezazu fruitu hori.

Emakumea etxera iritsi zen, eta tximinoak esan bezala egin zuen. Fruitu barruan arropa pila bat eta diru mordoa aurkitu zuen. Aurkitutako guztia hiru zati egin zuen: bat anaiari eman zion, bestea ahizpari eta hirugarrena beretzat gorde zuen.

Ahizpa aberatsari, ordea, hartutakoa gutxi zela iruditu zitzaion, eta esan zion:

– Zaude lasai, badakit nola lortu duzun hau guztia; neu joango naiz eta gehiago hartuko dut neuretzat.

Biharamunean, bada, ahizpak bezalaxe egin zuen. Tximinoa ez zegoen andrea iritsi zenean. Tximinoa iritsi zenean, bada, haurra ikusi eta harritu zen:

– Horren esker txarrekoa ote da emakume hori? Ez du nolana hiko ere irritsa; nolana ere, jakin behar dut zergatik itzuli den berriro.

Tximinoak haurra hartu eta eraman egin zuen: ahizpa aberatsa, ahizpa pobrea bezala, kantuan hasi zen, eta tximinoa zuhaitzetik behera jaitsi zen.

Haurra amari itzulirik, galdetu zion:

– Atzokoa gutxi iruditu zitzaizun?

Ahizpa aberatsak bezperako bera ez zela erantzun zion, eta tximinoak hari emandako aholku bera eman zion, arbolatik hartzeko fruituaz.

Emakumeak arbola ikusi zuen, bere baitarako pentsatu zuen: “Zertzat ote nauka tximino horrek?; ni ez naiz horren ergela”.

“Jan nazazu, jan nazazu!” zioten fruitu haietatik pila bat bildu zuen, eta itzuleran tximinoari erakutsi zizkion.

Etxean, tximinoak esana egin zuen; fruituak zabaltzean, ordea, jantzien eta diruaren orde, suge gosetu gaiztoak atera zien haietatik, eta gorputz guztian hasi zitzaizkion hozka.

Horra zer gertatzen zaien irritsak darabiltzanei eta besteek oparia emanagatik esker onak itzultzen ez dituztenei.

# Gaitz egile gaitz hartzaile

Amhara herriko ipuina. Etiopia. Afrika.

Behin batean baziren bi anaia. Hain zeuden elkarri loturik, non ez baitziren gauza egun bat bere ere elkarrekin egon gabe igarotzeko. Horrexegatik hain zuzen, elkarrengandik aparte inoiz ez egoteko, etxe bat egin zuten, erosi zuten asto bat, eta merkatari hasi ziren biak elkarrekin.

Irabazi guztiak erdibana egiten zituzten, eta inoiz ez zuten liskarrik izan bien artean.

Anaia gazteenak, ordea, altxor ezkutu bat aurkitu zuen, eta harekintxe galdu zuen zentzu guztia.

– Neuretzat gordeko dut dena —pentsatzen zuen bere baitarako anaia gazteenak—. Nik aurkitu dut, eta niretzat izango da. Anaiari ez diot ezer emango.

Etxe bat egin, eta hara joan zen bakarrik bizitzera. Anaia txiroaren konturik ez zuen ezer jakin nahi. Xuhurra eta zekena bihurtu zen. Ogi apurrak ere ez zituen galdu nahi izaten.

Behin, anaia txiroarengana joan zen, eta esan zion:

– Gure etxe zaharra banatu, eta niri dagokidana niretzat nahi dut. Gure astoa ere erdibitu, eta niretzat nahi dut dagokidana. Zakurren janari izateko balioko dit, bestetarako ez bada.

Horiek entzunik, anaia pobrea aurrean belaunikatu eta arren eta arren hasi zitzaion:

– Ez ezazu desegin daukadan apurtxo hau, arren. Ez iezadazu egin horrelako bihozgabekeriarik. Utz iezazkidazu astoa eta etxea.

– Ez dizkizut utziko —erantzun zion anaia aberatsak—. Nirea denak niretzat izan behar du.

– Ez da bidezkoa. Goazen, erabaki dezala epaileak zer den zuzena.

Epailearengana joan ziren beraz.

– Jauna! esan zion anaia pobreak—. Entzun iezaguzu, eta erabaki ezazu zer den bidezkoa. Gu biok anaiak gara. Pobre bizi ginen eta garai horretan geneukan guztia erdibana egiten genuen. Etxea eta astoa genituen ondasun guztiak. Etxea bion artean jaso genuen, astoa ere bion diruaz erosi genuen. Orain anaia aberastu egin da. Etxe dotorea egin du beretzat; enperadoreak ere nahiko luke han bizi. Ehunkaazienda du. Baina gure etxe zaharra eraitsi eta erdia eraman nahi du. Astoa behintzat uzteko eskatu diot, eta ezetz, ez didala bererik ezer utziko erantzun dit; erdibitu eta bere zatia eraman nahi du. Bere etxe eta asto parte ordainduko diodala; baina ez du nahi. Horregatik

etorri gara zuregana, zure epaia eman dezazun. Esaguzu zuzentasunez zer den, eta zer ez, bidezkoa.

Epaileak anaia pobrearena entzunik, aberatsari galdetu zion:

– Zer diozu zuk hortaz?

Aberatsak erantzun zion:

– Jauna! Zure jakituriak ez du kaburik. Esadazu; nork bere ondasunez ez al du zer ere nahi duen egiteko eskubidea. Nik anaiari ez diot eskatu berea duena eman diezadan, baina nirea dudana ez dit utzi nahi hartzen. Bidezkoa al da hori?

Epaileak esan zuen:

– Arrazoi duzu. Inork ezin eragotzi dizu zure gauzez goza dezazun. Zoaz bada eta egizu deritzozun bezala: desegin ezazu etxea, eta erdibi ezazu astoa. Har beza bakoitzak bere zatia; hori da bidezkoa.

Eta anaia pobreari esan zion:

– Eta zuk ezin diozu eragotzi.

Anaia biak errespetu handiz makurtu ziren, eta nor berera joan ziren: anaia pobreak pena larria zeraman bihotzean; anaia aberatsak poza.

Anaia pobreak esaten zuen:

– Batere zentzurik ez du epai horrek.

Aberatsak berriz:

– Epaileak esana beteko da.

Eta halaxe, gerorako utzi gabe, astoa bi zatitan ebaki zuen; bere morroiak ekarri eta etxe zaharra desegin zuen.

Bitartean anaia pobreak berari zegozkion tresnak bildu eta etxea erretzen hasi zen.

– Ez ezazu etxea erre; nire erdiari ere su eman diezaiokezu eta —esan zion pobreari.

– Nork eragotzi behar dit nire ondasunez nahi dudana egitea? —erantzun zion hark—. Nire zatia erre eta baba erein nahi dut sail horretan.

Anaia aberatsak esan zuen orduan:

– Hori ez da bidezkoa. Goazen epailearenera. Erabaki dezala hark. Eta epailearengana joan ziren berriro.

Anaia aberatsa agur eginez makurtu zen, eta gertatuaren berri ematen hasi zen.

Dena entzunik, epaileak esan zien:

– Aurrekoan esan nizuen gauza berbera esango dizuet. Nork bereaz nahi duena egiteko eskubidea du. Zuk eskubidea duzu etxea desegiteko, zurea duzuna hartzeko. Zure anaiak ere eskubidea du berea erretzeko, hala nahi badu, eta zuk ez duzu zertan protesta eginik.

Halaxe bi anaiak nor bere aldetik joan ziren.

Aberatsak esan zuen:

– Epai honek batere zentzurik ez du.

Pobreak esan zuen:

– Epaileak agindua, huraxe beteko da.

Etxearen erdiari su eman zion, eta erdi harekin batera anaia aberatsaren erdia ere erre zen. Gero lurra maneatu eta baba erein zuen. Babak heldu zirenean, anaia aberatsaren semeak batzuk bildu eta jan zituen. Anaia pobreak ordea, harrapatu egin zuen horretan ari zela, aitarengana eraman eta esan zion:

– Zure seme horrek bost baba ostu dizkit. Zigortzea ez da aski. Nire bost babak behar ditut nik.

– Nire semeak jan dizkizunen ordainez beste horrenbeste emango dizkizut nik —esan zion aberatsak.

– Ez, ez; nireak nahi ditut nik —esaten zion pobreak.

– Bost baba aleren ordainez bost saski baba emango dizut —erregutzen zion anaia aberatsak pobreaken aurrean belaunikaturik.

– Nire babak behar ditut nik, ez zureak, ez bost ez hamar saski ere. Zure semeak jan dizkidanak nahi ditut.

Anaia aberatsak epailearengana jo zuen, justizia eske.

– Lehendabiziko aldiko epai berbera dut orain ere —erantzun zion hark—. Nork berearekin nahi duena egin dezake. Anaiak “Nire babak nahi ditut” esaten badizu, zergatik eman nahi dizkiozu beste batzuk eta ez bereak? Zoaz hemendik eta ez zaitetz etorri gehiago.

Anaia biek nor bere etxera itzuli ziren. Anaia pobreak poza zekarren bihotzean; anaia aberatsak larritasuna.

Anaia aberatsak herriko gizonik jakintsu eta zuhurrenak bildu zituen eta erreguz eskatu zien bere semearen alde bitarteko izan zitezten. Bere ondasun guztien erdia agindu zion anaiari, semea salbu uzten bazuen.

Gizon jakintsu eta zuhurrak anaia pobrearengana joan ziren. Hark ordea, esan zien:

– Nire anaia honek baba bakar bategatik ere hil araziko lidake nire semea balitz. Nik ez dut berea hiltzerik nahi. Proba egin baizik ea behin betiko ikasten duen nire anaia zeken horrek.

Haurra bizirik geratu zen, eta pobrea aberats.

Ipuin hau entzun duenak ikas beza:

Zerura harrika ari denak kopetan hartuko du harrikada.

Inorena nahi duenak, berea galdu.

Gaiztakerian dabilenak, lehendabizi inori gaitz, gero beretzat gaitzago.

# Gasirren arrabita

Afrika.

Behin batean bazen heroi bat, oso ezaguna. Bere etsai guztiak menderatuak zituen, haien herriak sakailatuak, eta bere ospea beti eta sekulako izango zela uste zuen.

Behin batez, gudutik itzulian zetorrela, belarretan kantuan ari zen eper bat topatu zuen. Horrela zioen eperraren kantuak:

“Ez da ezpata indartsurik,  
ez gizon ahaltzurik.  
beren izena ahaztuko ez duenik.  
Oi Gasir, gudari ausarta!  
zure egintza handiak  
ahaztuko dira.  
Heroismoak, indarra baitu lagun,  
negarra eta tristura dakar.  
Munduak ahaztuko zaitu,  
ahaztuko nau ni ere  
baina kantuak beti iraungo du.  
Herriak, hiriak,  
heroiak, koldarrak,  
dena galduko da,  
nire kantu hau salbu,  
betirako izango baita”.

Kantu hura entzunik, herriko jakintsuarengana joan eta entzundako guztia esan zion.

– Arrazoi du eperrak —esan zion jakintsuak—. Herriaren ospea belarra bezala da. Urtea bete baino lehen ihartzen da. Abestia berriz beti-betirako da.

Horrela bada, Gasir errementariarengana joan zen, oso trebea baitzen, errementari guztiak bezala, eta arrabita bat egiteko eskatu zion.

– Egingo dizut arrabita —esan zion errementariak— baina asmatuko al duzu jotzen?

– Nire kontua da hori, zu ez arduratu —erantzun zion Gasirrek ausarki.

Errementariak arrabita egin zion. Gasirrek lehendabizikoz jo zuenean ordea, hots bat zuzen ez zion atera.

– Zergatik ez du jotzen arrabita? —galdetu zion errementariari.

– Esan nizun ez zenuela asmatuko jotzen. Baina zure kontua da hori, ez nirea —erantzun zion barrez errementariak.

Gasirrek, lotsaz beterik, errementariari erregutu zion:

– Esadazu, arren, zer egin.

Errementariak, gogoeta eginik, erantzun zion:

– Arrabita zur puska bat besterik ez da, berez. Arrabita, bihotzik ez baitu, ez daki kantatzen. Zuk jarri behar diozu bihotza. Eraman ezazu, bada, aldea gudura zoazenean. Zur hori zure izerdiak eta malkoek harrapatzen dutenean, zure kezka haren kezka eta zure ohoreak haren ohore bilakatzen direnean, orduan ez da gehiagoren gehiago izango nik eraturako zur puska, zeure baitako zerbait baizik, zeure bizitzako bizia baizik. Eta orduan, orduan izango du zer esan eta jakingo du nola esan.

Gasir berehala abiatu zen berriro bere etsaien kontra gudu egitera. Bere zortzi semeak bildurik esan zien:

– Gudia dugu gaur. Gure egite handiak ez daitezela inoiz ahantz. Gure ezpataren loriak bizirik behar du betiko. Zuek eta ni, hilko gara ausaz, baina abesti batean iraungo dugu, eta hark bai, hark bizirik iraungo da betiko.

Eta hori esanik, hartu zuen arrabita aldean, et gudura abiatu zen bere zortzi semeekin. Zortzi egunez luzatu zen gudua, heroien guduek ohi duten bezala. Gasirren ezpata kolpeek arrabitaren hariak inarrosi zituzten eta bere bekokiko izerdiak arrabitaren zura harrapatu zuen.

Zortzi egunez iraun zuen gudua, heroien guduari zinez dagokion bezala, eta egun bakoitzean Gasirren semeetako batek bizia eman zuen guduan.

Zortzigarren egunean, garaipenaren egunean, Gasirrek bere zortzigarren semeari lur eman zionean, heroi handi hura harri baten gainean eseri, eta lehendabizikoz bere bizitza guztian, malko lodiz hasi zen negarrez, doluz eta deitorez. Alferrik ziren bere heroi izate guztiak; bakarrik zegoen betirako, ezer gabe, eta aurki ahaztua zuketean munduan ziren guztiek.

Horretan ahots bat entzun zuen Gasirrek, bere bihotzaren barren-barrenetik baletorkio bezala. Arrabita ari zen kantuan, heroiaren egite handiek ez baina haren malkoek bizia emanik.

Gasirren eta haren semeen bizitza, haien ausardia eta kemena kantatu zituen arrabita; eta kantu hura bizi da oraindik eta betiko biziko da.

# Gizon bat eta lau emazte

Hausa herriko ipuina. Afrika.

Antzinako garai batean baziren bi etxola, herritik kanpo zeudenak, herritik urruti; etxola horietako bakoitzean senar-emazte bana bizi ziren. Laurak pozez eta zorionez bizi ziren. Ilunabar batez, elkarrekin eserita zeudela, herrian entzunak zituzten azkeneko berriez ari ziren hizketan: basamortuko nomada talde bat iristekoa omen zen biharamunean gerra hotsean, herriari eraso egitera. Gizon bietako batek esan zuen orduan:

– Herriari eraso egiten badiote, buruzagia hilko diet.

Lagunak berriz oso bestelakoa zuen iritzia:

– Nik nahiago dut etxean geratu; ez naiz joango borrokara.

– Borrokara ez bazoaz, utz iezadazu lantza —erregutu zion lehenak.

– Besterik ez baduzu, eraman ezazu nirea, nahi baduzu.

Eta horrenbestez elkarri agur esan eta nor bere etxolara erretiratu ziren.

Gau hartan bertan eman zuten erasoa nomadek. Gizona herrira joan zen korrika, lantza eskutan zuela. Gizon haren ausartasunak pizturik, suharki borrokatu zuten herriko gudari guztiak, lehoiak balira bezalaxe. Denen artean esti eragin zieten erasotzaileei. Gudari gazte hark agindua bete zuen. Bizkar-bizkarrean sartu zion lantza etsaien buruzagiari. Hark ordea, heriotz zauria izan arren, galapan ihes egin zuen bere zaldian.

Garaileak herrira itzuli ziren; biba eta gora oihuz, danbor hotsez eta musikaz egin zieten ongi-etorria. Gudari gaztea ere herrira itzuli zenean, gainerako gudariak galdezka joan zitzaizkion buruzagiari era nola saritu behar zion halako gudariari borrokan erakutsitako ausardia.

– Zaudete lasai —erantzun zien— merezi duen saria emango diot eta.

Oihalik dotoreenak ekarrarazi, eta haiez inguratu zion gerria; eta kauri oskol pila bat eman zion, diruaren balioa baitzuten garai hartan. Eta azkenik ehun idi ekarri eta haiek ere oparitan eman zizkion.

Gudariaren adiskideak horren guztiaren berri jakin zuelarik, ondamuz beterik, bere lantza itzultzeko eskatu zion.

– Etsaien buruzagiak eraman du zure lantza bizkar-bizkarrean sartuta —erantzun zion gudariak.

Besteak, ordea, lantza derrigor itzuli behar ziola eskatu ziolarik, herriko buruzagiak emandako kaurien hamarrena eta idi guztiak eskaini zizkion gudariak ordainetan. Auzoak berriz, ez zuen kauririk ez idirik nahi izan. Lantza nahi zuen itzul ziezaion.

Gudariak, hortaz, lagunarenetik alde egin eta emazteari esan zion:

– Bihar bertan banoa lantzaren bila.

Emazteak biak joango zirela erantzun zion.

Biharamun goizean goizik gudaria jaiki, eta kontu handiz zaldia etxetik urrun samar atera zuen. Etxetik ez entzuteko moduan urrutiratu zenean igo zen zaldi gainera. Horretan, ordea, emaztea azaldu zen lasterka eta hoska:

– Egon, egon. Eraman nazazu ni ere! Zu hiltzen bazaituzte nik ere zurekin nahi dut hil —eta gudariak lagun eraman zuen.

Etsaien herritik hurbil samar bazen aintzira bat; neska gazte talde bat hantxe bainatzen ari zen, gudaria eta emaztea iritsi zirenean. Buruzagiaren alabak ziren. Haietan zaharrenak, aita maiteen zuenak hain zuzen, gudaria ikusirik, hots egin zion:

– Nora zoaz, mutil eder hori?

Mutilak nor zen galdetu zion.

– Buruzagiaren alaba naiz.

– Ez nauzu ezagutzen? —galdetu zion orduan mutilak—. Nik hil nuen zure aita, eta nire lantzaren bila nator.

Neskak, horrekin, begiak apaldu zituen, eta esan zion:

– Zatoz nirekin eta itzuliko dizut.

Gudariak bere emaztea zalditik jaitsi, eta herri sarreran itzaroteko agindu zion. Eta buruzagiaren alabarekin joan zen haren etxera. Zaindareiek arrotz hura nor zen jakin nahi zuten, baina neskak ezer esan gabe jarraitu zuen aurrera. Lantza pila bat erakutsi zion, baina bererik ez zen ageri haien artean. Beste pila bat jarri zion aurrean, bererik ez, ordea. Hirugarren pila ekarri zionean ezagutu zuen:

– Hauxe da nirea.

Buruzagiaren alabak esan zion:

– Maite zaitut, eraman nazazu zurekin —eta gudariak buruaz baietz erantzun zionez, jarraitu zuen—. Zaldira igo eta ihesi abiatzen garenean, nire aitaren hiltzailea zarela eta bahituta naramazula oihu egingo dut.

Gudariak baietz erantzun zuen berriro eta zaldira igo zen. Neska haren atzean eseri zen zangalatrau, eta galapan hasi zirenean, oihuka hasi zen:

– Lagundu, lagundu. Lehen nire aita hil zuen, eta orain ni bahitu nahi nau!

Ziztuaren gisan ihesari eman zioten. Herri sarreran zain zeukaten lehenengo emaztea ere jaso, eta lasterka jarraitu zuten.

Herriko jendea ez zen alferkeriari emana. Atzetik hasi zitzaien. Lehenengoan esti eragin zien gudariak, baina berehalaxe berriro harrapatu zuten. Bigarrenez ere esti eragin zien, baina hirugarrenez harrapatu zuen ibai bazterrean. Hirugarrenez ere esti eragin zien gudariak, eta beste aldera garraiatzaileari oihu egin zion:

– Eraman gaitzazu, bizkor, beste aldera. Laguniezaguzu.

Garraiatzaileak, ordea, erantzun zion:

– Eramango zaituztet, baina batek nirekin geratu behar du.

Bitarte horretan garraiatzailearen alaba etxolatik irtena zen. Ontzia askatu eta ibaiaz beste aldera igarotzen lagundu zien.

Han gudariari esan zion:

– Maite zaitut, eraman nazazu ni ere. Aita haserre da ontzia kendu diodalako. Zuregatik kendu diot.

Gudaria, ordea, buru-makur eta ilun zegoen, zauriz beteta eta nekeak ahituta. Hiru emakumeen artean zuhaitz baten gerizpera eraman zuten, eta itzalean etzan zuten. Berehalaxe loak hartu zuen, eta zaurien ondorioz hil egin zen hantxe. Emakumeak negarrari eman zioten, doluz eta saminez.

Horretan undina bat azaldu zen uretatik, eta negarrez zergatik ari ziren galdetu zien.

– Ez duzu ikusten senarra hil zaigula?

Undina hilarengana hurbildu, eta esan zien:

– Berrito piztuko banu ados egongo al zinateke senarra lauon artean partitzeko?

– Ados gaude —erantzun zioten hiru emazteek.

Undinak hilaren gainera hatsa bota zuen, bada, eta hark begiak zabaldu zituen. Piztua zen berrito. Lau emazteak oso poztu ziren, denak elkarrekin itzuli ziren haren etxera, eta aldi batez behintzat maitasunez eta pozez bizi izan ziren elkarrekin.

Gaur egun ordea, bakerik ez da, sesioa eta liskarra baizik, lau emazteak lehian hasiak baitira nor den gehiago, nor den lehenengo eta nor etxeko andre nagusi.

# Goso, historia kontalaria

Behin batean bazen gizon bat, izenez Goso, bakar-bakarrik bizi zena. Egia esateko, bakar-bakarrik ez zen bizi, zeren herriko haur guztiek ondora etorri ohi zitzaizkion esertzera, kokoteroaren azpian, eta haren historiak entzuten egon ohi ziren, hark bezain historia zoragarriak inork ez baitzituen kontatzen herrian.

Egun batez gazela bat etorri zen, eta zuhaitz gainera igo zuen. Handik koko ale bat jaurti zion. Koko alea buru-burura erori zitzaion Gosori, eta bertan hil zuen. Gazelak ikusi zuenean zer egin zuen, ahal zuen bezain bizkor ihes egin zuen inork ikus ez zezan. Herriko haurrak luzaroan egon ziren negarrez, hain maitea zuten Goso hil zitzaielako. Azkenean beren malkoak xukatu zituztenean, haren heriotzaren mendekua hartu behar zutela deliberatu zuten denek batera. Ez zekiten, ordea, nork hil zuen.

– Hego haizea da seguruenik, kokoaren adarrei putz eginez alea erorarazi eta gure Goso hil diguna —esan zuten beren artean hurrek, eta Hego Haizea harrapatzen ahalegindu ziren korrika. Hego Haizeak, ordea, esan zien:

– Zuek uste al duzue ni honen tribu-buruzagi indartsua naizela zuen Goso hil ahal izateko. Ni baino askoz ere indartsuagoa da beti bidea moztan ari zaidan etxea.

Orduan haurrak etxera joan ziren korrika, eta kolpeka hasi zitzaizkion ukabilez. Baina etxeak esan zien:

– Zuek uste al duzue hain tribu-buruzagi indartsua naizela ni zuen Goso hil ahal izateko? Ni baino askoz ere indartsuagoa da horman zuloa egin zidan sagua.

Orduan hurrek sagua harrapatu zuten eta hiltzeko prestamenak egin zituzten. Baina saguak oihu egin zien:

– Zuek uste al duzue hain tribu-buruzagi indartsua naizela ni zuen Goso hiltzeko? Ni baino askoz ere indartsuagoa da janaria jaten duen katua.

Haurrak orduan katuaren bila joan ziren korrika, eta joka hasi zitzaizkion. Katuak, ordea, miauka egin zien:

– Zuek uste al duzue hain tribu-buruzagi indartsua naizela ni zuen Goso hil ahal izateko? Ni baino askoz ere indartsuagoa da mugitzen ere ez uzteko moduan lotzen nauen soka.

Hurrek orduan soka hartu zuten. Baina hark esan zien:

– Zuek uste al duzu hain tribu-buruzagi indartsua naizela ni zuen Goso hil ahal izateko? Ni baino askoz ere ahaltuagoa da beti bitan ebakitzen ari zaidan aiztoa.

Hurrek, bada, aiztoa hartu zuten, baina hark bere burua zuritzeko esan zien:

– Zuek uste al duzu hain tribu-buruzagi indartsua naizela ni zuen Goso hil ahal izateko? Ni baino askoz ere indartsuagoa da kiskali eta burdin puska hutsa bihurtzen nauen sua.

Haurrak suarengana joan zitzaizkion, baina suak garretan erantzun zien:

– Zuek uste al duzu hain tribu-buruzagi indartsua naizela ni zuen Goso hil ahal izateko? Ni baino askoz ere ahaltuagoa da nahi duenean itzal nazakeen ura.

Urarengana joan zitzaizkion orduan haurrak.

– Zuek uste al duzu hain tribu-buruzagi indartsua naizela ni zuen Goso hil ahal izateko? Ni baino askoz ere ahaltuagoa da edaten nauen idia.

Hurrek idiari adarretatik heldu zioten, baina idiak marruka adierazi zien:

– Zuek uste al duzu hain tribu-buruzagi indartsua naizela ni zuen Goso hil ahal izateko? Ni baino askoz ere ahaltuagoak dira askoz ere, egun guztiak zitzaka ari zaizkidan ezpara-euliak.

Hurrek ezpara-eulia harrapatu zuten, baina hark burrundaran adierazi zien:

– Zuek uste al duzu hain tribu-buruzagi indartsua naizela ni zuen Goso hil ahal izateko? Askoz ere ahaltuagoa da ni baino mihazkada batez irentsi nazakeen gazela.

Hurrek gazela harrapatu zuten, eta gazelak ez zuen hitzik esan.

– Gazelak hil digu gure Goso! Gazelak hil digu gure Goso! —hasi ziren oihuka haurrak, eta jo eta jo eta jo egin zuten hilik erori zen arte. Horrela hil zen Goso eta horrelaxe hura hil zuen gazela ere. Baina Gosoren historiek bizirik diraute, eta oraindik ere kontatu eta kontatu egiten dira behin eta berriro.

# Igelarekin bidaiari

Karanga herriko ipuina. Afrika.

Gizon bat eta emakume bat elkarrekin ezkontuta zeuden. Aspalditik bizi ziren elkarrekin.

Behin emazteak esan zion gizonari:

– Gurasoak ikusi nahi nituzke. Aspaldi ez ditut ikusi, eta ikusi bat egin nahi nieke.

Senarraren iritzian berriz oraindik ez zegoen gurasoengana joan beharrik, joango ziren hurrengo batean, eta ez zion utzi emazteari gurasoengana joaten. Handik aldi batera berriro esan zion emazteak senarrari:

– Aspaldiz gero ez ditut ikusi gurasoak, eta pozik ikusiko nituzke.

Senarrak, ordea, hartan ere ez zion baimenik eman gurasoak ikustera joateko, gauza horietarako astia geroago ere izango zela-eta.

Emaztea ez zegoen pozik eta bere baitarako esan zuen:

– Itxura denez, inoiz ez dit utzi behar aita eta ama ikustera joaten. Erremedio bat besterik ez da orduan; baimenik gabe alde egin.

Ezkutu batean egunero-egunero janari pixka bat gordetzen hasi zen, eta halaxe egun batez, senarra etxean ez zela, bideari ekin zion.

Laster bai laster zihoan. Ibai handi baten ertzerantz iritsi zen. Uholde sasoia zen. Ibaia gainezka egina zen eta ingurua ere azpian hartua zuen. Berehalaxe ohartu zen emaztea bere kabuz inola ere ezin igaro izango zuela ibai hura, eta senarraren beldur baitzen, alde batera eta bestera hasi zen, urduri, nora ez zekiela. Oihu eta negar egiten zuen:

– Hau zoritxarra! Hau zoritxarra! Nola igaro orain beste aldera?

Uraren ertzean igel bat zegoen, eta emakumeari esan zion:

– Nahita nahiez oraintxe igaro behar al duzu beste aldera? Zaude ura jaitsi arte, eta aise igaroko zara orduan.

– Ezin dut itxoin —erantzun zion emakumeak—. Senarra atzetik dabilkit. Aspalditik bizi gara elkarrekin, baina ez dit utzi nahi gurasoak ikustera joaten. Horregatik alde egin diot, eta gurasoen etxera noa berriro.

– Nik laguntzen badizut, zer emango didazu zuk niri? —galdetu zion igelak.

– Zurekin ezkonduko naiz —erantzun zion emakumeak.

Igelak emakumea irentsi zuen, han zegoen aizkora herdoildu baten kirtenean ezkutatu zen, eta hantxe geratu zen.

Orduantxe iritsi zen gizona lasterka, eta bere emaztearen oinatzak uraren ertzean iraungitzen zirela ikusirik, amorrus bete zen, eta ustez beste aldean emaztea ikusten zuelakoan, aizkora ibaiaren beste alderaino ez ezik, gurasoen etxeraino jaurti zuen.

Han igela aizkora kirtenetik irten zen, emakumea igelaren ahotik irten zen, eta etxean sartu ziren biak.

Eta emakume hura pozez eta atseginez bizi izan zen bere igelarekin; hobe zen hori ezen ez etengabe senarrarekin liskarretan ari.

# Ilargia nola egin zen

Mandinga herriko ipuina. Mali. Afrika.

Antzina-antzinako garaietan, oraindik Ilargirik ez zenean, heriotzarik ere ez zen. Gizonak ez ziren hiltzen. Bazen katea bat zerutik zintzilik; eta gizonak bizitzek nekatzen zirenean, katea hartatik zeruraino igotzen ziren, hodeien gainetik, eta hantxe geratzen ziren nahi zuten denbora guztian atseden hartzen.

Garai hartan bazen errementari at, Fazobo Ba Si, bere lanean oso trebea zena. Gizon hura ez zegoen pozik bere bizitzaz. Nola egon bada pozik! Jende guztiak zituen seme-alabak, semeak eta alabak; hark berriz alabak besterik ez, bi alaba, eta semerik ez. Nork lagundurik ez zuen, eta horrexek zeukan arranguraturik; berak egin behar baitzuen egiteko guztia: berak sua piztu, berak hauspoari eragin, berak ura ekarri eta berak gainerako guztiak. Den-dena berak bakarrik.

Haserretzen zen, suak hartzen zuen, baina semerik ez zitzaion jaiotzen. Behin batean bere lagunei esan zien:

– Hau gehiegitxo eta guzti da. Banoa zerura.

Lagunek esan zioten:

– Zaude pixka bat, egon lasai; izango dituzu semeak ere eta konponduko dira gauzak.

Eta Fazobo Ba Si lurrean geratu zen. Behin, ordea, burdina puska bat gorritzen ari zela, berriro haserretu zen, hartu zuen burdina eta zerura igo zen.

Alabak, hura ikusirik, ondoren joan zitzaizkion. Gora iritsi zirenean, esan zuten:

– Hementxe gaude, aitarekin. Eta hemendik berriro lurrera jaitsi eta ihes egin ez diezagun, katea moztuko dugu.

Eta halaxe egin zuten, egin ere, esan bezala. Harrezkero gizonak hiltzen hasi ziren, zerurako katea betiko galdurik.

Eta errementariak zerura gori-gori eramandako burdina puska hura ilargi bihurtu zen. Ilargia zeruan hari fin bat balitz bezala ikusten denean, jendeak esaten du:

– Hasi da Fazobo burdina goritzen —eta ilargi betea denean:— Errementariak goritu du burdina. Ilargitik hurbil badira bi izartxo gau oskarbi-oskarbietan baizik ikusten ez direnak: Fazobo Ba Siren bi alabak dira.

# Ipuinak nola asmatu eta zabaldu ziren

Indiako ipuina.

Orain dela aspaldi-aspaldi, eta urruti-urruti, gizon onak eta txarrak amaitu eta oraindik harantzago, gauza eder hauek guztiak egia ziren denboratan bazen gizon bat, Gunadia izenekoa. Gunadia ez zen ordea zu eta ni bezalako gizaseme arrunta, garai batean bera ere jainko izandakoa baizik, Shiva ahaltsuaren gortean zoriona zer zen ezagututakoa.

Egunen batean, izan ere, harrokeriazko bekatu bat egin zuen, eta horregatik Hilezkorren mundutik kanpora egotzi eta zigor astuna eman zion Shiva ahaltsuak, gizonen munduan ibili beharko zuela hara eta hona joan-etorrian, harik eta antzinako garai batean Mahesvara dohatsuak Parvati emazteari tristurazko egun batean bihotza alaitzeko kontatu zion mentura osoa buruz ikasi eta munduko gizon eta emakume guztiei irakasten zien arte guztian.

Urteak eta urteak egin zituen nekez eta damuz, gu gizonon artean, historia zoragarri haren aztarren apurrenen bila. Eta, noizbait ere behar-eta, halako batean, aztarren haien albainua topatu zuenean bere nekeen amaia hurbil zuela sumatu zuen. Batetik besterako haietako batean oihaneko zaldun beltz batek kontatu baitzizkion, izan ere, antzinako egun hartan Mahesvarak bere adiskiderik minenaren belarriak gozatzeko asmatu zituen historia miresgarriak.

Zazpi urte behar izan zituen, hala ere, Gunadia olerkari handi hark historia hura osorik jasotzeko. Zazpiehun mila bertsotaraino bete zituen horretan, kantu eta kantu, denak kontatu ahal izan zituen arte. Eta, beldur baitzen mamu gaiztoaren batek ebatsiko ez ote zion, oihaneko jeinuaren babespean jarri zen eta bere zainetako odolez idatzi bertso guztiak. Orduan zeruetako eta lurreko jeinu, azti, hada, izpiritu eta sorgin guztiak bildu zitzaizkion ondora, historia haiek berriro entzuteko pozez.

Bere lanei buru eman zienean, honela pentsatu zuen berekiko Gunadiak: “Nire damuko desterru honi amaia emango badiot, mundu guztiari erakutsi behar diot orain historia hau. Historia idatzirik daukate neure zainetako odolez, eta zigorraren bigarren partea bete behar dut: Ez du gizonik, ez emakumerik, ez zaharrik, ez gazterik, ez aberatsik, ez pobrerik geratu behar mundu honetako ordeka-mendietan, ibai-mortuetan historia hau ezagutuko ez duenik. Nola iritsi, ordea? Nori utzi beharko ote diot horretarako?” Horretantxe zegoen, eta olerkaria maisu harturik zuten bi ikasleek, haren zalantzaren kontu harturik, non esaten dioten:

– Gizon bat, eta ez besterik, da munduan, zure lanaren fruitua jasotzeko gauza denik, eta Sata errege ahaltzua duzu hori. Harekek baitaki, munduan beste inork ez bezala, ederraren ederra estimatzen, eta harekek zabal dezake zure nekearen emaitza, eguratsak lorearen usaia zabaltzen duen bezala.

Bere ikasle jator haien iritzia onetsirik, utzi zien liburua Gunadiak, eta Printze ahaltso harengana bidali zituen biak. Berak Patristana hiriaren ateetaraino lagunduko zien, eta hantxe itxoingo, Parvati jainkosak eraikirik zion etxola batean. Horrela, bada, joan ziren bi gazteak Sata erregerengana, erakutsi zioten liburua, eta esan zioten:

– Hona hemen Gunadiaren bertsoak.

Hark, ordea, oharturik herriko jendearen hizkuntzan hitz egiten zutela bi gazteek, eta historia ere mintzaira hartantxe zegoela idatzita, eskolatua denaren harrokeria puztuak ihardetsi zien:

– Estimagarria da, bai, zazpiehun mila bertso idatzi dituenaren kemena, baina hizkera zabarra du oso, eta odolez idatzi ditu gainera... Ez, benetan ez dut atsegin liburu hori.

Ikasleek, orduan, hartu zuten liburua eta maisuari eraman zioten berriro, gertatutako guztiaren berri emanaz. Gunadiaren animuak hondoa jo zuen albistearekin, eta ez arrazoi gutxiarekin, nori ez baitzaizkio erortzen izan ere bihotzeko hegoak, egindako lana jakitun direnek gutxiesten diotenean?

Horregatik, hartu bi ikasleekin batera handik gertuko mendi baterako bidea, eta paraje bakarti zoragarri bat aurkitu zutenean, bertan egur pilo bat prestatu zuen eta su sakratuaz irazeki zuen; eta liburu miresgarri haren orriak, oihanetako piztiei, larreetako abereei eta zeruetako hegaztiei irakurri ahala, sutara botatzen zituen bere ikasle atsekabetuen begien aurrean, bertan kiskaltzeraino erre zitezten. Erregu eta erregu jardunez lortu zuten azkenik olerkietako bakartxo bat gorde zezan, ehun mila bertsoan Naravahararen menturak kantatzen zituena.

Gunadiak bere olerkiak irakurri eta sutara botatzen zituen bitartean, ordea, gertatu zen orein guztiek, bufaloek, basurdeek, tigreek, eta gainerako abereek beren larre edo ehizaleku estimatuenak utzi eta olerkariaren ondora bildu zirela, haren inguruan korro zabal bat osatuz. Eta hantxe geratu ziren, alde egin ezinik, begietatik malkoa zeriela, hark irakurtzen ziena entzunez.

Bien bitartean Sata erregea gaixotzen hasi zen; eta osagileari deiturik, iritzia eman zuen, bere ustez, ekartzen zioten haragia maskala zela eta hortixe zetorkiola erregeari gaitza; horrenbestez, errua sukaldariei egozten zietenenez, honela zuritzen zituzten haiek beren buruak:

– Aspaldi honetan ehiztariek ez dakarte haragi maskal indargabea besterik.

Ehiztariek ere, kontu eskatzen zitzaenez, burua zuritu nahirik, honela zioten:

– Hemendik urruti ez dela bada mendi bat, eta hantxe brahman bat, egunak eta egunak bertsoak irakurri eta sutara botatzen ematen dituen. Horrexek du gure printzea erasan duen gaitzaren errua; abere guztiak, beren larreetatik alde gin, eta inguruan bildu zaizkio, eta bertatik mugitu ere egin gabe egoten zaizkio entzuten; horregatik dute horren maskala haragia, goseak makaldu dituelako.

Ehiztariak esanaren berri jakin zuenean, mendirako bidea erakusteko agindu zien erregek, eta hara abiatu zen, Gunadia ezagutzeko asmoz.

Esanik zioten tokian aurkitu zuen olerkaria, kalpar tximatsuak burutik behera nahasian, kapusaia balu bezala, alboan zuen suaren kearen kolorekoa, eta bere korro ohi ez bezalako hark inguraturik. Ohorezko erreberentzia bat egin ondoren, galdezka hasi zitzaion ea zer zen hango biltzar hura. Brahmanak bere zortearen historia kontatu zion: lur honetara nola iritsi zen, jainkoen historiak nola ikasi zituen eta zein zigor behar zuen bete.

Erregea erreberentziaz makurtu zitzaion, ezagutu baitzuen Gunadia jainkozkoa zela eta Shivaren ezpain armoniaz beteetatik jasotako kontaera zerutiarrak arren emateko eskatu zizkion.

Eta honela erantzun zion olerkariak Satari:

– Sei historia, seiehun mila bertsoan, suak irentsi ditu, printze jauna. Bat bakarra geratzen zait, emango dizut huraxe. Nire bi ikasleok ere zuretzat uzten dizkizut, nahi baduzu, horiek argituko dizute ulertzen ez duzun guztia.

Horrela hitz eginik, erregea agurtu, eta bere izpiritu ahaltsuaren eragin batez haragizko estalkia utzi, eta zor guztiak kitaturik, jainkoak bizi diren tokietara igo zen Gunadia berriro

# Lehoia, hiena eta katagorria

Keniako ipuina. Afrika.

Dagoeneko aspaldi bada ere, lehoiak eta hienak elkarren adiskide ziren itxurak egin ohi zituzten. Hainbeste maite zuten elkar, non ezin baitzuten egun bat bera ere igaro elkar ikusi gabe. Lehoia zezen baten jabea zen, eta bere adiskide hienak behi bat zeukan txahala izateko zain. Bi adiskideek animalia horiek elkarrekin larratzen uztea erabaki zuten. Pentsatzekoa den bezala, txandaka larratu ohi zituzten: egun batean hienak eta hurrengoan lehoiak.

Hiena oso pozik zegoen, handik gutxira behiarengandik txahaltxo eder bat jaiotzen behar zitzaioke. Lehoia, berriz, ez zegoen oso gustura bere zezenarekin. Egundatean, larrean aritu ondoren, hienak lehoiari esan zion berehalaxe izan behar zuela txahala, behiak erditzeko gutxi falta zuela-eta. Lehoiak erantzun zion:

– Aizu, laguna, zu ez zara ni bezain indartsua, eta hemendik aurrera neu joango naiz egunero gure ganadua larratzera.

– Zergatik hori? —galdetu zion maleziarik batere gabe hienak.

– Begira —ihardetsi zion lehoiak—, begira: txahala jaiotzen baldin bada, zuk ez duzu indarrik aski izango etxeraino ekartzeko.

Hiena ez zegoen guztiz konbentziturik horrekin, baina, eztabaida luzea izan ondoren, amore eman zuen. Eta lehoia joaten zen handik aurrera egunero zezena eta behia larrera ateratzera, harik eta egundatean behiak txahal koskor eder batez erditu zen arte. Lehoia, ez baitzen oso prestua ere, ez zen larrera joan bere adiskide hienari lagun egiteko, iruzur egiteko baizik, beretzat nahi baitzuen txahala. Eta hienari iruzur egin asmoz, bere zezenari odol pixka batez zikindu zion isats ondo, hartu zuen txahala bizkarrean, eta etxera joan zen.

Behia lehoiaren ondo-ondotik zihoakion, alde egin nahi ez zuela, hark bere txahala zeramalako, baina etxera iritsi zen bezain laster, lehoiak, pozez gainezka, hienari esan zion:

– Begira zeinen txahal ederra erditu didan gaur nire zezenak!

Hiena gaixoak erantzun nahi izan zion esanez:

– Baina begira ezazu nola txahala nire behiaren ondora hurbiltzen den: seinale hura duela ama. Eztabaida luzeak izan zituzten, eta gauzak okerrera bihurtu ez zitezten, hienak iradoki zuen:

– Begira, nire adiskide lehoia, zergatik ez diogu deitzen epaile egin dezan katagorriari?

Lehoiak gustu handiz onartu zuen, ziur baitzegoen inor ez zitzaiola ausartuko kontra egitera. Arratsalde bat izendatu zuten elkartzeko, eta katagorriari deitu zioten; hura, ordea, ez zen azaldu, luzaro zain egon bazitzaizkion ere.

Hurrengo egunean lehoia eta hiena bakoitza bere etxean zeuden katagorria iritsi zenean. Diosalak egin ondoren lehoiak galdetu zuen:

– Katagorri anderea, zergatik ez zinen etorri atzo gure arazo honetan epaia ematera?

Orduan katagorriak erantzun zion:

– Barkatuko didazu, lehoi jauna, baina nire putzuko urak su hartu zidan eta ezin izan nuen etorri. Lehoiak harriturik begiratzen zion katagorriari, eta esan zion:

– Tira, tira, nori sinistarazi behar diozu zure putzuko urak su hartu zizunik?

Katagorriak, maleziazko barre txiki bat eginez, erantzun zion:

– Eta nori sinistarazi behar diozu zuk zezena txahalaz erdi daitekeenik?

Lehoiak, bere asmoak galdurik ikusi zituenean, amorruren amorruz katagorriari jauzi egin zion; hura ordea bere habiako zulo sakon batetik barrura sartu zen. Bi sarrera zituen hark, bata handia eta txikia bestea. Katagorria handitik sartu eta txikitik atera zen. Lehoia, ordea, handik sartu baitzen, habia erdian geratu zen ez aurrera ez atzerako ez zela, zuloa oso estua zelako.

Eta hantxe hil zen. Horrela, katagorriari esker, hiena animalia guztien jaun eta jabe geratu zen.

# Mutiko harrigarria

Errusiako ipuina.

Bazen behin merkatari bat, ospe handikoa, bere emaztearekin bizi zena eta aberastasun handiak zituena. Senar-emazte haiek, ordea, ez ziren zorionekoak, ez baitzuten haurrik, eta horregatik egunero egiten zioten erregu Jainkoari, ea seme bat ematen zien, zorionez beteko zituena, zahartzaroan zainduko zituena, beren ondasunak herentzian hartu, eta hiltzen zirenean beren arimen alde otoitz egingo zuena.

Jainkoaren mesedeak irabaztearren, pobreei eta elbarriei laguntza ematen zieten, limosna, janaria eta aterpea. Horrez gainera herri ondoan zegoen zingiradi zabal baten gainetik zubi bat egitea deliberatu zuten, jende guztia hartaz baliatu eta itzuli handi bat egitera behartu ez zedin. Zubia egiteak diru asko eraman zien, baina hala eta guztiz ere merkatari hark burutu egin zuen bere asmoa, bere hurkoei mesede egiteko asmoak eraginik.

Zubia bukatu zelarik, honela esan zion behin Fedor bere zerbitzariari:

– Zatoz nirekin; eser zaitetz zubipean eta entzun ondo zer esaten duen jendeak niregatik.

Joan zen bada Fedor, eseri zen zubipean eta adi jarri zen. Hiru agure zahar ari ziren zubi gainetik pasatzen, eta gisa honetako hizketa zerabilten:

– Nola eskertu ahal izango ote diogu zubi hau eragin duenari? Seme bat emango diogu, eta hark esaten duen guztia beteko da, eta Jainkoari eskatzen duen guztia emango zaio.

Zerbitzaria, hitz horiek entzunik, etxera itzuli zen berriro.

– Zer dio jendeak, Fedor? —galdetu zion merkatariak.

– Era askotako iritziak agertu ditu: batzuen ustez mesede handia egin duzu zubia eraikiz; beste batzuentzat, berriz, harrokeriagatik egin duzu hori dena.

Urte hartan merkatariaren emazteak seme bat izan zuen; bataiatu zuten, eta sehaskan bere izena jarri zioten.

Zerbitzariak, inoren zorionaren bekaitzez eta bere nagusiaren onaren damuz, hartu zuen gau erdian, etxeko guztiak lozorrorik lozorroenean zeudenean, usakume bat hil zuen, zikindu zuen haren odolez haurraren sehaska eta amaren besoak eta aurpegia, lapurtu zuen haurra, eta herri hartatik urrutiko emakume bati eman zion haz zezan.

Goizean, beraz, esnatu ziren gurasoak eta haurra falta zutela konturatu ziren. Orduan zerbitzari maltzurak ama salatu zuen haurraren galtzaile:

– Amak jan egin du! —esaten zuen—. Begira iezaiozue, eskuak eta ezpainak odolez ditu oraindik ere.

Merkatariak, haserrearen haserrez eta minaren minez, kartzelara bidali zuen ama, haren esanei, aitzakia ustetan, jaramonik egin gabe.

Urte batzuk joan ziren horrela, eta bitartean haurra hazi egin zen, eta korrika egiten hasi, baita hizketan ere. Fedorrek merkatariari alde egin zion, bera jarri zen merkatari itsas ondoko herri batean, eta haurra bere etxera eraman zuen.

Haurraren dohain miragarriak baliatuz, era guztietako gurariak bete arazten zizkion, esanez:

– Esazu hau, edo hori, edo bestea nahi duzula.

Eta haurrak ez al zuen esan ere egiten nahi zukeen hura, bat-batean betetzen zitzaion. Eta horrela behin esan zion:

– Begira, mutiko, esazu erresuma berri bat nahi duzula hementxe, hemendik erregeren palaziorainoxe egin dadila zubi bat, kristalik finenezkoa guztia, eta erregeren alaba ezkon dadila nirekin.

Haurrak Fedorrek agindu bezala eskatu zuen, eta itsasoaren ertz batetik besteraino zubi zoragarri bat azaldu zen segituan, kristalik finenezkoa guzti-guztia, eta herri bat ere azaldu zen, marmolezko jauregi apainez, eliza garai dotorez eta erregearentzako eta bere familiarentzako etxe eta gazteluz betea.

Hurrengo goizean, erregea esnatu eta leihotik kanpora begiratu eta kristalezko zubia ikusi zuenean, galdetu zuen:

– Nork egin du horren gauza zoragarria?

Jakin zuten bada erregeren gortesauek, eta Fedor izan zela esan zioten.

– Fedor horren abildade handiko gizona baldin bada, neure alaba emango diot emazte.

Berehalaxe egin ziren ezkontzarako prestamenak, eta berehalaxe ezkondu ere Fedor eta erregeren alaba ederra. Fedor erregeren palazioan bizitzen jarri zelarik, ordea, haurra jotzen-eta hasi zen; bere morroi egin zuen, momenturo ari zitzaion demandan edo joka, eta batzutan jan gabe ere uzten zuen.

Gau batean Fedor bere emaztearekin hizketan ari zen; hura ohean zegoen ordurako; haurra, berriz, zoko ilun batean negarrez ari zen penaren penaz. Erregeren alabak bere dohain miragarria zer zuen galdetu zion Fedorri, esateko nola egiten zituen gauza miragarri haiek guztiak.

– Lehenago zerbitzari soila bazinen, nola lortu duzu horrenbeste aberastasun. Nola egin ahal izan zenuen gau bakar batean kristalezko zubi galant hori?

– Nire aberastasun guztiak eta nire ahalmen magiazko hau —erantzun zion Fedorrek—, ikusi duzu bada, nirekin nola dabilen beti mutiko bat, bada, behin bere aitari, nire behinolako nagusiari, lapurtu nion haur hori, eta horrexerregandik lortzen ditut gauza hauek.

– Esadazu nola? —eskatu zion erregeren alabak.

– Ba ni merkatari aberats baten etxean nengoen zerbitzari: Jainkoak seme bat agindu zion hari, esaten zuen guztia betetzeko dohainarekin, Jainkoari eskatzen zion guztia beteko zitzaiona. Horregatik, haurra jaio zen bezain laster, nik lapurtu egin nuen, eta inork nire susmorik har ez zezan, ama salatu nuen, esanez jan egin zuela semea.

Haurrak, hitz horiek entzunik, bere ezkutalekutik irten, eta esan zion Fedorri:

– Gaizto hori! Nire eskabideagatik, eta Jainkoaren borondatez, bihur zaitez zakur!

Eta hitz horiek ez al zituen esan, Fedor zakur bihurtu zen. Haurrak burdinazko kate bat lotu zion lepotik, eta bere aitaren etxera joan zen zakurra atzetik zuela.

Hara iritsirik, esan zion merkatariari:

– Emango al dizkidazu sutatik txingar batzuk?

– Zertarako behar dituzu txingarrak?

– Zakurrari jaten emateko.

– Zer diozu, mutiko? —harritu zitzaion merkataria—. Non ikusi duzu zuk zakurra sutako txingarrak jaten?

– Eta non erakutsi dizute zuri amak semea jan lezakeenik? Jakin ezazu zure semea nauzula, eta zakur hau Fedor zure behinolako zerbitzaria, ni etxetik lapurtu eta gure ama gezurrez salatu zuen morroi gaiztoa.

Merkatariak historia osoa jakin nahi izan zuen, eta amak ezeren errurik ez zuela jakin zuelarik, kartzelako ziegatik askatzeko agindu zuen. Eta gero haurrak eginik uraren ertzean sortua zen erreinu berrian bizitzera eraman zituen denak.

Erregeren alaba aitaren etxera joan zen berriro bizitzera, eta Fedorrek zakur jarraitu zuen hil arteko guztian.

# Munduan izan ziren lehenengo gizonak

Malawiko ipuina. Afrika.

Lurraren izpiritua bere herrian bizi zen. Bakar-bakarrik egoten zen han, eta asper-asper egiten zen.

– Hau da asperra —esan ohi zuen erostaka.

Gehien aspertzen zuena ordea, tabakoa erretzeko lagunik ez izatea izan ohi zen. Alde guztietan zegoen tabakoa, baina bera bakarrik egoten zen, beste inor ez zeukan elkarrekin erretzeko. Eta eguerdian bazkaria prestatuko zionik inor ez zegoen. Horrela bakar-bakarrik egotea ez zuen batere atsegin, eta bere baitarako pentsatu zuen: “Gizonak sortu beharko nituzke, nire bazkaria prestatu, eta nirekin tabakoa erre dezaten”.

Basora joan eta nkula intxaurrak ematen dituen zuhaitza bilatu zuen. Astindu zuen, eta intxaurrak lurrera erori ziren. Haiek bildu eta etxera itzuli zen berriro. Zenbait egunez berdin egin zuen, harik eta intxaur pila handia bildu zuen arte. Begiratu zituen eta bere baitarako pentsatu zuen:

– Honekin aski dudala uste dut.

Intxaur haiek denak otar handi batean hartu, eta txalupa zeukan aintzira handiaren ertzeran eraman zituen. Txalupa eder galanta zen hura. intxaur guztiak barruan bota, eta burua uretatik atera zuen krokodilo bati deitu zion:

– Hator hona!

Krokodiloa igerian lurraren ertzeraino etorri zen, eta lurraren izpirituak txalupari lotu zion.

– Egin igerian orain —agindu zion krokodiloari, lurraren izpirituak bere kabuz ez zuen inoiz arraunean egiten eta.

Krokodiloa mantso-mantso ontziari tiraka hasi zen.

– Hoa ertzetik aintzira barreneraino —agindu zion lurraren izpirituak krokodiloari, eta hura aintziraren erdirantz abiatu zen segituan.

Luzaro aritu zen krokodiloa arraunean, harik eta hankak odoletan jarri zitzaizkion arte. Eta hala ere igerian jarraitu behar izan zuen, luzaro-luzaro, zuzen-zuzen. Aintzira handia baitzen hura, hain handia non ez baitzen ertza ikusten, hain handia non hondoraino iristen baitzen, eguzkia ezkutatzen den lekuraino. Eta krokodiloak txalupari tiraka jarraitzen zuen denbora guztian, geroz eta urrutirago.

Oso urruti iritsi zirenean, lurraren izpirituak krokodiloari agindu zion:

– Geldi hadi!

Krokodiloa pozik gelditu zen. Lurraren izpirituak intxaur bat hartu, zeukan handiena, gainean putz egin, eta esan zuen:

– Hi izango haiz lehenengo gizona!

Eta intxaurra uretara jaurti zuen. Uraren azalean geratu zen, hondora joan gabe, eta poliki-poliki aintziraren ertzerantz hasi zen joaten ur azalean.

Ondoren lurraren izpirituak beste intxaur bat hartu, gainera listua bota, eta uretara jaurti zuen hura ere:

– Hona lehenengo emakumea!

Intxaurra ez zen hondora joan, eta ertzerantz abiatu zen hura ere. Gainerako intxaurrekin ere gauza bera egin zuen lurraren izpirituak. Ondoren krokodiloari agindu zion:

– Itzul hadi lehorrera!

Krokodiloak, haren esana betez, igerian ekin zion bere hankez, eta txalupa eder hura lehorrerantz garraiatu zuen. Hara iritsirik lurraren izpiritua lehorrera jaitsi zen; jende oste handia zeukan zain. Haien buruzagia aurkeztu zitzaion:

– Hemen nauzu.

Gainerantzekoek ere oihu egin zuten:

– Hona hemen gu ere!

Emakumezko guztiak gizonetzkoen atzean zeuden.

Lurraren izpirituak jende hura dena bere herrira eraman zuen, eta enparantza zabalera iritsirik esan zien:

– Hona bizitzeko dituzuen etxeak.

Eta horrela lurraren izpiritua herriko buruzagi bihurtu zen. Bertako jendearekin batera esertzen zen, emakumeek sukaldeko lanak egiten zizkioten, sukaldari onak baitziren, eta lurraren izpiritua ez zen gehiago aspertu handik aurrera, eta otorduen ondoren tabakoa errez historiak kontaktzen zituzten.

# Ngurangan, krokodiloaren semea

Fang herriko ipuina. Afrika.

Aspaldi-aspaldiko garaietan Fang herria ibai handi baten ertzean bizi zen. Ibaiaren bazter batetik bestera ikusi ere ez zen egiten, hain zen zabala ibai hura.

Ibai horretan bazen krokodilo erraldoi bat. Krokodiloen buruzagia zen, Onbur zuen izena. Fang herriko jendea bizi zen etxea baino handiagoa zuen burua, begiak gurdiaren gurpilak baino handiagoak, eta haren haginek banana bat bailitzan xehatzen zuten gizona, baita bi gizon izanda ere. Larrua gogor-gogorra zuen; lantzaz jotzen bazen, burdina jota bezala erortzen zen. Halakoxea zen piztiatza hura.

Garai horretan Fang herriaren buruzagia zenak, Ngan Esa zuen izena. Egun batez Ngan Esa herritik atera eta ibai bazterrera joan zen. Horretan krokodilo erraldoi hura uretatik atera, eta Ngan Esarengana joanik esan zion:

– Entzun, Ngan Esa, entzun!

– Adi naukazu —erantzun zion Fang herriaren buruzagiak.

– Jakin dut gizonaren haragia gozoagoa dela arrainarena baino. Hemendik aurrera, egunero-egunero, hutsik gabe, gizon bat ekarri behar didazu leku honetara, nik jan dezadan. Horrez gainera astero-astero emakume bat ekarri behar didazu, eta hilero-hilero neska bat. Agindu hau betetzen ez baduzu, herrira sartuko naiz eta denak jango zaituztet.

Ngan Esak, herrira itzulirik, krokodiloak aginduaren berri eman zien bere herritarrei. Tristura eta samin handi bat zabaldu zen herritar guztien artean.

– Ez zaitetzte beldurtu —esan zien Ngan Esak tristura arintzeko—. Baditugu oraindik gerrako gatibu batzuk; haiek emango dizkiogu krokodiloari jan ditzan.

– Eta gatibu guztiak jaten dituenen zer? —galdetu zioten herritarrek.

– Nik al dakit? Ez dakit zer egin beharko dugun orduan —erantzun zuen buruzagiak herritarrei.

Halaxe hasi ziren Fang herriko herritarrak egunero-egunero gatibu gizona bat ibai ertzera eramaten, astero emakumezko bat eta ilean behin neska gazte bat, gatibu zeukatena hura ere. Eta Onbur krokodiloak, etxea adinako bere buruarekin, gurdi gurpilak baino handiagoko begiekin, bananak balira bezalaxe xehatzen zituen bere haginek artean gatibu gaixoak.

Baina handik pixka baterako Fang herria gatiburik gabe geratu zen. Eta Ngan Esa buruzagiak esan zien:

– Alde egin beharra dugu hemendik. Goazen urrutira, mendietara. Hara joanez gero Onbur krokodiloak ez gaitu harrapatuko, eta bakean biziko gara.

Urte sasoi lehorraren azken aldea zen, hain zuzen; bideetan ibiltzeko sasoi hobereana, bideak lehor baitaude, eta ibaiek ere orduan baitaramate ur gutxien. Fang herriko herritarrek, beraz, beren ondasun guztiak gurdietan pilatu, abereak aurrean hartu, eta bideari heldu zioten. Triste eta isilik zihoazen. Hurrek baizik ez zuten negar egiten.

– Ez ezazue negar egin —esaten zieten emakumeek—. Hemendik alde egingo ez bagenu krokodilo gaiztoak denok jango gintuzke banan-banan.

Onbur krokodiloa alfer-alferrik egon zen egun hartan eguneroko opariaren zain. Egun bat, bi hiru egun egon zen zain. Gero haserretu egin zen:

– Banoa herrira, denak jango ditut —eta herrirantz abiatu zen.

Herria, ordea, hutsik zegoen. Ezta gizon bat bera ere, gosea asetzeko, ezer ez.

– Zer gertatu da baina? Non dira Fang hauek? —galdetzen zion bere buruari krokodiloak. Ezin jakinez, basoko izpirituei deitu zien.

Irten basotik  
Basoko izpirituak!  
Entzun nik esana,  
Krokodiloen buruzagia ari da hitz egiten!  
Erantzun nire galderari,  
erantzun zalantza gabe,  
tximista bidaliko dizuet,  
haizetea bidaliko dizuet,  
erantzuten ez badidazue,  
esaten ez badidazue non diren  
hemen ziren baina orain ez direnak.  
Non dira, nora dira joanak?  
Horra basoko izpirituak,  
horra deabru eta intxixu guztiak,  
horra nire galdera.

Basoko izpirituak Fang herriaren aldeko ziren, ordea. Ez ziren basotik irten; Onbur krokodiloaren galderari ez zioten erantzun. Orduan uretako izpirituei galdetu zien krokodiloen buruzagiak:

Irten uretatik,  
uretako izpirituak.  
Onbur ari zaizue deika.  
Entzun nire esana,  
erantzun laster,  
erantzun zalantza gabe!  
Ekaitza ekarriko dizuet,  
euria ekarriko dizuet bestela.  
Erantzun iezadazue,  
esadazue non diren  
hemen ziren baina orain ez direnak.  
Non dira, nora dira joanak?  
Horra, uretako izpirituak,  
horra deabru eta intxixu guztiak,  
horra nire galdera.

Uretako izpirituak krokodiloarekin loturik zeudenez, krokodiloa uretan bizi baitzen izan ere, Fang herria ihesi joana zela esan zioten, urrutira joana, mendi aldera joanak zirela guztiak. Onbur atzetik joan zitzairen, ea harrapatzen zituen.

Fang herria bidean zen oraindik. Ilunabarrean gauerako kanpamendua antolatzen zutenean, basoko izpirituei hots eginez, abesten ziren Fang herriaren buruzagiak:

Basoko izpirituak, oihanetako izpiritu onak,  
entzun arren gure otoitza:  
Fang herriaren buruzagi apal honek erregutzen dizue.  
Entzun arren, haren erregua:  
Ez iezaguzue bidali  
zerua arrakalatzen duen tximista!  
Ez iezaguzue bidali  
dena errotik ateratzen duen haizea!  
Basoko izpiritu onak, ez zakizkigute aiher;  
baizik erakuts iezaguzue  
hemen gelditu behar dugun  
ala aurrera behar dugun jarraitu  
Onbur gaiztoak denok ez gaitzan jan  
eta fang herria betiko galdu.

Eta basoko izpirituak Fang herriaren aldeko zirenez, aurrerago jarraitzeko agintzen zieten, beti aurrerago. Eta halaxe Fang herriaren bidazti egin zen. Haurrak gizondu eta emakumetu ziren, gizonak aguretu eta emakumeak atsotu, eta Fang herria bidean ari zen oraindik.

Horretan, ordea, alfertzen, nagitzen eta ernegatzen hasi ziren:

– Basoko izpiritu horiek ez dira gure lagun —esaten zuten—, zergatik basoko izpirituei deitu ordez ez diezu deitzen uretako izpirituei? —galdetu zioten Ngan Esa buruzagiari—. Uretako izpirituek dakite, inork jakitekotan, non dagoen Onbur ezkutaturik.

Eta halaxe Ngan Esa uretako izpirituei hasi zitzaien otoitz egiten, oihanetakoei otoitz egin ordez:

Uretako izpirituak, ibaietako izpiritu onak,  
entzun arren gure otoitza:  
Ez iezaguzue bidali  
lurra estaltzen duen ekaitza,  
bideak itotzen dituen uholdea.  
Uretako izpiritu onak, ez zakizkigute aiher,  
baizik erakuts iezaguzue  
hemen geratu behar dugun  
ala aurrerago behar dugun jarraitu  
Onbur gaiztoak denok ez gaitzan jan  
eta fang herria betiko galdu.

Uretako izpirituak ez ziren ordea, Fang herriaren aldeko; Onbur krokodiloaren adiskide ziren; horra zergatik agindu zioten Ngan Esari zegoen lekuan gera zedin.

Fang herria pozik zegoen uretako izpirituek zeuden lekuan bertan geratzeko agindu zitelako. Etxeak egiten hasi ziren, bakean eta atsedenean, azkenik bizitzeko leku bat bazutelako zorionez.

Ez zien luzaro iraun ordea, poz hark. Han zeuden hirugarren egunaren goizean Onbur krokodilo gaiztoa agertu zen berriro herrian, eta agindu zion Ngan Esa buruzagiari:

– Ai ergela, ergela, Ngan Esa, eta ergelak Fang herritarrak. Entzun ondo zer esan behar dizudan.

– Adi naukazu —erantzun zion izu-ikaraz Ngan Esa buruzagiak.

– Gure tratua ez betetzeko ihes egin duzunez, hemendik aurrera bi gizon ekarriko dizkidazu egunero, bat ekarri ordez, eta bi emakume astero eta bi neska hilabetero. Eta gaur bertan zure alaba bakarria eman behar didazu.

Ngan Esari bihotza eteteraino samindu zitzaion, bere alaba, Alena-kiri, ederretan ederrena zelako eta guztiz maitea zuelako. Baina ez zekien nola ihes egin Onbur krokodilo erraldoiaren aginduari. Alabaina, Onbur krokodiloak Alena-kiriren edertasuna ikusi zuenean erabat maitemindu zen hartaz. Bizkar gainean hartu zuen, eta bere ibaira itzuli zuen, Fang herria bakean utzirik.

Handik aldi batera Alena-kirik seme bat izan zuen Onbur krokodiloarengandik. Amak Nguranguren jarri zion izena.

Mutil arin bizkorra zen, eta urtetik urtera gabe, egunetik egunera antzematen zitzaion hazten ari zela. Bere adineko beste mutilak oinez ibiltzeko ozta-ozta gai zirenean, hura gizondua zen dagoeneko, eta besteak hitz egiten hasi orduko hura gizon larri bilakatua.

Ez zion askorik axola krokodilo semea izateak; berak aitona, amona eta Fang herriko ahaide guztiak ezagutu nahi zituen. Ez zion askorik axola Onburren semea izateak; bere aitak bere tribuari egindako kalte guztien mendekua hartu nahi zuen. Nguranguranez inoiz ikusi gabe zituen bere Fang herriko kideak, eta hala ere maite zituen. Amak, Alena-kirik, sartua zion maitasun hori. Egun batez, bada, Nguranguranez amari esan zion:

– Goazen, ama, ihes egin dezagun, eta joan gaitezen zure aitaren eta amaren etxera, Fang herrira.

Alena-kirik tristurazko irribarre bat egin zion semeari.

– Ezinezkoa da hori, seme. Edozein lekutara ihes eginda ere, Onbur gaiztoak aurkitu egingo gintuzke. Eta okerrago izango litzateke bai guretzat eta, Fang guztientzat. Herrira itzuli baino lehen aita hil beharra dago nahitaez.

– Nola hilko dut baina nik aita, nire aldean askoz indartsuagoa eta azala burdina baino gogorragoa du eta?

– Egiezu otoitz basoko izpirituei; behar bada laguntzera etorriko zaizkizu —aholkatu zion amak Ngurangurari. Eta halaxe, Nguranguranez oihanetako izpirituei otoitz egin zien, esanez:

Basoko izpirituak, oihanetako izpiritu onak,  
entzun arren nire otoitza:  
Fang herriaren seme apal honek erregutzen dizue.  
Entzun arren erregua:  
Ez iezaguzue bidali  
dena errotik ateratzen duen haizea.  
Basoko izpiritu onak, ez zakizkigute aiher;  
baizik erakuts iezaiozue Nguranguran gaixo honi  
nola hil Onbur, nire aita gaiztoa,  
hain indartsua, hain azal gogorrekua,  
Fang gaixoak jan dituen.  
Oihanetako izpirituak, horra nire erregua.

Oihanetako izpirituek gorroto zioten Onbur krokodilo gizajaleari eta oso maite zuten Fang herria. Horregatik Nguranguran oihanera eraman zuten, palmondo berezi bat zegoen lekura. Palmondo haiek bota eta haien zukua ontzi handi batean biltzeko esan zioten. Nguranguranez izpirituek agindu zioten guztia zuzen eta zintzo bete zuen; upel bete zuku bildu zuen, eta zuku hura egosi

zuenean, edari gozo bat bilakatu zen, gizonaren bihotza pozten duena, Fang herrian djabe deitzen dena.

Onbur krokodiloak, beti gose eta egarri baitzen, djabea edan zuen, eta poza sentitu zuen bere baitan. Abesten hasi zen:

Djabea edaten dut, nire bihotzaren pozgarri.  
Djabea edaten dut, zorionaren iturri!  
Djabea edaten dut, djabea dut edari,  
ni, krokodiloen buruzagi,  
izakiek oro didate beldur niri;  
oihaneko izpirituek, uretako izpirituek  
niretzat ezer ez da ez ongi ez gehiegi  
neu bainaiz ur guztietako buruzagi.  
Djabea edaten dut, nire bihotzaren pozgarri.  
Djabea edaten dut, zorionaren iturri!  
Djabea edaten dut, djabea dut edari.

Horrelaxe abesten zuen Onbur krokodiloak, horrelaxe abesten eta edaten. Eta edan ondoren lo sakon, zurrun, luze batek hartu zuen.

Aukera hartaz baliatu zen Nguranguran. Burdin lodi bat harturik, sutan gorritzeraino berotu zuen, eta indar guztiak batera bildurik eztarri-etzarrarian sartu zion krokodiloari; ahoa zabal-zabalik ari baitzen zurrunga eta zurrunga.

Onbur krokodiloak orro ikaragarri bat bota zuen; jauzika eta burua astinduz burdinazko ziria eztarritik kanpora ateratzen ahalegindu zen. Alferrik ahalegindu, ordea. Burdina sakoneraino sartuta zeukan eztarrian; eta halaxe hil zen inoiz izan den krokodilo buruzagi ahaltsuen eta beldurgarriena.

Nguranguran pozik zegoen krokodiloa hilik zurrun eta hotz ikusi zuenean. Aluma-kiri, haren amak ere lasaitasunez eta alaitasunez negar eta guzti egin zuen. Eta astirik beste ezertan galdu gabe, Fang herria bizi zen urrutiko mendirantz abiatu ziren.

Bide luzean ibili behar izan zuten, eta indar guztiak ahiturik iritsi ziren azkenean Fang herrira. Ngan Esak ezin zuen sinistu ere egin betirako galdua uste zuen bere alaba Alena-kiri begien aurrean ikusi zuenean, eta nekezago sinetsi zuen haren ondoan zetorren gizona bere biloba Nguranguran zela esan ziotenean. Nguranguranek Onbur krokodiloa nola hil zuen kontatu zionean ordea, irribarre triste bat marraztu zitzaion aurpegian Ngan Esa buruzagiari.

– Nire biloba hau mutil ederra da, eta indartsua gainera; gezurtia ere bai, zoritxarrez.

Alfer-alferrik zin egiten zuen Alena-kirik Nguranguranek esan guztia egia zela, alfer-alferrik erakusten zuen hark krokodiloari kendu eta orain berak gerrian aizto gisa zerabilen krokodilo hortza. Inork ez zuen sinesten munstro gaiztoa hil zuenik. Nguranguranek palmondoak zeuden lekura eraman eta djabea, gizonen bihotzak arindu eta indartzen dituen edari hori, prestatzen erakutsi zionean, orduan hasi ziren Fang herriko kideak Nguranguranek kontatuak sinesten.

Fang herriko kideek pozik eta atseginez edan zuten djabea, eta ez zekiten zer gehiago eskertu Ngurangurani: Onbur krokodiloaren esklabo izatetik askatu izana ala edari gozo barren-bero hura ezagutarazi izana. Zeren lehenik djabe palmondoak zeuden lekura aldatu baitzituzten bere etxeak eta herria, eta Akanguran, “krokodiloetatik libratua”, izenez deitu zuten herri hura. Handik urteetara, Ngan Esa arras zahartu zelarik, Nguranguran hautatu zuten buruzagi.

Gaur egun bertan ere, bere arbaso nagusien artean ohoratzen du Fang tribuak Nguranguran buruzagia.

# Bizitza munduan zehar nola ibili zen

Afrika.

Behin batez Bizitza bere etxetik atera eta munduan zehar txango bat egitera joan zen. Ibili eta ibili, erabat gizendu eta puztu eta ia ibiltzeko ere gauza ez zen gizon batekin topo egin zuen.

– Nor zara? —galdetu zion gizonak.

– Bizitza —erantzun zion.

– Bizitza baldin bazara, niri berriro osasuna ematen jakingo duzu beharbada...

– Itzuliko dizut osasuna —esan zion bizitzak, baina badakit aurki ahazturik izango gaituzula bai ni bai gaixotasuna.

– Ez horratik ahaztu —esan zuen gizonak.

– Zeuk nahi bezala. Zazpi urte barru hemen izango naiz berriro —esan zion Bizitzak; bidetik eskutada bat hauts bildurik gizonari buruan bota zion, eta sendatu zuen.

Ibilian-ibilian legenardun bat topatu zuen aurrerago.

– Nor zara? —galdetu zion gizonak.

– Bizitza.

– Bizitza? Itzuliko didazu hortaz osasuna.

– Itzuliko nizuke —esan zion Bizitzak— baina badakit osasuna itzuliko banizu berehalaxe ahaztuko nindukezula, bai ni bai zure gaixotasuna.

– Ez dut uste! Ez zaituztet, ez, ahaztuko —erantzun zion legenardunak.

– Zazpi urte barru hemen izango naiz berriro eta orduan ikusiko dugu —esan zion bizitzak. Bidetik hauts pixka bat bildu eta gaixoaren buru gainean zabaldurik, legenarra garbitu zion.

Bidean aurrera jarraitu eta itsu bat topatu zuen.

– Nor zara zu? —galdetu zion itsuak.

– Bizitza.

– Bizitza? —esan zion itsuak—. Itzuliezadazu bada, arren, ikusmena.

– Itzuliko dizut ikusmena, baina badakit luzera gabe guztiz ahaztuko gaituzula ni eta zure itsutasuna —esan zion Bizitzak.

– Ez behintzat. Ez zaitut inoiz ahaztuko, eta hil arterainoko guztian beti eskerrak emango dizkizut.

– Ondo da hori. Zazpi urte barru berriz itzuliko naiz, eta orduan ikusiko dugu zer.

Eta hori esanik bidetik eskutada bat hauts hartu eta itsuari buruan zabaldurik ikusmena itzuli zion.

Zazpi urte joan ziren, eta munduan zehar beste ibili bat egitera abiatu zen Bizitza. Itsu baten itxura harturik zazpi urte lehenago ikusmena itzuli zion gizonarengana hurbildu zen.

– Gauerako aterpea emango al didazu? —erregutu zion.

– Ez! —erantzun zion gizonak—. Segi zure bidetik. Zu bezalako gaixoak ezertarako ez ditugu behar.

– Esana nizon —erantzun zion Bizitzak—. Orain dela zazpi urte, itsua zinen eta ikusmena itzuli nizon. Hori inoiz ez omen zenuen ahaztuko, esan zenuen orduan.

Eta bidetik eskutada bat hauts bildurik, esker txarreko gizon haren oinatzetan barreiatu zuen. Era horretan itsu izana itsu bihurtu zen berriro.

Ibilian-ibilian, zazpi urte lehenago sendatua zuen legenardunarengana hurbildu zen Bizitza. Legenardun baten itxura harturik, gauerako aterpea eskatu zion.

– Segi zeure bidetik, bestela legenarra harrapatuko dut-eta —erantzun zion hark.

– Esan nizon —erantzun zion Bizitzak—. Orain dela zazpi urte neuk sendatu zintudan, eta inoiz ez zenuela ahaztuko esan zenuen.

Lurretik hautsa hartu eta legenardun izanaren oinatzetan barreiatu zuen, eta lehen legenardun izanari legenarra azaldu zitzaion berriro, haragia zatika erortzeraino.

Ibilian-ibilian Bizitzak ia ibiltzeko gauza ez izateraino gizendu eta puztu zuen bere gorputza. Hala puzturik, zazpi urte lehenago sendatua zuen lehenengo gizonarengana joan zen.

– Gauerako aterpea emango al didazu? —eskatu zion.

– Bai, noski, nola ez bada —erantzun zion gizon hark—. Sar zaitetz, eseri zaitetz eta neuk emango dizut jaten. Badakit zer neke den zuretzat horrela ibili beharra, neu ere horrela ibilia naiz-eta. Orain dela zazpi urte, ordea, Bizitza azaldu zen, eta sendatu ninduen. Zazpi urte geroago berriro etorriko zela esan zidan. Itxoiozu hementxe, aurki etortzekoa da-eta. Hark beharbada sendatuko zaitu zeu ere.

– Ni naiz Bizitza —erantzun zion—. Orain dela zazpi urte sendatu nituenetatik zu zera hura ahaztu ez duen bakarra. Horrexegatik bizi zaren artean ez zara berriro gaixotuko.

Eta bukatu zuen esanez:

– Bizitza etengabeko aldakuntza da. Zoriona zoritxar bihurtzen da berehala, aberastasuna txirotasun, maitasuna gorroto. Tamalgarria hori ahaztu eta kontuan hartzen ez duena!

# Oiloa eta mirua

Tantzaniako ipuina. Afrika.

Behin batean bazen miru bat. Ume bakarra zuen. Rajini zuen izena. Ume hori oso gaixotu zen behin. Berehalaxe jakin zen alde guztietan Rajini, miruaren umea, hiltzeko zorian zegoela.

Rajiniren aitak sendagile asko etorrarazi zituen, umea senda ziezaioten, baina inork ere ezin izan zion sendatu. Gurasoak etsi-etsita zeuden, zer egin ez zekitela.

Biharamunean gizon bat iritsi zen eta esan zien:

– Badakit nik sendagile bat Rajini senda dezakeena, oso sendagai ona du-eta. Sendagile horrek zure semea baino askoz ere gaixoago eta larriago zeudenak ere sendatu izan ditu. Baina hari deitu aurretik sari bat eman behar didazu.

Miruak esan zion:

– Emango dizut saria, baina gure umea sendatzen ez bada, zer?

– Sendagilea etorri, zure umeari sendagaia eman, eta sendatzen ez badu, eman didazun guzti-guztia itzuliko dizut. Hitz ematen dizut.

Mirua postu zen, horiek entzunda, eta esan zion:

– Ongi da, hortaz. Saria emango dizut. Zenbat behar duzu?

– Ehun erreal, jauna.

Miruak ehun erreal eman zizkion.

– Mugi laster, gure umea hiltzear dago-eta —esan zion miruak.

Gizon hura armiarmaren etxera joan zen laster-laster. Atean jo, eta, armiarmak erantzunik, barrura sartu zen.

– Badakit, jauna, oso sendagile jakintsua zarela. Miruaren umea hiltzeko zorian dago. Senda ezazu, arren. Zoaz, eta sendatzen baduzu, sari bikaina izango duzu.

– Joango naiz, baina bizkarrean eraman behar nauzu, bestela oiloak ikusten banau jan egingo nau-eta.

– Zer dela-eta jan nahi zaitu oiloak ezer egin ez badiozu? —galdetu zion harriturik gizonak.

– Ez al dakizu, bada, atzo jakinarazi zutena? Atzo jakinarazi zutenez oiloak mozorrorik ikusten badu, bertan jango duela esan omen du. Eta zer naiz ni oiloarentzat, mozorroa ezpada?

Gizonak ez zion sinetzi: armiarma miruarenera oinez joateko nagituta zegoela iruditu zitzaion, eta Rajini ikustera bakarrik joan behar zuela esan zion.

Armiarma berehalaxe ohartu zen joan beste erremediorik ez zuela. Hartu zuen, bada, sendagai poltsa eta bideari lotu zitzaion.

Miruarenera ia iritsirik zela oiloarekin topo egin zuen. Bide bazterrean ezkutatu zen, ihi artean. Oiloak ordea, armiarmaren oinatzak ikusi zituen, eta haiei jarraituz, armiarma aurkitu zuen. Mokoka hil zuen, eta txitei deitu zien jateko.

Txita bakoitzak armiarma zatitxo bana jan zuen. Armiarmaren sendagai poltsa ikusirik, hura ere xehatu eta barreiatu zuten sendagai ontzi guztiak birrindurik.

Mirua luzaro egon zen gizona azaldu zain. Orduak, egunak joan ziren, eta umea geroz eta gaixoago eta larriago zegoen. Gizonak iruzur egin ote zion susmoa hartzen hasia zen. Makila lodi-lodi gogor bat harturik, gizonaren etxerantz abiatu zen, gauzak argitzeko asmoz.

Bide erditsua eginik zuela, sendagai ontzi puskatuak eta poltsaren oihal zatiak aurkitu zituen. Inguru guztia ongi miatu, eta papertxo bat ere aurkitu zuen. Irakurri zuen:

“Gizon bat etorri zait esanez Rajini, miruaren umea ikustera joateko, gaixo dagoela-eta. Laster joateko, gainera, hilzorian dagoela-eta. Banoa” —jartzen zuen paperean.

Paper hark ez zuen argitzen, ordea, armiarmari zer gertatu ote zitzaion bidean. Baina luze gabe antzeman zion han gertatuari, oiloaren eta txiten oinatzak ikusita.

Etsita itzuli zen etxera. Handik bi egunera miruaren umea hil zen. Umea ehortzirik, haren mendekua hartu behar zuela zin egin zuen miruak.

Halaxe jakinarazi zion gizonari eta animalia guztiei, oiloa edo oilanda edo oilaskoa ikusten bazuten, zilegi zutela hil eta jatea. Harrezkero mirua eta oiloa elkarren etsai dira.

# Oparotasunaren adarrak

Antzina-antzinako garaietan bazen behin kraal handi bat, etxola asko zituena. Emakumeak beren lanera joaten ziren, eta haurrak pozik egoten ziren plazan jolasean. Bazen hala ere mutiltxo argal bat pozetan bizi ez zena. Mutiltxo haren ama urtebete lehenago hila zen, eta bera triste eta gosez bizi zen. Kraaleko emakumeek ez zuten nahi umezurtz hari jaten eman beharrak zekarkeen lanik. Etxolarik etxola ibili eta guztietatik egotzia zen; eta negar egiten zuenean, ez zuten astirik izaten haurrari eskaintzeko. Mutiltxo gaixoa argalago eta ahulago bihurtu zen egunetik egunera.

Ahaleginak egin arren inork ez zion abegi onik egiten. Egun batez egur bilketan aritu zen, ustez kraaleko emakumeren batek eskertu eta jaten emango ziolakoan; emakumea, ordea, kexu zen egur puskek txikitxoak zirelako; eta mutiltxoa jo eta kanpora bidali zuen.

– Jende bihozgabe horren ondotik alde egin eta ez naiz gehiago itzuliko —pentsatu zuen bere baitarako mutilak.

Ilundu zuenean ukuilura joan eta aitaren idietako bat hartu zuen. Gainera igo eta landetan zehar eraman zuen animaliatzar hura. Handik puska batera idia eta haurra, biak, gelditu eta atsedean hartzeko etzan ziren. Horretan zeudela hauts lodi bat zetorrela ohartu ziren.

– Behi talde bat da, zezen indartsu bat gidari duela —esan zuen idiak—. Nirekin borrokan egin nahi du, baina zaude lasai. Nik menderatuko dut.

Mutiltxo argala beldurrez zegoen zezen indartsua hurbildu ahala. Ostikoz jotzen zuen lurra, eta bafada bortitzak botatzen zituen muturretatik. Burua eta adar zorrotzak astindu eta desafio egin zion mutilaren idiari.

Borroka bortitza hasi zen. Bi izaki erraldoi haiek adarka, talkaka, bultzaka eraso zioten elkarri. Azkenean mutilaren idiak irabazi zuen, eta etsaiak bere taldearekin alde egin zuen ihesi.

Hurrengo egun osoan mutila eta idia amaigabeko zabaldian ibili ziren aurrera eta aurrera. Ilunabarrean beste zezen erraldoi batek desafio egin zien berriro, lurrean ostikoka eta bafadaka. – Jaitsi bizkarretik —esan zion mutilari idiak—. Zezen honekin ere borroka egin beharra dut, baina orain nekatuta nago eta menderatu egingo nau. Baina ez izan beldurrik. Hiltzen nauenean keniezazkidazu adarrak, eta eraman itzazu aldean. Goseak edo beharrean zaudenean, jo adar horiek, eta nahi duzun guztia izango duzu.

Mutila izu-izu eginik zegoen bere laguna hil eta bakarrik geratuko zela pensatu hutsarekin, baina aukerarik ez zuen. Haren bizkarretik behera jaitsi eta bigarren borrokaldian zer gertatu zain geratu zen. Gudu bortitza izan zen; azkenean mutilaren lagunak azkeneko hatsa bota eta lurrera erori zen hilik.

Mutiltxoa negarrez zegoen; idiak esana gogoratu, haren adarrak hartu, eta aldean eraman zituen bere bidaian. Edozer gertatuta ere, erabaki sendoa zuen bere kraalera ez gehiago itzultzeko.

Ilunabarrean etxola batera iritsi zen; mutilak ostatu eskatu zuen. Jabeak ongietorria egin zion.

– Pozik emango dizut aterpe —esan zion gizonak alaitasunez— baina janaririk ezin dizut eskaini. Gosetea dugu lurralde honetan eta belarra besterik ez dut neuk ere jateko.

Irribarre bat eginez mutilak bere idiaren adarretako bat jo, eta jateko eta edateko eskatu zuen. Bat-batean behar adina eta gehiago janari azaldu zen mutilarentzat eta gizonarentzat. Mila eta mila esker eman zizkion mutilari, eta biak lurrean etzan ziren lotarako. Gizona, ordea, berehalaxe ohartu zen zenbat balio zuten adar haiek, eta beretzat bakarrik nahi zituela deliberatu zuen. Gau hartan etxolako bazter batean gorde zituen bi adarrak, eta haien orde z hildako beste zezen baten adarrak jarri zizkion mutilari.

Goizean mutilak, gizonari emandako aterpea eskerturik, bidean aurrera jarraitu zuen. Ordutan eta ordutan ibili zen, gosetu zen arte; adarretako bat jo eta janaria eskatu zion. Janaririk ez zen atera, ordea. Berehalaxe ohartu zen nola engainatu zuten. Gaur eman zuen etxolaren bila itzuli zen atzera. Atez kanpotik adi-adi jarri, eta gizonaren hitzak entzun zituen, adarrak joz eta janaria eskatuz; adar haiek mutilak esana baizik ez zuten betetzen ordea. Lapurrari ez zioten ezer ematen, eta unetik unera hasarretzenago zen hura.

Mutila etxolan sartu zen, eta gizonaren bihotza izuz bete zen, mutilaren magiazko ahalmenen beldurrez. Urrutira alde egin zuen etxolatik eta ez zuen presarik hara itzultzeko mutila han zen bitartean. Horrela bada, mutilak adarrak jo eta janaria eskatu zion. Janari gozoa jarri zioten aurrean. Hura janik lasai eta pozik geratu zen lotan etxola eroso hartan gau osoan. Egunarekin batera bideari ekin zion berriro, idiaren adarrak aldean zituela.

Goiz osoan ibili zen eguzki galdatan. Eguerdian harkaitz baten itzalen babestu zen, eta adarrak emandako janaria jan zuen. Arratsalde osoan ibili ondoren, gauerako beste etxola batera iritsi zen.

– Emango al didazu gaur gauerako aterpea —eskatu zion mutilak etxolan zegoen gizonari.

Gizonak umezurtz gaixo nekatuari begiratu zion.

– Zoaz hemendik —esan zion—, ez dut zu bezalako malapartaturik behar nire etxolan.

Neke handiz mutilak aurrera jarraitu zuen, ibai baten ertzera iritsi zen arte. Ur hotzetan garbitu zen eta berriro jo zituen adarrak.

– Ekariezazkidazu jantzi eta oinetako eder batzuek, besoak eta hankak jantzeko —esan zuen.

Bat-batean gauza horiek guztiak azaldu zitzaizkion aurrean. Jantzi zituen, eta buruzagi baten semea bailitzan distira egiten zuen. Kraal batera hurbildu zen. Buruzagia bera irten zitzaion agur egitera.

– Ongi etorria, ahaltu hori —esan zion irribarrez, aurrean makurtu eta festara sar zedin erregutuz.

Mutila urte luzez bizi izan zen kraal hartan. Zer behar zuen, guzti-guztia ekartzen zioten oparotasunaren adarrek. Mutila horren aberatsa zenez, begiramendu handia zioten bere lagun berriek. Buruzagiaren alaba eman zioten emazte izateko, eta bizitza guztian zorionean eta oparotasunean bizi izan zen.

# Printzesa harroa

Afrika.

Antzinako garaietan bazen errege handi bat. Haren konkistek odaiertz batetik besteraino harrapatzen zuten. Haren gudariak indartsuak ziren, eta haien pausoen hotsak berak beldurra sartzen zuen erregeren etsaien bihotzetaraino. Egun batez, gudariak beste garaipen bat lortzetik zetozela, erregek alaba bat izan berria zuen.

– Nire etsaiak belarra segaren aurrean bezalaxe erori diren egunean jaio delako, hauxe izango dut alaba guztien artean maiteena —esan zuen erregeak—. Hazi eta emakume izatera iristen denean, inoiz ikusi ez diren bezalako jaiak ospatuko ditugu. Iparretik eta Hegotik, Sortaldetik eta Sartaldetik ekarriko da ganadua. Haien oinek aterako duen hautsak hodeia irudituko du, eta eguzkia estaltzeraino zabalduko da. Ganadu hori hil eta inoiz inongo printzesarentzat egin den jairik oparoena ospatuko da.

Gudua irabazi duten erregeak sarri mintzatu ohi dira horrela; horixe espero zuen, espero ere, jendeak. Denek zekiten gudarien garaipenaren ohorea jasotzeko esaten zituela horiek, baina denek zekiten, baita ere, agindu horiek ez direla gero betetzekoak.

Denek zekiten hori guztia, printzesatxoak salbu. Oso neskato polita zen, eta bere ama harroak aitak, erregeak, esandako hitz handiak esan zizkion. Amak bazekien erregek esan nahi, bere alaba maiteenari jai handi bat egingo ziola nahi zuela esan; neskatoak ordea sinistu egin zituen eguzkia ezkutatuko zuen hauts hodeia sortuko zuen ganadu taldearena eta gainerako guztiak. Printzesak guztiz uste handia hartu zuen bere buruaz eta harrotu egin zen erabat. Hala eta guztiz ere, errege ahaltsoaren alaba maiteena baitzen, inork ez zizkion zuzentzen uste horiek.

Handik urte batzuetara printzesa bere adinera iritsi zen. Herri hartan ohitura zen bezala, herritik alde egin eta \*beilatokira joan zen.

– Esaiozue aitari prest nagoela eta ekartzeko agindutako ganadua —esan zien berekin joanak ziren neskei.

Neskak laster-laster joan ziren aitarengana, eta printzesa zain geratu zen, bere nagusitzaro egunerako agindutako ganadua noiz iritsiko.

Errege ahaltso hark hogeit hamar idi bidaltzeko agindu zuen. Hogeit hamar idi oso opari handia zen neska batentzat.

Printzesa harro hark, ordea, guztiz sinistuta baitzegoen Iparretik eta Hegotik, Sortaldetik eta Sartaldetik iristeko ziren abere haien guztien gauzak, ez zuen sinistu nahi begien aurrean ikusten zuena.

– Ganadua? Ganadua? Zer ganadu? —galdegiten zuen bere inguruan hogeit hamar idi haiek baino harago begiratuaz, haiek ezer ez balira bezala. Hemen ezer ez dago!

Itzainak erregerengana itzuli eta alabak esana kontatu zioten.

– Ongi dago errege ahaltu baten alaba bere balioaren jakitun izatea —esan zuen erregeak, ezpainak estutuz. Eta bere alabari beste berrogei idi eramateko agindu zien itzainei.

Hartan ere ez zion aski iritzi printzesa harroak.

– Hori ez da ezer —esan zien irriz.

Bigarren hartan erregea arras haserretu zen, baina ez zuen lotsaturik zegoela azaldu nahi, eta ehun idi eramateko alabari, agindu zuen. Hura ere ez zuen aski printzesak. Bere bizitza guztian uste izana zuen nagusitarora iristean zeruaren muga batetik bestera trumoi ez beteko zuten ganadutzak ekarriko zizkiotela, eta orain ezin zuen sinistu ere ganadu taldetxo haiek eman behar zizkietenik.

– Esaiozue aitari —agindu zien itzainei— eguzki handi gorri-gorria distiraz dagoela zeruan, eta ganaduen oinek jasotako hautsak hura ezkututzen ez duen arte, ez naizela itzuliko etxera.

Erregea amorrak hartuta zegoen alabaren hitzak entzunda, baina ez zuen lotsagarri geratu nahi alabari haren ustez zor zitzaiona ezin emanez. Bere gudariak bildu eta bere erresumako herri guztietara bidali zituen. Kraal guztiei zerga bana jarri zien, iditan ordaintzeko. Milaka idi bidali zizkieten printzesa harro hari.

Printzesak zerurantz begiratu zuen.

– Nire begiek oraindik ikusten dute eguzki gorri distiratsua —esan zuen.

Erregeak gudaroste handiagoa bildu zuen oraindik. Inguruko erresumei erasotzera bidali zuen. Erresuma haiek, beldurrak harturik, opari handiak igorri zizkieten, ganadutan, errege handi hark beren etxaldeak birrindu ez zitzaizkion. Printzesak ez zuen aski harekin ere. Azkenean gudariak ordura arte inoiz inor ibili gabeko haran bat topatu zuen. Beren lurretan baino gizenago eta ederrago zegoen larrea, eta hoberena, ganadu bizkar-berdin gizen-gizenez bete zegoen.

– Ganadu hau guztia gure erregeri eramango diogu —esana zuten irribarrez gudariak—. Horrenbeste ganadurekin behintzat printzesa harro horrek aski izango du.

Haranaren beste alderaino joan eta oihuz eta hotsez ganadua \*beitatokira gidatzen hasi ziren. Horretan ari zirela, ordea, ahots bat entzun zuten mendi aldetik, esanez:

– Zer dela-eta uste duzu nire ganadua eramateko eskubidea duzuela?

Zuhaiztxoen artean munstro handi iletsu bat ikusi zuten, Abereen Jauna, betabereen izpiritu ahaltua, haran hartako abereak bere abere talde bikaina ziren.

Gudari zuluak ez ziren horrenbestez beldurtu, eta mendiko izpirituari begira jarri zituzten beren lantzak.

– Lantza hauek ematen digute guri nahi duguna egiteko eskubidea —erantzun zioten—. Zer duzu horri erantzuteko?

Abereen Jaunak ez zuen erantzun. Joaten utzi eta isilik geratu zen.

Gudariak belazeetatik zehar eraman zuten abere taldea. Haien oinek jasotzen zuten hautsak hodei bat eratu zuen, eguzkia estaltzeraino. Printzesa harroak azkenean irribarre egin eta oparia askietsi zuen. Erregea pozik geratu zen, zer lotsaturik izango ez zuelako.

Abereak hil zituzten eta festa handi bat prestatu zuten. Gauza bakarra falta zen: gudariak ez zioten ezer esan erregeri Abereen Jaunarekin izandako topaketaz, eta ez zeuden lasai. Ez zioten ezer kontatu nahi atsegina kenduko zionik eta ospakizunak hondatuko zituenik.

Oturuntza handi haren ondoren printzesa harroa bere amaren eta ahizparen etxolara erretiratu zen. Egun batzuetan ezer txarrik ez zen gertatu. Ahizpa biak eguerdiko eguzkitatik babesteko etxolan zeuden batean, ordea, trumoi ikaragarri batek astindu zituen belazeak. Munstro iletsua, Abereen Jauna zegoen kraaleko atean. Itxitura puskatu zuen, eta halako zaratak zerk egiten zituen jakiteko aterata neskak bere oinetara etorri zirelarik, bi hosto sartu ziren hegan haien etxolan.

– Zoaz eta ekar ezazu ur pixka bat iturritik —esan zioten neska gazteenari, baina printzesa harroari ez zioten ezer esan.

Ahizpa gazteena iturrira joan eta ontzi bat urez bete zuen; baina itzuli eta abiatzera zihoanean, ezin zuen oinik mugitu, oinak magia lurrean errozurik balitu bezala.

Printzesa harroa bakar bakarrik zegoen.

– Zoaz ondoko etxolara eta bete ezazu ontzi bat urez —esan zioten hostoek.

Printzesak barrez erantzun zien:

– Zoazte eta bete zeuek, nahi baduzue.

Hostoek berriro eman zioten agindua, eta zerbaitek bultzatu zuen printzesa bigarren hartan esana betetzera.

Printzesa ura ekarriz itzuli zenean, sua piztu, bihia eho eta ogia egiteko agindu zioten. Printzesa haserre bizi-bizian zegoen, etxeko lan horiek bere bizitza guztian inoiz egin gabea zenez.

– Nire eskuek ez dute lanerako ohiturarik —egin zuen protesta—. Begira, azkazalak luzeak ditut. Ezin dut bihirik eho.

Hostoek azkazal luze haiek moztu zizkioten eta lanera behartu zuten. Ogia prestatu zuenean, hura hartu eta kui bete esnerekin atera eramateko agindu zioten, hantxe baitzegoen zain munstro ikaragarria. Printzesa beldurtuegi zegoen obeditu besterik egiteko. Printzesa herrian zehar zihoala, hostoak atzetik joan zitzaizkion, inguruko etxoletatik ahal zuten janari guztia lapurtuz. Kraaleko atean munstroari eman zioten zeramaten guztia, ea ahamen batean irentsi zuen hark.

Printzesari begiratu eta esan zion:

– Jantzi zaitetz daukazun jantzirik ederrenaz. Hartu oherako jantziak ere. Jantzi zure idunekoak eta beso-idunekoak ere, eta ez ahaztu zure kutunak ere.

Kondenaturik balego bezala bete zituen denak printzesak. Jantzi ondoren munstroaren aurrera itzuli zen berriro.

– Igo nire gainera —agindu zion.

Eta biraturik, alde egin zuen.

Denbora horretan guztian ahizpa gazteena iturri ondoan egona zen, mugitu ezinik; bere baitan ordea bazekien zer ari zen gertatzen. Munstroa bistatik galdu zenean ahizpa haren oinak lurretik askatu ziren. Laster-laster ama lanean zegoen tokira joan zen, soroetara. Ama bere etxola hutsera itzuli zen, eta herria sakailatuta zegoela ikusirik, laborariei esan zien, eta haiek gudariei. Gudari talde bat elkartu zen, eta beren armak harturik munstroaren arrastoari jarraitu zioten, harrapatu zuten arte.

– Itzuliezaguzu printzesa —agindu zioten gudariek.

Abereen Jaunak barre egin zien.

– Ea nola gelditzen nauzuen? —erantzun zien—. Eta besterik ezin baduzue, itzulzaitetz zeuen etxera.

Hantxe geratu zen, gudariak beren lantzak jaurti zain. Lantza haiek ez zioten bere azal lodia zulatzen. Eta barreari utzi gabe, munstroa biratu, eta bere ezkutuko haranerantz urrutiratu zen, bidean harrapatzen zituen zuhaixka guztiak errotik atereaz. Gudari ausartenek atzetik jarraitu zioten, baina berehala ohartu ziren alferrik ari zirela denbora galtzen eta, nekeak leherturik, joandako bidetik itzuli ziren. Printzesa harroa bakar-bakarrik geratu zen, Abereen Jaunaren bizkarretik jaitsi ezinik.

Eta halaxe joan ziren larre oparoko haran ezkukuraino; mendi malkarren gainean bazen leize huts, ezer gabe bat. Leizean bazen buruko bat, ogia eta ura.

– Hementxe bizi behar duzu urtebete eta egun batez —esan zion munstroak printzesari—. Jana nork prestatu ez duzu izango, nork lekua garbitu ere ez. Harro ez izaten ikasiko duzu. Zure aitak irain egin dit nire abereak lapurtuz; zuk, ordainez, apal izaten ikasi beharko duzu.

Urtebete eta egun batez bizimodu gogorra eta latza izan zuen printzesak. Debora hori igarota bere etxera itzultzen utzi zion munstroak. Hura poza herriko bizimoduaren erosotasunak berriro ezagutu zituenean. Handik aurrera ematen zioten guztiagatik eskerrak itzultzen zituen, eta gehiago ez zuen eskatu eguzkia ezkutatzeko adina abererik.

# Salbatzailea salbatu

Urteko sasoirik lehorrenean, animaliak eta gizonak geratzen diren ur putzu apurren inguruan ur bila biltzen direnean gertatu zen. Sasoi horretan, beraz, eta ur putzu berean, egun berean, sagua, tximua, sugea eta gizon bat jausi ziren, ura ateratzeko ezer aurkitu ez zutelarik barrura salto egin zutelako.

Ilunabarrean beste gizon bat inguratu zen ur putzu hartara, eta animaliak asko estimatzen zituenez, haga luze bat bota zien, eta irteten lagundu. Piztiak aholkua eman zioten salbatzaileari beste gizona ez zezala handik atera, gizonak horrelakoetan oso esker txarrekoak izan ohi direla-eta.

Hark, ordea, ez zien sinistu, eta gizona putzutik kanpora atera zuen.

Mesede hura itzuliko ziotela agindu zioten denek beren salbatzaileari.

Eta horrelaxe gertatu zen gertatu ere. Putzutik salbatu zituen gizon hura tximuak salbatu egin zuen basoan galdurik zebilela edateko urik ez zuen batean. Beste batean etxera itzultzen ari zela, berriro galdu, eta saguak lagundu zion, gorde ohi zituen hornizioetatik janaria emanaz.

Janariarekin batera aspalditik bildurik zuen urre pixar bat ere eman zion. Ondoren hurbileneko herriraino bidea egin zion, eta hantxe ustekabeen ur putzutik atera zuen beste gizonarekin egin zuen topo.

Ostatua eta mahia jarri zizkion, baina aldean zeraman urreak jakin-mina eta irritsa piztu zizkion etxe-nagusiari. Herriko buruzagiarengana joan eta hainbeste gauza esan eta egin zituen non buruzagiak iritsi berriari deitu eta urre hura nondik zetorkion argitzeko agindu baitzion.

Hark esaten ziona entzunik, herriko buruzagiak, etxe-nagusi urre zaleak beharturik ez zion sinistu historia hura. Gizona preso hartu eta herriz kanpoko zuhaitz bati lotzeko agindu zuen, harik eta auzia jendaurrean egiten zen arte.

Presoa etsi-etsita zegoen hartan bukatu behar zitzaizkiola mundu honetan emateko zeuzkan egunak, baina behinola salbatu zuen sugea handik igarotzea eman zion suerteak, eta era hartan loturik zertan zegoen galdetu zion. Gizonaren argibideak entzunik, sugeak erantzun zion:

– Modu bat bakarra dago zu salbatzeko. Buruzagiaren semeari hozka egingo diot, eta inola ere ez du erremediorik izango hura salbatzeko. Esan ezazu orduan zuk badakizula hura salbatzen. Neuk emango dizut horretarako erremedioa, egur ikatzarekin nahasi eta zaurian jar diezaiozun. Baina esan ezazu erremedio horrek balio ahal izateko Munafika (gizon sesioti, bekaizti eta salataria) baten buruko muinak behar dituzula.

Ongi iritzi zion gizonak, eta erabaki bezala gertatu ziren guztiak. Sugeak buruzagiaren semeari hozka egin zion. Aurkitu zuten eta segituan hil zuten sugea, baina alferrik izan ziren inguruetako aztiekin mutilari eman zizkioten erremedio guztiak.

Preso zegoen gizonak hartu zuen hitza orduan; buruzagiak beste aukerarik ez baitzuen, onartu egin zuen haren proposamena.

Munafikaren buruko muinak eskatu zituenean, zalantza handiak izan zituen buruzagiak, baina urrezaleari deitu, eta bertan hil arazi zuen, haren muinak erremedioa prestatzen erabili ahal izateko.

Erremedioa jarri ziotenean, berehalaxe sendatu zen buruzagiaren semea, eta beste hurrekin batera jolasera joan ahal izan zuen.

Herriko buruzagiak preso ohiari bere aholkulari bihurtzeko eta bere alabetan ederrenarekin ezkontzeko eskatu zion.

Gizonak, izan ere, bere egintzek merezi diotena izaten baitu azkenean.

# Sagua eta katua

Behin batean katu batek sagua ikusi zuen etxean zebilela, eta atzetik hasi zitzaion harrapatu nahian. Sagua ez baitzegoen bere burutik sano-sano, ihes egin ordez, etxeko nagusiarengana joan zen, lotan zegoen lekura.

Zakurrak nahi izan zituen haserreturik zeuden biak sosegatu baina ez zuen lortu: bati heltzen zion bitartean besteak jo egiten zuen, eta hurrengoan alderantziaz. Orduan basetxean bizi ziren gainerako guztiei laguntza eskatzea deliberatu zuen. Oilarrarengana joan zen, eta hark erantzun zion:

– Ni sartzen naizen bakoitzeko bota egiten naute; konpon daitezela, bada, beren artean.

Zaldiarengana jo zuen. Hark esan zion:

– Ni hemen egoten naiz beti, eta ez naiz ni etxean bi ero horiek apartatzeko sartuko naizena. Ahuntz batengana joan zen, baina hark esan zion:

– Nik nahikoa dut nire zokoan, eta ez daukat batere asmorik hemendik kanpora gertatzen diren gauzetan nahasteko.

Zakurra kortatik kanpora irten eta idi batengana jo zuen; hark ordea erantzun zion:

– Ni ez naiz inoiz sartzen kortan; ez dakit, bada, zertan sartu beharko nukeen etxe batean.

Zakurra, beraz, etsimenez beterik berriro etxera sartu eta ikusi zuen gauzaren batzuk eroriak zirela borrokan; haietako bat oso astuna zen, eta etxeko nagusia hil egin zuela azpian harrapatuta.

Biharamun goizean haren hiletak antolatu zituzten; horretarako herriko buruzagiarengana joan ziren, lehendabiziko gauza. Harengana, ordea, ezin daiteke esku hutsik azaldu, eta horregatik oilarra hartu eta hura eskaini zioten opari.

Zakurrari tristura handia sartu zitzaion barrenera, oilarra buruz behera ikusirik, eta hark esan zion:

– Katuaren eta saguaren historiagatik gertatzen zait hau.

– Lagundu izan bazenit, ez zatekeen horrelakorik gertatu izango —erantzun zion zakurrak.

Ondoren herritik urruti bizi zen jendeari ere abisua bidali behar izan zitzaion; horretarako zaldia mutil gazte bati utzi zioten, eta ia hiltzen du zigorka.

Ohiturak agintzen du etxeko nagusia hiltzen denean ahuntza hil behar dela, eta oraingo honetan lehen esandako ahuntz horri eman zion suerteak ordaina.

Ohitura zaharrek agintzen dutenez, era berean, etxeko nagusia hiltzen denean, handik luzera gabe hiletak ospatu behar dira, eta idiak ordaindu behar izan zituen haren ordainak.

Norbaitek dauzkan medioez baliaturik inoren arazoa konpondu ahal baleza, eta egingo ez balu, luzera bada ere, kontra itzuliko zaio berekoikeria hura.

# Sadko musikaria

Errusiako ipuina.

Volkhov ibaiaren ertzean, dakarren ura Ilmen aintzirara isurtzen duen bokalean, zegoen Novgorod Handiaren printzerria, hain handia eta zabala non gau eta egun ibili beharra baitzegoen herri txikiak eta etxadiak besterik ez zirenak, basoak, istingadiak, mendiak eta haranak igaroz, hirira, hiri guztietan aberatsen eta nagusien zenera, iristeko.

Harro egon zitekeen Novgorod bere mutil ausartez, bere seme bulartsuez, eta bere egoera ezin hobeaz zor zien merkatari aberatsez.

Bai, merkatari aberats eskuzabal eta emaitza oparoen egileak bizi ziren Novgoroden. Gonbidatu pila bat bildu ohi zuten egunero beren mahai ingurura. Hantxe jaten zuten guztiek, jan, edan, eta bufoien barregarrikeriak ikusiz edo gusliaren akorde finak entzunez gustuko gozamina hartu.

Sadko zen musikari guztietan estimatuen eta gehien deitzen ziotena; jai eta festa guztietan izaten zuen parte, bankete guztietara azaltzen zen, eta denetan ematen zioten kopa bat ardo, atseginez betetzen zuena.

Baina egunak joan egunak etorri, gertatu zen ahaztu ezin zutela Sadko, eta orduan iritsi zitzaizkion egun tristeak. Aste osoa igaro zuen inorako gonbitarik jaso gabe, eta mutila geldik zegoen, besoak aurrean gurutzaturik eskuak galtzarbetan sartuta, ohorezko banketetan musika jotzera deitzen ez zutelako. Arima eta gogoak kontsolamendu irrika eta antsiak, guslia hartu eta Ilmen aintzira ertzerako bidean abiatu zen. Hantz latz baten gainera igo, gailurrean eseri eta barrenak ematen zizkion melodiarik sarkorrenak atera zizkion musika-tresnari. Aintzira sosegu handian zegoen, ispilua bezain leun. Baina ez al zen entzun musika erdiragarri hura, ekaitza sortu zen uretan eta orroka hasi ziren olatuak ertzean leher eztanda egiten zutenean. Musikaria beldurrez zurbildu zen.

— Zergatik haserretuko ote zen modu horretan ura —galdetu zuen bere golkorako Sadkok—. Zerua ezin eta bareago baitago. Haizearen bafadarik ez da sentitzen, ezta hasperen emeena ere. Guslia isildu eta Novgorodera itzuli zen.

Bi, hiru, lau egun egon zen zain, baina inbitaziorik ez... Orduan deskontsolamen ikaragarri batek urratu zion barrena Sadkori, eta Ilmen aintzira ertzera itzuli zen berriro.

Gusliaren doinuak aurreko aldi baino zoragarriago eta tristeago entzun ziren oraindik... Aintziraren hondo-hondotik zarata sor bat entzun zen, eta ur haserrea irakiten hasi zen... Guztiz ikaraturik, etxerako bidea hartu zuen berriro Sadkok.

Egun bat, bi, hiru, egin zituen berriro banketeetan jotzera noiz deituko zuten zain, baina inori

gogoratu ez Sadkorik. Orduan berriro hurbildu zen aintzira misteriozko haren ertzera. Haitz gainean eseri eta guslia jotzen hasi zen orduko, olatuak zabaldu eta uretako Erregea irten zen, esanez:

– Sadko, atsegina iruditu zait guztiz zure musika, hainbesterainoko kontuz jotzen duzu, izan ere, hain modu sarkor, kexuzko, barreneraino iristen denean... Zer emango ote nizuke nik horren ordainetan... Zoaz berriro etxera, eta merkatari aberatsek beren etxeetan musika jotzera deitzen dizutenean, esaiezu Ilmen lakuan badirela arrainak hegalak urrezkoak dituztenak. Egiezu apustu zeure buru sutsu, diru-gosez baino musikaz beteago hori, eta eska iezaiezu beraiek ere jar ditzatela postura horretarako hiru zapi-denda. Tratu hori egin ondoren, ehun ezazu zetazko sare bat, etorri berriro aintzira honetara eta urrezko hegalak dituzten arrainak emango dizkizut.

Uretako Erregea aintzira hondoa ezkutatu zen, eta Sadko Novgorodera itzuli zen berriro.

Etxe atetik barrura sartzeko ere gabe, aurki ospatzekoa zen ohorezko bankete handi batean guslia jotzera deitu zuten.

Inoiz ere baino hobeto jo zuen Sadkok egun hartan, eta berriro zetorkion lana ospatzeko kopa bat ardo, eta lupulu-aihenezko zerbeza urre kolorekoa eskaini zizkioten... Horrekin, berriketan eta gonbidatu guztien aurrean fanfarroikerian hasi zen musikaria.

– Entzun iezadazue, mesedez, gonbidatu ospetsuok, Novgorod handiko merkatariok; nik badakit Ilmen aintziran munduko gauzarik miresgarriena aurkitzen dela, neurri guztien gainetik estimagarria dena: horko uretan urrezko hegalak dituzten arrainak dabilta, nork harrapatuko dituen zain.

Eztabaida, hitz horiek mahaitiarren artean sortu zuena:

– Sadko, baina! Zertan ari zara fanfarroikerian? —ematen zioten erriertan—. Alferrik nahi gaituzu engainatu; Ilmen lakuak ez du inoiz izan arrainik urrezko hegaldunik, ezta izango ere.

Sadkok, hitz horiekin, aurrera jauzi egin eta esan zien:

– Egin nahi al duzue apustu? Hona nire aldetik neure lepoa, daukadan bakarra; jar itzazue hiru zapi-denda, mihiseak, damaskoa, oihala eta zetazko belusa saltzen diren horietakoak.

Hiru merkatari azaldu ziren postura hartu nahi ziotela, eta bakoitzak bana ez ezik hiruna denda jarri zituen apustuan.

Sadko, zetazko sareak harturik, aintzira ertzerantz abiatu zen. Bota zuen sarea, eta urrezko hegalak zituen arrain bat atera zuen; bigarren aldiz bota, eta bigarrena atera zuen; bota zuen hirugarren aldiz, eta hiruko kopurua osatuko ziona atera zuen hartan.

Merkatariek apustua galdua zuten, eta agindutako zapi-dendak Sadkori eman zizkioten.

Eta Sadko bederatzi zapi- eta oihal-dendaren jabe izatera iritsi zen, zeta, mihise, belus eta oihal finenak saltzen zituen merkatari bihurturik.

Negozioak oso ongi joan zitzaizkion. Eta, luzera gabe, inoiz usteko ez zuen eta are gutxiago ikusi zuen zoriontasunean bizi zen. Hainbestearainoko errentak lortu zituen, ezen handik gutxira izugarritzko aberastasunen jabe baitzen.

Palazio bat egiteko agindu zuen, harrizkoa zimenduetatik goraino, teilatua zeruko sabaiaren irudira jarri behar ziotena, zeruan eguzkia zuela; eta hala Sadkok etxetik irten gabe zeukan eguzkiaren gozamina; ilargia ere zeruan zebilen, eta Sadkok bere etxean sartu zuen hura ere; zeruan izarren distira ikusten zen, eta haiekin bere etxea apaindu zuen Sadkok.

Aberastu eta aberastu ari zen, eta aberastu ahala harrokeriaz puzten. Bankete handi bat prestatu zuen, eta milaka boiardo eta hiritar gonbidatu zuen hartara. Gonbidatuak zein baino zein harroago zebiltzan, nor bere zaldi sendoaz, nor bere gaztetasun alaitsuaz; honakoak beren ezin konta halako altxorrez, harakoak beren leinuaren ohoreaz... Isilik zegoen bakarra Sadko, haien elemeleak entzunez.

– Zer bada, Sadko? Zuk ez duzu zeren harro egonik ala? —galdetu zioten gonbidatuek.

– Zergatik harrotu nik bezain ongi beste guztiek ere badakitenaz? Jantzi piloa dut inoiz erabiliko ez dudana, morroi eta zerbitzariak nahi ahala, altxorrek kontatu ezin izateko moduan, eta aurki hiriko denda guztien jabe izango nauzue. Biltegi guztietako merkagai guztiak erosiko ditut, eta niri itzal egingo lidaketen guztiak lur jota xehaturik geratuko dira.

Sadkok, ondoren, postura egin zuen baietz Novgorodeko denda guztiak erosi, eta hogeita hamar mila errublo utzi zituen bahituran.

Biharamun goizean, oso goiztiar ibili zen Sadko. Bere zerbitzari guztiak esnatu, eta sekulako dirutzak banatu zizkien, hiriko denda guztiak eros ziezazkioten. Sadkok orpoz orpo jarraitu zien beren egitekoa ongi burutzen zuten frogatu eta merkatarien hondamendia ikusteko pozez.

Hurrengo egunean ere berriro bidali zuen bere morroiteria hiriko denda guztiak eraitsi zitzaten; baina a zer harridura handia noiz eta ikusi zuenean bezperan hutsik utzitako biltegiak merkagaiz mukuru eginda zeudela berriro, magiaz eta aztikeriaz bezala. Hirugarren egunean, berriro gauza berbera gertatzen zela ikusirik, amorruez eta aiherkunderaz, Novgorod bera baino ahaltsuagoa zela iruditu zitzaion, eta erabakia hartu zuen Moskuko merkagai guztiak erosi eta urrutira eramango zuela bere negozioa, beldur baitzen apustuko hogeita hamar mila errubloak galdu behar zituela. Harrezkero ez zion berriro itzal egin nahi izan Novgorod nagusiari.

Bere altxorreko diruarekin hogeita hamar itsasontzi egin zituen, kanpotik animalia baten itxura

zutenak, branka muturrean berriz arrano burua, begien tokian bi errubi distiratsu. Ontziak Novgoroden erosirik zituen merkagai guztiez bete zituen, eta Volkhov ibaian, Ladoga aintziran eta Nevan hasi zen merkataritzan; ondoren Urrezko Hordara hurbildurik, geratzen zitzaion merkagai guztia saldu zuen errenta handiak atereaz. Tartaroen erresumatik urrerik gorrien eta zilarrik finenezko upelkada osoekin itzuli zen.

Hainbesteko altxorren kargarekin ia urpera joango zirenean zetozen ontziak ur zabal urdinean zehar, baina horra non haserretzen den itsasoa eta ekaitz beldurgarria altxatzen den. Haize bafada zakarrek oihalak astindu eta alde guztietara barreiatu eta sakabanatu zituen ontziak. Olatuek bits zuria zeruela jasotzen zituzten beren bizkar malkarrak; ontzi taldea ia galduan zebilen, hondorako modu gaiztoan. Sadkok, brankan zutiturik izuz eta larriduraz begiratzen zion ekaitzaren mehatxuari. Horretan, bere bide-lagunei hitz egin zien, esanez:

– Entzun ezazue esan behar dizuedana, nire lagun ausartak. Bana gaitzen itsaso urdinaren bide guztietan zehar, ea horrela baretzen dugun Uretako Erregearen haserrea; eman diezaiogun bere ohorerako dakartzagun altxor hauetako puska bat, bota dezagun uretara daramagun zilar finenezko upelkada bat, ea Errege izugarri hori errukitzen zaigun.

Hartu, bada, segituan zilarrez beteta zekarten upel bat eta uretara bota zuten, eta bertan ezkutatu zen itsas hondoa. Baina ekaitza ez zen baretu, lehoiaren gisan egiten zuen orroka. Urrez betetako upel bat botatzea erabaki zuen orduan Sadkok... Opariaren handiagatik ere Uretako Erregea ez zen baretu, ordea.

– Gizon baten oparia nahi du uretako Erregek —esan zien Sadkok bere lagunei—. Egin dezagun zotzetara nork izan behar duen bahitua.

Marinel bakoitzaren izena ezpal banatan idatzi, eta itsasora botako zuten; hondora zein joaten zen, huraxe izango zen Uretako Erregeak eskatzen zien biktima.; Sadkoren izena idatzita zegoen ezpala irentsi zuen zurrumbilo batek, eta gainerako guztiak ur gainean geratu ziren. Sadkok berriro egin nahi izan zuen zozketa, zorteak huts egin ziola uste baitzuen. Bigarreanean, ur gainean zein geratzen zen, huraxe izango zela bahitua erabaki zuten.

Oraingoan ere Sadko izendatu zuen patuak.

– Agur, anaia nireak; agur nire adiskide onak. Zuek agurtzeko ordua iritsi zait, baina distirazko argi hau beti-betirako utzi aurretik, testamentua idatzi nahi dut, donariak egin nahi dizkizuet. Ekarzue antzar luma, nire azken nahia idatz diezazuedan. Uretako Erregeak bere ondora deitzen bainau.

Sadkok, bada, era honetara banatu zituen bere ondasunak: zati bat elizetarako; bestea eskean aritzen ziren erlijiosoentzat; hirugarrena alargun utzi behar zuen emazte gaztearentzat; eta laugarrena bere lagunentzat.

– Eta orain, adiskide nireak, ekarzue nire guslia. Azkeneko atseginaldia eman nahi dizuet, nire

alaitasun eta penatan beti lagun izan dudana musika-tresna zoragarri hau ez baitut gehiago joko.

Guslia ekarri zioten, eta inoiz baino doinu leun eta armoniaz beteagoak erne zitzaizkion, bere jaunaren zorigaitzagatik damu eta samin balu bezala.

– Zergatik ez eraman neure aldean, elkarrengandik banatu gabe, Uretako Erregearen Erresumara ere? —esan zuen zoritxarrekoak—. Eraman egingo dut, adiskideak... Emadazue haritzeko ohol sendo bat, itsasoaren ur urdinetaraino irrista nadin... Nire guslia aldean dudala, heriotza ez da horren beldurgarria izango.

Ez al zen Sadko uretan barrena sartu, ekaitza baretu egin zen, eta ontziak lur lehorreraino joan ziren, aztoreak zeruko sabaian itsasoko olatuen hain gainetik, hegada bizkorrean ibili ohi diren modu berean.

Haritz oholaren gainean, berriz, Sadko itotzen ari zen izuaren izuz, zain zeukan barren hondogabea ikusi hutsarekin. Ikaraturik, begiak itxi, eta lozorro ilunean geratu zen kolpetik.

Egunsentian Sadko esnatu, begiak igurtzi, eta begiratu bat egin zuen ingurura; ezin zuen sinetsi ere egin ikusten zuena ikusten zuenik. Amesgaizto batetik esnatu zela iruditzen zitzaion: itsas hondoan zegoen, eta bere buru gainetik gora, olatuen irudi mugikorrezko sabaia ageri zen. Esmeraldazko kupula hura ozta-ozta argiturik zegoen goizalbako distira urrunez. Begien aurrean marmol zurizko palazio garai bat zeukan, ateak erdi zabalik. Kontu handiz atetik barrura begiratu eta Uretako Erregea ikusi zuen, bere buru erraldoia ile-adats luzearekin, eta aurpegia bizartsu. Era eta modu guztietako suge, arrain eta animalia beldurgarri inguraturik zegoen.

– Egunon, Sadko, aspalditik zabilta zure merkagaiekin itsasoan hara eta hona, baina inoiz ez didazu zergarik ordaindu. Baduzu garaia zure betebeharrak betetzeko... Badakit modu zoragarrian jotzen duzula guslia; tinka itzazu musika-tresna horren sokak, kanta iezaguzu doinuren bat, adi naukazu.

Sadko musika jotzen hasi zen. Lehenengo akordeetatik beraietatik, hainbestearaino hasi zitzaion Uretako Erregeari bihotza handitzen, puzten eta tupoka jotzen, non ezin eutsi eta dantza-jauzi bati ekin baitzion. Dantza horrekin itsasoko ura ikara batean jarri zen, olatuak irakiten hasi ziren berriro, eta ekaitz ikaragarri bat lehertu zen eztanda batean: munduan inork gogoratzen ez duen halako ekaitza izan zen hura.

Sadko hiru egunez aritu zen jo eta jo, eta Uretako Erregeak ere bizilekuan dantzan egin zituen hirurak, nekeak errenditu gabe, bere gainean olatuak bitsetan zirela ontziak lehertu eta hondora joaten ziren bitartean.

Bizirik ziren marinelak San Nikolas Mokhaiskiri otoika ari ziren.

Baziren hiru egun Sadkok Uretako Erregea bere gusliaren akorde arinekin liluraturik zeukala, eta

hona non sentitzen duen esku bat jartzen diotela bizkarrean. Harriturik, jiratu eta ile zurizko agure bat ikusi zuen.

– Sadko —esan zion—, ez ezazu jo gehiago guslia... Begira zenbat hil diren uretako Erregearen dantzak suntsiturik!

Sadkok itsas hondoan galdutako ontzi guztiak ikusi zituenean, ez zuen gehiago jo bere musika-tresna.

– Pozten nauzu, gehiago ez jotzeko agindu didazulako. Ez nintzen neurez ari, Uretako Erregearen aginduz baizik. Badakizu ondo hemen ez naizela nire egitekoen nagusi.

– Eten itzazu gusli horren sokak, eta Erregeak jotzeko agintzen badizu, erantzun iezaiozu guslia hondatuta daukazula. Orduan munduko neskarik ederrenetako batekin ezkondu nahiko zaitu. Aukeratzeko zeuk, adinduko dizu; aukera ezazu itsusiena, beltzena, eta ondoren itzul zaitez berriro Novgorod Handira.

Agureak aholkuan esan zion guztia bete zuen Sadkok: gusliaren sokak eten zituen. Uretako Errege esnatu zenean, musikariari joan zitzaion:

– Jo ezazu nire gozamenerako, alaitu iezadazu nire zahartzaroa zure doinu sentimenduzkoekin.

– Joko nizuke, pozik jo ere, baina gusliaren sokak eten ezin zaizkit, tamalez, eta zure erreinuan ez duzu nork konpondu.

Hori entzunik Uretako Erregea sosegatu egin zen.

– Oso gustura nago zurekin, eta frogatu nahi dizut. Ezkondu nahi al duzu emakume guztizko eder batekin? —galdetu zion preso zuen musikariari.

– Ondotxo dakizu ez nagoela hemen neuk hala nahita. Nahi baduzu ezkon nintzakezu.

– Bihar goizean, esnatzen zarenean, emaztegaia hautatuko duzu... Neskarik ederrenak ekarriko dizkizut aurrera, hauta ezazu zeuk nahi duzuna, atseginen iruditzen zaizuna.

Biharamun goizean goiz esnatu zen Sadko. Neska gazte pilo bat ekarri zioten aurrera, zein baino zein ederragoa. Hirurehuni joaten utzi zien Sadkok, gero beste hirurehuni, eta orduan azkenekoa hautatu zuen, izenez Txernavuxka<sup>1</sup>, esanez:

– Hauxe izango da nire andregaia.

---

<sup>1</sup> Чернавка hitzaren (Beltxaran) txikigarria

Orduan bankete bat antolatu zioten, luze aritu ziren kantuan eta olgetan...

Biharamun goizean esnatu zenean, Txernaia<sup>2</sup> ibaiaren ondoan aurkitzen zen Sadko, Novgorodetik harrikada batera ere ez dagoena.

Sadko brinko batean jaiki eta korrika joan zen Volkhov ertzera, eta hantxe ikusi zituen iristen bere hogeita hamar ontziak. Sadkoren emaztea negar zotinez eta doluz ateratzen zitzaaien bidera, ontzien aurretik iritsia baitzen berria.

– Nolatan, baina, ez dator berriro nire Sadko gaixoa itsaso urdinaren urrutiko ertzetatik.

Aztikeriaz bezala, ordea, denen artean azaldu zen Sadko, eta emaztea besarkatu zuen. Lagunak harri eta zur geratu ziren ustekabeko mirari harekin.

– Nola, baina? Ez al zintugun, bada, itsasora bota? Nola azaldu zara berriro gure artean Novgoroden?

Orduan Sadkoren palazio aldera abiatu ziren guztiak, haren zori oneko etorrera merezi zuen bezala ospatzera.

– O, nire itxaropena, poz nirea —esaten zion emazteak hunkidurak eragiten dituen zotinen artean—, nire eustarria eta sostengua. Ez zaitetz gehiago joan itsaso gaiztoan barrena. Gera zaitetz zure emaztearen eta haurren artean. Eskerrak Jainkoari ekarri zaituelako.

Sadkok, pozaren pozez, isil-isilik entzuten zituen bere emaztearen esanak. Hogeita hamar ontzietan zekartzan ondasun guztiak lehorrera jaisteko agindu zuen, eta eliza bat jaso zion San Nikolas Mokhaiskiri.

Eta handik aurrera Sadko modu pobrean eta Novgorodeko biztanleengandik urrundurik bizi izan zen.

---

<sup>2</sup> черная (Beltza)

# Ergela

Gineako ipuina. Afrika.

Urteak eta urteak joan dira harrezkero; garai hartan bazen gizon bat alaba bat oso baina oso ederra zuena, guztiz ederra.

Horregatik, zahar eta gazte, beti zuen bisitaria bere etxolan. Urrutitik joaten zitzaizkion, bere edertasunaren sonak erakarrita. Ezkontzeko eske joaten zitzaizkion.

Mabale, haren aitak, ordea, harro eta handinahia baitzen, froga bat jartzen zien, onik ateratzen batere erraza ez zena, alabaren eske zetozkionei: "Saski bete ur ekarri beharko dit, nire alabarekin ezkondu nahi duenak".

Eta halaxe gertatu zen, froga zentzugabe horren berri jakin zuela luze bizitako gizon batek, luze bizi, bide luzea egina, eta abilezian ere luze zenak. Mabaleren herrirako bideari lotu zitzaion, bada, haren alaba emaztetarako eskatzeko asmoz.

Eta baldintza berbera jarri zitzaion hari ere. Iritsi berria, ordea, ez zen harritu horrenbestez, ez atzera egin ere bere asmoetan.

Herrian zuten saskirik handiena ekartzeko eskatu zuen, eta baita soka lodi bat ere heldulekueetatik lotzeko. Haren animuak ikusirik, herritar guztiak azaldu ziren, eta "ergela" deitzen zuten. Nork bete dezake, izan ere, saski bat urez?

"Ergela", ordea, ibaira joan zen, eta hantxe sartu zuen saski handi hura, ongi lotuta. Ertzean zeudenei heldulekueetatik lotuta zituen sokatatik tira egiteko eskatu zien. Ezin zuten saskia atera, eta sokak etetear ziren.

Orduan esan zien "Ergelak":

– Zoazte eta esaiozue Mabaleri saskia beteta dagoela, baina soka horiek ezin dutela karga atera eta eten egiten direla. Saskia bere etxera eramatea nahi badu, pipa erretzen ari denean pipatik ateratzen zaizkion ke harietako batzuk bidaltzeko.

Mabalek pipa piztu eta erretzen hasi zen, baina pipari tira egiten zion bakoitzeko, handik ateratzen ziren ke hariak ezin ziren bildu. Hala "Ergelari" mandatariak bidali zizkion esanez agindutako hura ezin zela egin. Ezinezkoa zela egitekoa.

"Ergelak", erantzun hori entzunik, esan zuen:

– Jakin beza, bada, Mabalek, ke hari horiek bidaltzen ez badizkit, nik ezingo diodala eskatzen didan saski bete ur hori ere eraman.

Mabalek, beraz, “Ergelaren” erantzuna entzun eta bere jokabideaz lotsaturik, alaba emaztetzat eman zion, trukean besterik eskatu gabe.

Garbi geratzen da beraz, ezin zaiola besteri eskatu, geuk ezin dugunik.

# Txakala eta lehoia

Hausa herriko ipuina. Afrika.

Lehoia txakalaren adiskide egin zen behin. Egonaldi luzeak egiten zituzten elkarrekin honetaz eta hartaz hitz egiten.

Txakala oso piztia jakintsua zen, izan ere. Bere hankei zor zien, batez ere, jakintza hura. Oihanetako bazter guztiak ezagutzen zituen: den-denetan egona zen. Edozer gertatzen zela, beste inork baino lehen jakiten zuen txakalak. Eta, ez baitzen batere isilik egon zalea, alde guztietan ibiltzen zen nonzerberri hura, entzundakoaren pregoilari.

Behin batean lehoiak esan zion:

– Entzun, gauza guztiak jakin eta denei erakatsi eta denentzat aholku duzun horrek. Oihanetako jakintsua deitzen dizute. Ez al duzu niretzat hitz egokirik? Ez al duzu niretzat aholkurik?

Txakalak erantzun zion:

– Lehoi jauna, zu zara oihanetako erregea. Erregeak zer nahi duen, bete egiten da. Erregeak esaten duela “hau nahi dut, bestea nahi dut”, zer egiten dute zerbitzariak? Hark esana. Zer aholku emango dizut nik? Baina adiskide garenez, hauxe esango dizut, garrantzi handikoa baita:

Izan ezezagutzen ez duzunaren beldur.

Joanak joan.

Gertatzekoa da beti ere beldurgarrien.

– Esadazu, nori izan behar diot beldur? —galdetu zion lehoiak.

– Oihanetako errege —erantzun zion txakalak—, ahal baduzu ez ezazu inoiz topo egin gizonarekin.

Lehoiaren begiak goritzeraino sumindu ziren amorruz.

– Zer da gizon hori, ni beldurra izan diezaiodan —esan zuen—. Ekar ezazue gizona hona; ikusi nahi dut.

– Oihanetako errege —erantzun zion txakalak—, ez ahaztu zer esan dizudan. Izan zaitez zuhurra. Oihanetako erregeak zerbait nahi zuenean ordea, huraxe behar zen egin. Erregeak, bada, bere mendekoak bildu eta esan zien:

– Non da hiena, azal nabarra?

Hiena aurreratu zen:

– Hemen nauzu; zure aitaren esklabo nintzen hau, zure zerbitzari nauzu, oihanetako errege.

Lehoiak esan zion:

– Gizona ekarri behar didazu. Zure aurrean inor ez da ausartzen hots egitera, zu ikustean izuak denak mututzen baititu. Nondik ezta piztia saldo batek eraso diela iruditzen zaie, eraso egiten diezunean.

Hienak esan zion:

– Oihanetako errege. Horra nire lepoa. Moztu ezazu, nahi baduzu, baina ez nazazu bidali gizonaren bila. Harekin topo egiten duenak, heriotza topatu du. Eta nik diotsudana, berdin esango dizute oihanetako biztanle guztiek.

Lehoiak ez zion erantzun.

– Non da tximino ausarta? —galdetu zuen—. Datorrela hona.

Tximinoa joan zen.

– Hemen naukazu, oihanetako errege. Zer nahi duzu nik egitea?

– Gizona deitzen dioten hori ezagutu nahi dut. Ekariezadazu. Zu ausarta zara; erraz ekarriko didazu.

Tximinoak erantzun zion:

– Oihanetako errege, nahi duzun guztia egingo dizut, eta nahi duzun guztia egin diezadakezu, baina eziezadazu agindu gizona ekartzeko; ez dizut ekarriko.

Orduan lehoiak esan zuen:

– Non da lehoiabarra? Non da lehoiabar bulartsua.

Lehoiabarra iritsi zen.

– Hemen naukazu —esan zion.

– Zatoz nirekin, biok joango gara —agindu zion lehoiak—; zuk erakutsiko didazu non den gizona. Ezagutu nahi dut.

– Ederki bada, zurekin joango naiz —onetsi zuen txakalak—; baina zoritxarren bat gertatzen bazaigu, ez bota niri horren errua.

Belazera joan ziren; unai bat zebilen bere behiak larratzen. Makila lodi bat zerabilen bizkarretik zintzilik, eta eskuetan hede zabal bat. Unaia behi taldearen aurretik zihoan, eta aldian-aldian hedea klaskatzen zuen, behiak bidetik atera ez zitezen.

Txakalak lehoa soilgune batera eramanez, esan zion:

– Oihanetako errege, horra gizona.

– Nor da? —galdetu zion lehoiak.

– Behien aurretik dabilen hori; horixe da gizona.

– Hori da hortaz gizona! Eta nik beldur izan behar diot horri?

Lehoa bidera atera zen eta unaiari jauzi egin zion. Unaia ez zen beldurtu ordea. Makilari bi eskuez heldu, eta sekulako kolpea eman zion lehoiari bi begien erdi-erdian. Lehoa erdi hilik geratu zen lurrean luze. Unaiak bidean aurrera jarraitu zuen.

Txakala lehoiarengana hurreratu zen. Belarrira esan zion:

– Oihanetako errege! Ezagutu duzu gizona. Orain badakizu arrazoia nuela. Baina joanak joan. Goazen laster hemendik, gizonak gure bila etorri baino lehen. Gertatzekoa baita beti ere beldurgarriena.

Lehoiak hanka bat jaso zuen; gero beste bat, eta gero astiro-astiro bere onera etorri zen.

– Txakala, zure jakituriak ez du kaburik —esan zion—. Gizona baino ahaltsuagorik ez da. Goazen laster hemendik.

Harrezkero, lehoa gizonez gogoratzen den bakoitzeko orro handi bat egiten du, eta txakala oso kontuz ibiltzen da une horretan lehoiak harrapa ez dezan, zeren ondo baitaki lehoiak ez diola inoiz barkatuko gizonak jo zuenean gisa hartan apaldua eta menderatua ikusi izana.

# Untonbinderen historia

Zulu herriko ipuina. Afrika.

Orain dela aspaldi-aspaldi, urrutiko erresuma bateko mugetan bazen aintzira sorgindu bat. Munstro bat bizi zen aintzira haren barrenean, eta gizonik ausartenak ere beldur ziren hara joateko.

Untonbinde, erregearen alaba, neska ederra zen, handia eta sendoa, eta beldurrik ezagutzen ez zuena. Entzuna zuen aintzira sorginduko urak harribitxien distira zuela eta esnerik gozoena baino gozoagoa zela dastatzeko. Untonbindek aintzira hartara joan nahi zuen.

Urte batez, euri asko egin eta ibaiak gainezka eginak zirela, aintzira hartara joateko baimena eskatu zuen Untonbindek. Aitak eta amak debekatu egin zioten hara joatea.

Urte bete eman zuen Untonbindek aintzira sorgindu hartako ur gardenetan amets egiten, eta euri sasoa iritsi zenean berriro eskatu zien gurasoei hara joateko baimena. Gurasoek debekatu egin zioten berriro.

Beste urtebete joan zen. Euri sasoa iritsi zen, eta hirugarrenez eskatu zuen Untonbindek aintzira sorgindura joateko baimena. Gurasoek bazekiten bakerik ez zutela izango alabari eskatzen zuen baimena eman arte; eta, halaxe, eman zioten.

Ezkon bidaiara balihoa bezala antolatu zuen guztia. Herriko berrehun neska hautatu zituen berekin batera prozesioan joateko; bera senargaiarengana balihoa bezala kantu eta dantza egin zezaten agindu zien. Neska guztiek, irribarrez, bi ilara egin zituzten, Untonbinderen alde banatan, eta urduri abiatu ziren beren mentura bila.

Handik pixka batera merkataritza talde batekin topo egin zuten.

— Ez al gara ederrak —galdetu zieten neskek, dantzan jarraituz—. Zein da gutatik politena?

Merkatariek berrehun neskei begiratu zieten, baina beren buru zeramaten Untonbinde baino ederragorik ez zela erantzun zieten; hura, izan ere, beste guztiak baino garaia goa baitzen.

— Arbola lirain bat bezala da, haizetan kulunkari —esan zuten merkatariek.

Untonbindek pozik jarraitu zuen bidean aurrera, baina neska batzuk haserre zeuden, merkatariek beren edertasuna gutxietsi zirelako. Merkatariek hil eta bide-bidean utzi zituzten.

Eguzkia ezkutatu zenerako neska-prozesioa aintzira sorgindura iritsi zen. Bero eta nekatu-rik zeuden. Beren besoetako uztaiak, idunak kendurik, jantziak erantzirik ur hotzean murgildu ziren pozarren. Barrez, zipriztinka, igerian aritu ziren, ordura arteko inoiz baino alaiago. Baina uretatik banan-banan atereaz zihoazen ahala, beren jantziak eta apaingarriak falta zirela ohartu ziren. Oihuz eta negarrez hasi ziren. Luzera gabe neska guztiak negarrez ziren, Untonbinde salbu, ur ertzean.

– Untonbindek du errua —hasi zen oihuka neska bat—. Untonbindek ekarri gaitu hona. Gure jantziak eta gure aberastasun guztiak galdu ditugu; hotzak eta bakar-bakarrik gaude, eta gaua badator.

– Uretako munstroak eraman dizkigu jantziak ziurrenera —esan zuen zotinez beste neska batek—. Hemen beste inor ez da. Barkazioa eskatu behar diogu. Esan diezaiogun Untonbinderena dela errua. Erregutu diezaiogun jantziak itzultzeko.

Banan-banan neska guztiek beren damua adierazi zuten, Untonbinderi bota zioten errua eta jantziak itzul ziezazkien erregutu zioten munstroari. Banan-banan neska guztiei nori bere jantzia eta apaingarriak itzuli zitzaizkien. Untonbinde bakarrik geratu zen zutik bere buru harroa zutik, barkaziorik eskatu nahi ez zuela.

– Ni naizen bezalako printzesa ederra, denek miresten dutena ez da inoiz makurtuko munstro bati erregutzera —esan zuen.

Hitz horiek halako moduz haserrarazi zuten munstroa, non Untonbinde harrapatu eta urpera eraman eta bertan irentsi baitzuen. Neskak beldurraren beldurrez beren kraalera itzuli ziren, eta gertatutako guztia kontatu zieten errege-erreginari.

– Hau zoritxarra —esan zuen erregeak—. Banekien gauza onik ezin zuela etorri horrelako leku sorgindutik. Sekulako galdu da nire alabatxo polita. Hau zoritxarra nirea!

Bere alaba deitoratzearekin ez baitzuen aski, gudari gazte guztiei deitu, eta mendekua hartu nahi zuela esan zien.

– Zorroztu itzazue ezpatak —egin zien oihu erregeak—, jar zaitzete gerrarako ordenan. Zoazte aintzira sorgindura eta hil ezazue hango munstroa.

Gudariak erregearen aginduak betetzeko gertatu ziren.

Urrutitik entzun zituen munstroak gudarien oin hotsak, ezpata hotsak, ezkutu hotsak. Haien gudu oihuak entzun zituen eta aintziratik kanpora aterarik bidera atera zitzaien. Munstro ahaltsuak bere ahoa zabal-zabal egin eta gudari guzti-guztiak irentsi zituen.

– Nortzuk dira bakean utzi nahi ez nauten horiek? —egin zuen urruma munstroak—. Beren sail guztiak suntsituko dizkiet, kraala birrinduko diet eta hala libre izango naiz horietatik.

Jan zuen jende guztiaren pisuaz makur-makur eginik kraalerako bidea hartu zuen, bidean topatzen zuen guztia abarrakituz. Kraalera iritsirik, erregea bera topatu zuen munstroak.

Ordurako ordea, hain zegoen puzturik jandako guztiaz, non mugitu ere nekez mugitzen baitzen. Erregeak aurre egin zion, ezpata atera eta eztarritik sabeleraino ebaki zuen. Gudari guztiak eta Untonbinde bera ere kanpora irten ziren. Arnasa hartu, alaitu eta berriro piztu ziren. Munstroa odol-putzu batean hil zen eta herri osoa poztu zen.

Untonbinde bizi zen kraaletik hurbil errege handi baten lurraldeak zeuden. Errege hark emazte asko eta seme gehiago zituen; emazte haietako batek, hala ere, semerik ez zuen. Ohitura betez gero, emazte hura kanpora egotziko zuketean, eta etxolarik txiroenean bizitzera behartu, baina beste errege ahaltzu baten alaba zen, eta emakume haren senarrak ez zion begirunea galdu nahi. Horrexegatik gainerako emazteak jelsiaz beterik zeuden.

– Zergatik bizi behar du haurrik izan ez duen emazteak besteok bizi garen bezain ongi —galdetzen zuten. Gorroto zioten haurrik izan gabeko emazteari, eta begiramendurik batere gabe tratatzen zuen aukera zuten guztian.

Egun batez, askotan ohi zuen bezala, haurrik gabeko emaztea negarrez zegoela, bi uso geratu ziren handik hurbil. Haur bat emango ziotela eskaini zioten, bere etxolan zituen piper-hazien ordainetan. Pozaren pozez, piper-haziak hartu eta usoen aurrean zabaldu zituen. Usoek asebete arte jan zuten, eta ondoan mokoka hasi ziren, odola hasi zitzaian arte.

– Orain haur bat izango duzu —esan zioten, eta hegan alde egin zuten.

Handik bederatzi hilabetera seme bat izan zuen. Mutiko ederra zen eta, bere amaren familia oso aberatsa zenez, haur hura egin zuten bere aitaren oinordeko, eta emazte guztien nagusi eta erregina izendatu zuten ama. Horrexegatik gainerako emazte guztiek gorroto bizi-bizia hartu zieten ama-semeari, eta haien semeak ere jelsiaz urratzen zeuden.

Erregina berria beldurrez zegoen beste emazteren batek edo haien haurren batek semea hilko ez ote zion. Boa suge baten azalean bildu eta ezkutatu egin zuen. Urteak joan urteak etorri, erreginak ezkutuan gordeta zeukan semea. Jendea marmarrean hasi zen haur hura hila zela, edo haur hura suge bihurtua zela. Hala ere erreginak ez zien erakutsi nahi bere haurra beste emazteei edo haien haurrei. Izu handiegia zuen horretarako. Horrela bada, jendeak berehala ahaztu zuen erreginak seme bat zuenik ere. Erreginaren jatorriko familia ere, bitarte horretan, pobretua zen, eta jendeak begirune guztia galdu zion emakume hari. Hala, urrutieneko etxolan, etxolarik txiroenean jarri zioten bizilekua, eta denek gutxiesten zuten, inoiz semerik izan ez balu bezala.

Garai horretarako mutila kozkortua eta gizon egina zen. Ez zuen ulertzen zergatik zegoen horren bizitza ezkutukoa eta berezia egitera behartua. Azkenean amari esan zion ez zuela harekin gehiago bizi nahi eta alde egin nahi zuela.

– Zeuk egin nauzu izaki berezia —esan zion amari—. Zuregatik hil nahi naute nire anai-arrebek. Etxetik alde egin zuen, eta amak ezin izan zuen aurkitu, ahaleginak eginagatik. Eta bere senarrarengandik edo beste emazteengandik ere ez zuen laguntzarik izan. Sinistuta baitzeuden haur hura hila zela aspaldi.

Hala ere, amak uste osoa zuen egunen batean semea itzuliko zela, eta etxola bat eraiki zuen harentzat, eta gauero-gauero jateko eta edateko uzten zion haren aurrean.

Eta nola historiak, kontatu hutsez, interesgarriago bihurtzen baitira, inguruko herrietako jendea esaten hasi zen ezen erregearen seme galdua bizirik zela oraindik eta eguzkia bera baino mutil ederragoa zela. Printzesa askok nahi izan zuten ezkutuko gazte misteriozko haren emaztegai egin.

Erregeak abegi onez hartu zituen ezkongai izan nahiz zihoazen emakume gazte guztiak, baina argi eta garbi adierazten zien ez zekiela bere seme galduaren nondik norakorik. Gisa horretan printzesa haiek erregeren beste semeekin ezkontzen ziren, eta ez zen argitzen misterioa.

Egun batez Untonbinde printzesa eder garaiak printze galduaren historiaren berri jakin zuen. Entzunez batera hartu zuen erabakia gizon hark bere senarra izan behar zuela. Eta halaxe errege haren herrira joan zen.

– Zuen erregeak badu oinordeko bat eguzkia bezain ederra dena, inork oraindik ikusi ez duen oinordekoa —esan zuen—. Haren emaztea izateko etorri naiz.

Oinordeko galduaren amak Untonbinde ezagutu zuen, eta poz handia hartuko zukeen bere semea horren printzesa ederrarekin ezkontzeko itzuliko balitz. Erregeak berriz, bere seme hura ezin aurkitu zela, eta beste semeren batekin ezkondu beharko zuela erantzun zion. Untonbindek ordea, ez zuen horrelakorik nahi izan, eta harri eta zur utzi zituen guztiak. Buruzagiaren kraaetik alde egiterik ere ez zuen nahi izan.

– Hementxe geratuko naiz oinordeko galdu hori berriro itzuli arte, eta orduan haren emaztegaia egingo naiz —aldarrikatu zuen.

Oinordekoaren ama guztiz hunkiturik zeukan Untonbinderen ausardia hark, eta etxola bat eraiki zion bere semea itzuli arte non bizi eduki zezan. Herri hartan zeraman lehenengo eguna iluntzen hasi zenean, bere etxola berrira erretiratu zen lotarako. Ustekabean amak haragia eta esne mindua ekarri eta aurrean utzi zizkion.

– Ezkon-janaria da hau —esan zuen Untonbindek—. Zergatik uzten duzu hemen gauerako?

– Urte askoz utzi dut janaria kanpoan nire seme galduarentzat —erantzun zion amak—. Orain ezkon-janaria utziko diot zure etxolan, eta ea itzultzen den.

Untonbindek gau osoaz lo egin zuen, eta goizean janaria inork ukitu gabe aurkitu zuen. Hurrengo gauean ere amak janaria utzi zuen etxolan. Goizean iratzarri zenean, gauez norbait sartu eta janari pixka bat jan zuela ohartu zen Untonbinde.

– Ikusi al duzu nor sartu den etxolan? —galdetu zion amak.

– Ezer ez dut ikusi —erantzun zion Untonbindek.

Hirugarren gauean ere amak etxolan janaria utzi zuen. Ordurik ilunenean zerbaitek iratzarri zuen Untonbinde. Eskua ukitzen ari zitzaion norbait. Gizonezko ahots batek nor zen galdetu zion.

– Untonbinde naiz, eta erregeren oinordekoarekin ezkontzeko itxoiten ari naiz.

– Oinordeko hori aspaldi galdua da —erantzun zion ahotsak—. Zergatik ez duzu beste batekin ezkondu nahi?

Erregeren oinordekoa baizik ez zela duin berekin ezkontzeko, erantzun zion Untonbindek. Janari pixka bat falta zen, eta Untonbinde bakarrik geratu zen berriro.

Untonbindek ateko maratilaria begiratu zionean ordea, inork ukitu gabe zegoela ohartu zen.

Egun horietan oinordekoaren ama oso urduri zebilen. Ziur zegoen bere semea zela Untonbinderen gau-bisitaria, eta janaria jaten zuena: Untonbindek ordea ez zuen ikusi oraindik bisitari hura eta ezin zuen esan nor zen.

Hurrengo gauean ere janaria utzi zuten, eta ordurik ilunenean giza ahots bat entzun zuen Untonbindek bera zegoen etxolan. Ahots hark sua pizteko esan zion Untonbinderi, eta hala, suaren argitan, suge batekin ari zela hizketan ikusi ahal izan zuen printzesak.

– Ni naiz erregearen oinordeko galdua —esan zion izaki hark—. Orain dela zenbait urte lurpean ezkutatu nintzen, nire anaiek hilko ote ninduten beldurrez. Orain, ordea, beste inola bizitzen ez dakit.

Untonbinde ausarta ez zen beldurtu, goizera arte itxoiteko erregutu zion sugeari, eta hitz egiteko amarekin, damuz eta penaz baitzegoen hura bere semea galdu izanagatik. Izaki hark ez zuen nahi, ilun zen bitartean alde egin behar zuela esan zion. Untonbindek erregu eta erregu eskatzen zion geratzeko, eta azkenean lortu ere lortu zuen sugeak onartzea Untonbinde bere amarengana joan eta ekar zezan. Untonbinde lasterka atera zen etxolatik. Itzuli zenean, suge baten ordeztan, gizonezko gazte bat zuen zain.

– Untonbinderen kemenagatik nire osasuna eta edertasuna itzuli zaizkit —esan zuen.

Amak eta oinordekoak pozez lehertu behar zuten. Gizona erregearen aurrera eramán zuten, ikus zezan. Hura ere pozez bete zen bere semea halako gizon ederra eginá ikusirik. Berehalaxe konpondu ziren erregearen semea eta Untonbinde ezkontzeko konpondu beharrekoak. Dantza eta festa handiak izan ziren, eta handik gerora oinordekoa errege izan zen Untonbinde erregina zuela.

# Uretako izpiritua

Afrika.

Garai batean bazen emakume izpiritu ahaltu bat; euriaren, argiaren eta beste gauza askoren gainetik agintzen zuen. Esaten denez, garai horretan baziren emakume batzuk lurralde hartan oso ur gutxi zelako neke handitan zebiltzanak: beren kargu baitzuten, izan ere, urketa. Kuia handitan ekartzen zuten urrutitik, buru gainean hartuta, horren beharrezkoa zuten ur gozoa.

Horretan atso xahar bat azaldu zen, sorbaldan haur bat zeramala. Gelditu zen, eta zalantza pixka baten ondoren, haurarentzat ur pixka bat emango al zioten eskatu zien. Ezetz erantzun zioten; bide luzea egin behar zutela ura ekartzeko, eta bere premietarako behar zutela zekarten guztia. Atso gaixoa etsita geratu zen, baina egunen batean errukirik izan ez hori damutuko zitzaizela esan zien.

Geroago gizon bat topatu zuen palmondo batera igoa. Deitu eta palma-ardo pixka bat eskatu zion haurarentzat, egarriak hiltzen zegoela-eta, gaixoa.

Gizonak baietz esan zion. Palmondotik laster-laster jaitsi eta kalabaza bete ardo eman zion.

— Ontzirik ez dut, ordea —esan zion atsoak.

— Ez dio axola, amona —erantzun zion gizonak—, hutsik dagoen kalabaza bat puskatuko dugu eta hartatik emango diogu edaten haurari.

Atsoak mila eta mila esker eman zizkion. Biharamunean ere leku berean egoteko eskatu zion atsoak gizonari handik aurrera jarraitzera zihoanean.

Gizona hain pozik geratu zen egindako mesedeaz, non gau osoan ez baitzuen lorik hartu, eta biharamunean goizean goizik joan zen atsoak esandako lekura. Txundituta geratu zen. Aintzira zabal bat zen ordu arte urik inoiz izan gabeko lekua.

Atsoa berriro azaldu zen, eta zertaz harriturik ez zuela berak, Uretako Izpiritu Nagusiak, eginagatik. Ur hartan arrantzan egiteko esan zion, aintzira hartan urik sekula ez zela faltako. Baina agindu zehatza eman zion emakumeak ez zitzaizela inoiz hango arrainak ukitu, behar izan zuenean laguntzarik eman ez ziolako. Aintzira hark Bosi du izena.

# Saguzarrak zergatik lo egiten duen buruz behera.

Baule herriko ipuina. Bolikosta.

Behin batean joan zitzaion saguzar erraldoi bat Ama Lurrari, eta diru pixka bat eskatu zion alokairuan. Ama Lurrak eman zion. Saguzarrak zerurantz jo zuen, hegan, Niame jainkoa zegoen lekura, eta dirua eskatu zion hari ere.

Handik pixka batera Niamek dirua behar, eta mandatari bat bidali zion saguzarrari, diruaren eske. Saguzarrak baietz, itzuliko ziola, eta mandatariarekin batera lotu zitzaion bideari.

Ama Lurrak, ordea, oihuz hots egin zion :

– Niri ordaindu behar didazu Niameni baino lehen. Zergatik nahi diozu hari ordaindu niri baino lehen?

Hortaz Saguzarrak mandataria aurrelari igorri zuen, agindurik esateko Niameni hankak eta hegalak harenganantz zituela, eta Lurrari ihardetsi zion, esanez:

– Niameri ordaindu nahi diot lehendabizi, gobernari guztietan handiena baita. Zu ere ez zaitut ahaztuko, eta adi naukazu beti, zuk zer esango.

Horrexegatik hain zuen, saguzarra zuhaitzetik zintzilikatzen denean, hankak gorantz ditu, Niamerenganantz, eta burua beherantz, lurrerantz, honek zerbait esan behar badio ere.

# Zein buruargiena

Borana herriko ipuina. Kenia.

Antzinako garaietan hiena eta tximinoa adiskideak ziren, eta oso elkarrekin ibili zaleak. Egun batez bietan zein zen buruargiena atera zen hizketa gaia. Luze aritu ziren eztabaidan, baina nork bere burua zeukan buruargientzat, jardun eta jardunagatik amore eman gabe.

Bietan buruargiena zein zen erabaki ezinik, gizonari galdetuz ziotela deliberatu zuten. Eta halaxe gizona bizi zen etxerantz bideratu ziren biak. Bidean zihoazela, barrez eta bromaz zihoazen biak, bi-biek baitzuten uste osoa berak irabaziko zuela.

Gizonak oso harrera txeratsua egin zien etxera iritsi zitzaizkionean. Bakoitzari pertza bana esne jetzi berri eman zien, eta gustu handiz edan zuten, edan ere, tximinoak eta hienak.

Une batean tximinoak bazter batera eraman zuen gizona. Begiratu zuen ondo-ondo inguruan behar ez zenen bat ageri ote zen, eta esan zion:

– Adiskidea, eskertzen dizut egin diguzun harrera eta eman diguzun esnea. Eta esango dizut zertara etorri garen zuregana hiena eta biok. Luze aritu gara eztabaidan bietan buruargiena zein den ezin argituz, eta zure iritzira uztea erabaki dugu. Baina entzun iezadazu ondo, eta ez ezazu ahaztu ni baino hiena bizkorragoa dela esaten baduzu, etorriko naizela nire lagun guztiekin zure etxera, eta uretan sartu eta den-dena zikinduko dizugula, eta ez zuk ez zure behiek ezin edango duzuela ur horretatik gehiagoren gehiago. Egin kontu, bada, eta begira nik irabaz dezadan.

Hienak ere, geroxeago, gizona bazter batera eraman, eta horrelako zerbait esan zion gizonari:

– Eskertzen dizut tximinoari eta niri egin diguzun abegi ona eta eskaini diguzun esne gozo hori. Barka nazazu zure etxera ekarri zerk ekarri gaituen oraindik argitu ez badizut. Begira, tximinoaren eta bion artean eztabaida luzea izan dugu zein den bietan buruargiena. Ados ezin jarri garenez, zure esanetara utzi dugu hautua. Erantzuterakoan, ordea, eduki ezazu kontuan oraintxe esan behar dizudan hau: buruargiena tximinoa dela esaten baduzu, zeuk ikusiko duzu zer ondorio etorriko zaizun. Etorriko gara hiena guztiak eta Jainkoak daki zertzuk gertatuko zaizkizuen zuri eta zure abereei.

Gizona berehalaxe ohartu zen harrapatuta zegoela batetik ez bazen bestetik: tximinoa buruargiago jartzen bazuen, hienak etsai izango zituen, eta hiena jartzen bazuen buruargiago, tximinoak etsaituko zitzaizkion orduan. Kezka larria sartu zitzaion, eta ez zekien hartatik nola onik irten.

Iritsi zen bada erabaki beharreko unea. Tximinoak eta hienak esan zioten:

– Auzi bat argitzeko etorri gatzazkizu: ea nor den biotan buruargiena. Zure esku utzi dugu epaia. Zuk esan.

Gizona luzaro egon zen gogoetan, eta esan zien:

– Zoazte biok eta jar zaitezte alde banatara, tximinoa eskuinean eta hiena ezkerrean. Bizkarrean lehen ukitzen dudana, hura da biotan buruargiena; ukitzen dudanak, ordea, bere etxera joan behar du zuzen-zuzen.

Bi lagunak gizonaren alde banatan eseri zirenean, hark aldi berean ukitu zituen biak, eta biek, zein baino zein lasterrago, nork bere etxera alde egin zuten, ustez gizonak bera buruargien izendatu zuela-eta. Halaxe salbatu zituen gizonak bere ura eta bere abereak.

Harrezkero gizona esaten da dela animaliarik buruargiena, arrisku guztietatik nola edo hala onik ateratzen dakielako.

# Zein koloretakoa da kameleoia?

Bolikostako ipuina. Afrika.

Behin batean Niame jainkoak mezu bat bidali zuen Lurrera, hango biztanle guztiak, gizon eta animalia, bere aurrera joan zekizkion. Bere aurrera iritsi zirenean, esan zien:

– Pentsa ezazue ondo eta esadazue zer eduki nahi duzuen Lurrean. Eta huraxe emango diot.

Gizonak esan zuen:

– Nik herri batean bizi nahi dut, soroak landuz.

– Guk basoan bizi nahi genuke —esan zuten piztiak.

Kameleoia berriz isilik zegoen.

– Zuk zer nahi duzu? —galdetu zion Niamek.

– Begira —erantzun zion kameleoiak—, nagoen edozein toki neurea izatea nahi nuke.

– Ederki —esan zion Niamek—. Nork zer nahi izan duen, huraxe izango du.

Harrezkero gizakiak herrietan bizi dira eta piztiak oihanetan. Kameleoiak berriz, zein lekutan dagoen, hango kolorea hartzen du, eta etxean balego bezalaxe da beretzat edozein leku.

# Zer den zailena

Amhara herriko ipuina. Etiopia. Afrika.

Herri bereko lau gizon azokara joan ziren. Bakoitzak behar zuena erosi zuen eta atzera herrirako bidea hartu zuten laurak.

Hiru aurreratu egin ziren, laugarrena atzeratu samar zetorren. Herriko gizon txiroena zen. Karga ere lauetan astunena zeraman: errotarria egiteko harria zeraman bizkarrean.

Bidearen erdia edo eginik zutela, beren herritar batekin egin zuten topo. Aurreraturik zihoazen hirurek gelditu zuten eta galdetu zioten:

– Hirian izan garen artean ezer txarrik gertatu al da herrian?

– Zuen etxeetan ez, baina harria dakarrenarenean izan da kalterik: mandoa hil zaio.

– Orain ez diogu ezer esango. Nahikoa karga astuna da lehendik ere dakarren harri hori —esan zuen bidaztietako batek.

– Ondo diozu —esan zuen besteak—. Etxera iristen denean jakingo du.

Hirugarrenak ez zuen ezer esan. Oso berritsua zen, zer entzun, instantean errepikatu beharrekoa.

– Hi kontuz ibili —esan zioten; ezer esaten badiok, egurtuko haugu, eta heuri erantsiko diagu errotarria, eramateko.

– Ez, ez; ez diot ezer esango —agindu zien berritsuak—. Ikusiko duzue; ez dut hitzik aterako.

Hizketan ari zirela txiroa elkartu zitzairen, errotaria bizkarrean zekarrela, ea lauek elkarrekin jarraitu zuten bidea.

Berritsuak ezin eutsi zion berriari. Ezin zuen isilik egon, eta ehun pauso ozta eginik zituztela, mihiari jaregin zion.

Txiroak etxean gertatutako ezbeharraren berri jakin zuenean, burua makurtu eta ia ezin zuen bere karga eraman.

Beste bi bidaztiek berritsuari heldu zioten.

– Agindutakoa ez duk bete! Ahaztu egin al duk heuk esandakoa? Hirekin alferrik duk hitz egitea! Berritsuari isiltzeko agintzea eta harriari hitz egiteko esatea, gauza bera. Orain ikusiko dituk, ikustekoak!

Bero-bero egin zuten, errotarria bizkarrean kargatu, eta herriraino eramatera behartu zuten.

Berritsuak ez zuen batere protestarik egin. Karga astun hura bizkarrean zeramala, irribarrez zihoan hala ere:

– Hau errazagoa da! Zailagoa da sekretuak gordetzea.

Horrexegatik esan ohi da berritsuez: Berritsuak errazago errotarria eraman mihia gorde baino.

# Zergatik esaten den gonbitak zor duela gonbita

Ghanako ipuina. Afrika.

Zer ez ote daki Anansik? Edozertan ari dela Anansi ez da inoiz galduan ateratzen. Horregatik inork ez du traturik nahi harekin.

Gauza jakina zen armiarma beti goserik zela, eta noranahi zihoala ere, hura beti ari zela zer jan bila. Aski zen jaki gozoren bat ematea, hura pozik edukitzeko. Hala ere gehiago eta gehiago nahi izaten zuen beti.

Herritik irteeran bizi zen. Inori ez zion uzten etxean sartzen, zerbaiten probetxua ateratzeko ez bazen.

Egun batez ordea, urrutietako herrietatik iritsitako bidazti bat, dortoka, joan zitzaion ate joka. Urrutitik zetorren, egun osoa emana zuen bidean, eta goseak eta nekeak zegoen gaixoa.

Armiarmak ez zuen beste erremediorik izan, ostatu onaren legeak agintzen duen bezala, etxea utzi behar izan zion dortokari hantxe indartu eta atsedean har zezan. Nahi, ez zuen nahi noski, baina hala egiten ez bazuen herritar guztiek jakingo zuten, eta ez zuten onik esango.

Irtenbideren bat aurkitu behar zuen, horregatik. Begiratu zion dortokari errukizko begiz, eta esan zion:

– Ez dakizu, polit horrek, zein pozik naukazun nire afaritxo apal hau zurekin erdibana egiteko aukera ematen didazulako. Baina, gure artean ohitura da egunean bitan garbitzea. Zoaz bada bide horretatik, eta berehalaxe topatuko duzu iturria. Oinak zikinak dituzu bideko lokatzez. Zoaz, eta garbitzen dituzun bitartean, nik afaria prestatuko dut.

Dortokak ontzi bat hartu zuen eta armiarmak esandako bidetik iturrira joan zen. Han oinak garbitu zituen, xukatu zituen ongi-ongi belarretan, eta etxera itzuli zen. Etxerakoan, ordea, berriro zikindu zitzaizkion oinak.

Bien bitartean armiarmak afaria prestatu zuen, eta hara-hona zebilen sukaldean, oso pozik balego bezala itxura eginez.

– Sar zaitetz, sar zaitetz, adiskide nirea —esan zion dortokari—, zatoz barrura.

Horretan, ordea, oinetara begiratu zion dortokari; eta haserre esan zion:

– Nola daiteke baina! Oinak zikin-zikinak dituzu oraindik? Ondo garbitu behar dituzu mahairatzerako.

Dortokak ere bere oinetara begiratu, eta lotsatu egin zen: zikin-zikinak zeuzkan. Baina goiz-goizetik ezer jan gabe baitzegoen, eta armiarmak afaritarako prestatuak usain gozozoa baitzuen, dortokari ahoan listua egiten zitzaion. Baina oinak garbitzera iturrira joan behar izan zuen.

Oinak berriro garbitu eta laster bai laster itzuli zen etxera, dortokak ahal duen lasterrena behintzat. Horregatik dortoka etxera zenerako, armiarmak jana zuen afariaren zati on bat.

– Afari ederra —esan zion dortokari—, eseri zaitetz laster, eta hasi.

Ustekabean bezala, ordea, dortokaren oinetara begiratu zuen berriro, eta haserre handiz esan zion:

– Zer? Ez dituzu oinak garbitu nahi?

Dortokak oinetara begiratu zuen. Bidean zekarren gosearekin ohartu ere ez zen egin nonbait itzuleran bideko lokatzak bildu zituela berriro.

– Garbitu ditut —erantzun zion ia negarrez—. Bitan ere garbitu ditut, baina hain dago lohi bide hori...

Anansi haserretu egin zen.

– Etxea zikintzen ari zara! —esan zion amorruez, ahoa betetan—. Baina zoaz, garbi itzazu oinak ongi, eta gero afalduko dugu.

Dortokari begiak tristuraz bete zitzaizkion, eta begirada hartaz begiratzen zuen janaria, erdirik ere ez baitzen geratzen; eta iturrirantz abiatu zen berriro. Anansi gaiztoa jan eta jan ari zen bien bitartean.

Dortoka iturrira iritsi zen, oinak garbitu zituen, xukatu zituen belarretan eta atzera etxera itzuli zen, ez ordea bidetik, han lokaztu egingo baitzen, belardietatik baizik, belarra garbigarbia baitzegoen.

Etxera iritsi zenean Anansi ezpainak garbitzen ari zen zegoeneko.

– Ederra afaria.

Dortokak plateretara begiratu zuen; hutsik zeuden: baina ez zuen ezer esan. Irribarre egin eta burua makurtu zuen.

– Alde egin beharra dut —esan zuen dortokak—. Oso afari ederra izan da. Ez nekien herri honetan arrotzekin horren eskuzabalak zinetenik. Inoiz nire herrira iristen bazara, etor zaitez, arren, nire etxera.

Eta alde egin zuen.

Dortokak ez zion esan inori armiarmak iruzur egin zionik, eta apurrik ere eman gabe afari osoa berak jan zuenik. Armiarma berriz herrian gora eta behera ibili zen harro-harro dortokari zein afari ona eskaini zion esanez, eta dortokak inoiz haren herrira joaten bazen etxera azaldu gabe ez itzultzeko eskatu ziola eta handiagoak zabalduz.

– Gonbita horri ezin ezetz esango diozu, dortokak ez lizuke barkatuko eta —esaten zioten auzokoek, baina barrez eta isekaz esaten zioten, ondotxo baitzekiten jakin ere nolakoak izaten ziren Anansiren gonbitak.

Anansik, hala, dortokari bisita itzuli behar izan zion. Bide luzea egina zuen zegoeneko, eta non dortoka ibai bazterrean eserita ikusi zuen, eguzkitan berotzen.

– Hara, Anansi dugu eta! —egin zion diosal dortokak—, azaldu zara bisita egitera. Eskertzekoa da. Ez dakizu zenbat pozten nauzun. Oraintxe nindoan bazkaltzera, nahi baduzu.

– Eskertzen dizut —erantzun zion armiarmak—; bide luzea da guretik zuenera, eta oraintxe nekatuta eta goseak nago.

– Ederki, oso ederki —erantzun zion dortokak—. Badakizu gauza bat? Nik etxe ondo-ondoan dut ura, ez urruti zuk bezala. Zaude bada hementxe eserita pixka batean, eta ni noan bazkaria prestatzera.

Hori esanik uretan murgildu, hantxe bizi baitzen, eta ibai hondo-hondoraino jaitsi zen. Uretan dortoka arina zen, laster moldatzen zen, lehorrean ez bezala, neke handiz moldatzen baitzen lehorrean.

Berehalaxe prestatu zuen bazkaria. Ur azalera irten eta esan zion armiarmari, urduri baitzebilen hara eta hona:

– Prest dago. Zatoz etxera.

Dortoka murgildu eta armiarmari bidea erakusten zion. Armiarmari goseak barrena urratzen zion, eta luze pentsatu gabe uretaratu zen hura ere. Dortokari jarraitu nahi zion: baina ezin: gorputzez hain zen arina non ur gainean geratzen baitzen. Ahaleginak egin arren ezin zuen uretan barrena murgildu.

Dortoka berriro azaleratu eta esan zion:

– Horren bidaia luzearen ondoren goseturik izango zara behintzat! Bazkari gozo-gozoa prestatu dizut. Zatoz laster.

Eta uretan murgildu zen berriro.

Berriro ere ahalegindu zen armiarma dortokaren atzetik murgiltzen. Alfer-alferrik ordea. Anansi bizkorra bazen, konponbide bat aurkitu behar zuen larrialdi hartarako. Harri txintzar batzuk hartu eta patriketan sartu zituen. Karga harekin ez zuen beste ezeren beharrik izan, ia-ia indar egin beharrik ere ez, hondorainotzeko. Anansi neke handiz moldatzen zen uretan, baina nekez bada ere, dortokak bazkaria prestatu zion tokiraino iritsi zen.

Dortoka ere ez zen geldirik egona, eta Anansi iristerako bazkariaren erdia jana zuen. Armiarmari berriz gorputzak ikara egiten zion gosez. Mahaira eseri zen ozta-ozta, eta dortokak esan zion ahots apalez:

– Barkatuko didazu, adiskide maitea, baina gurean ez dugu ohitura mahaira kaleko jantzita esertzeko. Erantzi itzazu, arren, dakartzazun jantzi horiek, eta berehalaxe jango duzu.

Hori esanik, dortokak ahoa bete eta jan eta jan ekin zion.

Anansiri begiak tristuraz bete zitzaizkion mahaia ikusita, geroz eta hutsago ari baitzen geratzen.

– Asetzeko adina bada oraindik eta erantzi nadin —pentsatu zuen bere baitarako.

Jantziaren patriketan zeuden ordean Anansi urpean zeukaten harriak. Erantzi bazen zen erantzi zen; ur gainera irten zuen berriro, behean ezin eutsirik.

Dortoka hondoan zegoen, bere bazkari gozo-gozoarekin. Anansi lehorrera atera zen, eta goseak itzuli behar izan zuen bere herrira.

Horregatik esan ohi da horrelakoetan gonbitak bere adinakoa izaten duela ordaina.

# Zerria eta elefantea

Bolikostako ipuina. Afrika.

Zerria elefanteari joan zitzaion behin, eta galdetu zion:

– Esango al didazu, mesedez, zer egin behar den zu bezain handia izateko?

– Sekretua da hori —erantzun zion elefanteak—; baina hala nahi baduzu emango dizut horretarako behar den magiazko gaia.

Basoan barrena sartu, eta magiazko indarra zuten hosto batzuk ekarri zituen handik gutxira.

– Egunero-egunero horrelako hosto batzuk emango dizkizut, eta azkenerako neu bezalakoxe handia egingo zara —esan zion zerriari elefanteak.

Zerria egunero-egunero joaten zen elefantearengana; hark egunero ematen zizkion magiazko hosto haietako batzuk, eta zerriak jan egiten zituen. Handik pixka batera elefantearen antza hartzen hasi zen. Loditu zen; muturra luzatzen hasi zitzaion; haginak luzatzen hasi zitzaizkion, eta begiak eta belarriak ere geroz eta elefantearenen antzekoagoak hasi zitzaizkion bihurtzen.

“Ari da, ari da”, pentsatu zuen zerriak. “Aurki naiz elefantearen berdina; baina ez naiz ibiliko, piztia alfer hori bezala, ibilian eta ibilian. Nik erakutsiko diet denei zer den piztia handia izatea”.

Muturra jaso-jaso egin eta handik aurrera ez zuen gehiago ibili nahi izan bere ordura arteko lagunekin.

Gau batez zerria basora joan zen uxarrean egitera. Ordurako ordea jokaera aldatzen hasia zen zerria; piztia handi ahaltsua balitz bezala ibiltzen hasia zen: urratsak lurra gogor zapalduz ematen zituen, zarata eginez jaten zuen; animalia askok alde egin zuten handik, zerriaren beldurrez.

Gau hartan elefantea inguru hartan zebilen nonbait. Zarata eta hots haiek entzunda, harriturik galdetu zuen:

– Nor da hori?

– Elefantea bera baino gehiago da hemen dabilena —erantzun zion zerriak oraindik ere kurrinkaren antza bazuen marru-nahi batez.

– Bai zera —erantzun zion elefanteak—. Ni adinakorik ez dut egundo ezagutu. Berehalaxe ikusiko dugu zein den hori.

Hotsak zetozen lekura joan ea zerria ikusi zuen lokatzetan ihalozka.

– Hara, hara —esan zuen elefanteak—; hara zein genuen! Nik hazten lagundu eta zu horretan... Libra batzuk behar dituzu oraindik piztia handia izateko, eta ni baino gehiago zarela esaten hasia zaitugu dagoeneko. Ez da gutxi. Bada, kito magiazko hostoak eta oraintxe zaren bezalakoa izango zera bititza guztirako.

Horrexegatik du, nonbait, zerriak muturra luze xamarra, eta elefantearen tronpa bezala jaten ari denean mugitzen ez zaiona.